



**KARDABERAZ**

KARDABERAZ AITARI  
OMENALDIA

KARDABERAZ BILDUMA - 1



# KARDABERAZ AITARI OMENALDIA

*JAZINTO ARGAlA (Gotzaia)*  
*ANASTASIO ARRINDA*  
*EUSEBIO IR AOLA*  
*ANASTASIO ALBISU*  
*GOIKOETXEA - MAIZA'tarJOAN*  
*LINO AKESOLO*  
*J. IGNACIO TELLECHEA - IDIGORAS*  
*LEKUONA 'tar MANUEL*  
*SANTI ONAINDIA*  
*MANUEL ESTONBA*  
*AROSTEOrtar JOKIN*  
*PEDRO BERRONDO*  
*IRIGOYEN'tar TXOMIN*

**KARDABERAZ BAZKUNA**  
**S. Martin kalean- 57 - bebarruan**  
**DONOSTI**

LEGEZKO GORDAILLU S. S. 541/71

LEGE-AGINDUAK BETEAK

*ESKEINTZA*

*Aita Agustin Kardaberaz'i  
bere eriotzaren 200 gn. urtean  
eskeintzen dio lan-bilduma au*

*«Kardaberaz Bazkunak»*

*Euskerak  
burua jasotzea  
(Jainkoak nai du.*



## NUN-ZER

|                                                                 |        |
|-----------------------------------------------------------------|--------|
| Ataka, A. <i>Arrinda</i>                                        | 9      |
| Itz-aurrea, J. <i>Argaya. (Gotzaia)</i>                         | 14     |
| A. Kardaberaz eta Ernani, E. <i>Iraola</i>                      | 17     |
| Kardaberaz aita, A. <i>Albisu</i>                               | 31     |
| Kardaberaz euskal gizona, J. <i>Goikoetxea-Maiza</i>            | 39     |
| Kardaberaz eta Bizkaia, L. <i>Akesolo</i>                       | ... 57 |
| Cardaveraz, Larramendi, Mendiburu, J. <i>Tellechea Idígoras</i> | 73     |
| «Euskeraren Berri Onak», M. <i>Lekuona</i>                      | 81     |
| Eleiz-gizonak Euskal literaturan, S. <i>Onaindia</i>            | 97     |
| Ego-Ameriketako Mixioak, M. <i>Estonba</i>                      | 135    |
| Euskera... Arrona-goian, J. <i>Arostegi</i>                     | 159    |
| Gaur arteraiñoko «Euskera», P. <i>Berrondo</i>                  | 177    |
| Zumarraga-ko Parroki zaarra, Tx. <i>Irigoyen</i>                | 191    |
| Fondo «P. A. Cardaveraz», Loyola, P. <i>Egillor</i>             | 195    |



# ATAKA

KARDABERAZ    BAZKUNA.

*Gazteiz:* 1924-1936.

*Donostia:* 1970.

*Idaztitxo batean emana degu KARDABERAZ BAZKUNAREN sortzearen berri eta liburu onekin batera eskeintzen ditugu, irakurle. Ez dijoa, ordea, gorputz bakar bat liburuakin eginda ta bata bestearendik galtzea balitzake. Beraz liburuxka orren erresumen bat onera ekartzea bidezkoa deritzait.*

*Gazteiz'ko Apaiztegia euskal-giroa sortua zegoen ta giro orren emaitza ta fruitu agertzen zaigu 1924'gn. urtean KARDABERAZ BAZKUNA akademi bezela: «ofizial-bidetik at euskeraz jardun eta trebatzeko» dio D. Manuel Lekuonak orduko ta oraingo Kardaberaztarren zuzendariak.*

*Euskal-giroa, Errepublika garaiko aizeak (1931-36) itzali bearrean suspertu egin zuan:*

*1932'an eun da bost teologoek asmo gogoangarri bat agertzen digute.*

*Ona euron itzak:*

*«.Euzkera galtzen dijoakigu!*

*Euzkaldunen artean bizi gera ta ezin jakin nortzuk diran euzkaldun. Ez al da euzkera gure izkuntza? Aberria maite degula ta aberriaren itza baztertu? Euzkaldun guztien artean euzkaldunena*

apaiza: orra or Elizaren gogoa. Beraz, dagigun lana... Euzkera erabilli arazteko zigorrik ez degu bear. Naikoa degu euzko-zaletasuna. Aukerako eguna gaurkoa. Ona emen guziok gaur artu bear degun erabakia:

*EUZKALDUNEKIN EUZKERAZ!»*

Ondoren zerrenda luzean datoz 105'en izen abizenak, beren rubrika ta guzti.

Teologo ta filosofo artean talde azkok eldu zion lanari. Denak D. Manuelen ardurapean: astero batzarra ta illero lan bat agertu bear euskeraz bakoitzak, batzarrean danon artean aztartzeko...

Aldizkari bat ere sortu zan «Kardaberaz» izenakin

Lekeitio'ko Olerki Egunean bost sari nagusi Gazteiz'ko Seminarioa joan ziran egaka... Illabete baiño leen guda zital batean geude murgilduta...

*EUSKERAK BURUA JASOTZEA JAINKOAK NAI DU,*  
zan gure orduko ta oraingo ikurriña.

\* \* \*

2970. Berreun urte Aita Agustin Kardaberaz ill zala. Irailak 25. Donostiako Gotzaitegian biltzar bat: Kardaberaz'en aldeko omenaldiak sortarazteko.

Egin dira omenaldiak Ernanin eta Loyolan.

Egun artan bi asmo agertu nitun batzarkideei: bata Gazteizko Kardaberaz Bazkuna berpizteko asmoa; bigarrena, berriz, Kardaberaz'en omenaldirako liburu bat eskeintzea Aita Agustiñeri.

1970. Azaroak 5.

Kardaberaz Bazkuna berpiztu degu. Debako erretore-etxean.

Zuzendaritza D. Manuel Lekuonari eskeiñi diogu, bera izan bait zan beti gure zuzendari. Egun artan asi giñan batzar nagusi bat antolatzeke urratsak ebagitzen...

*Erakunde Eguna.*

*Otsaillak 18.1971. Loyolako Jesuiten Etxean.*

*Manuel Lekuona, zuzendari. Anastasio Arrinda, ordeko. Pedro Berrondo, idazkari. Juan Jose Garmendia, diru-zai. Ondoren, akta firmatu zutenak: Jokin Arostegi, Gotzon Rementeria, Esteban Abarisketa, Pedro Gorostidi, Anastasio Albisu, Jose Maria Laborde, Juan Mari Galarraga, Jose Maria Bergara, Luis Larranaga, Jose Maria Zamora, Joaquín Dorronsoro, Sotero Plazaola, Pedro Puxana, Andoni Amutxategi, Santi Onaindia, Luis Mari Galarraga, Txomin Irigoyen, Saturnino Gantxegi, Jesus Gaztañaga, Errapel Artola, Paben Loidi, Serafín Esnaola, Juan Arantzamendi ta (bere ordenaz) Ramon Narbaiza.*

*Araudi au onartu genduan:*

*Elburua: Euskeraren bizitza, Euskalerrriaren onerako, kristau-pentsamentuaren barrenean, euskal-izkuntza egoki bati begiratuaz. Bazkunaren ekintzarako Aita Kardaberaz eredu.*

*Bazkideak:*

*I. — Asierako, gerra-aurretik bazkide ziren guziei deiegingo zaie. Bakoitzak, bazkun-berritze au onartuaz bere izena emango du. Onela osatutako bazkidetaldea izango da KARDABERAZ BAZKUNA.*

*a) Bazkide izateko, nor-zer-izanaren baldintzarik ez da... dela gizon, dela emakume, dela elizgizon, dela laiko... berdin.*

*b) Bazkunaren zuzendaritzak, bazkide bakoitzaren sarrrera onartu edo ukatu egingo du.*

*II. — Geroago, elkarren arteko iritzia entzun ondoren, araudi iraunkorra egingo da; oraingo au bitarterako izango da.*

*III. — Bi eratako bazkideak izango dira: Idazleak eta lagunak. Izenak dakarren bezela, bere eginkizuna ez da berdiña izango: Idaztiak sortzea edo ta laguntza ematea. Guziek batzarretan mintzatzeko eskubidea, eta erabaki-bearretan autamena izango dute.*

a) *Idazle bakoitzak, berez, aukeramen osoa du bere idazlanean,*

b) *Idazleek, bere idazlangitzari dagokionez (gaietan, ritzietan, idazkeralegetan) berek bakarrik, beren erabakiak artuko dituzte.*

c) *Liburu bakoitza (dela laburra dela zabalagoa) argitaratzekoan, zuzendaritzakoek ikusiko dute nola argitaratu ta nola zabaldu.*

IV. — *Autatze guzietan, erdiaz gaindiko autakiek erabakiko dute.*

*Zuzendaritza:*

V. — *Kardaberaz Bazkunak izango ditu: Lendakaria, lendakari-ordezkoa, diru-zaia ta idazkaria.*

VI. — *Auetako bakoitza, bazkide en artetik autatua izango da: bazkide bakoitza autagarri ta autatzaille da.*

VII. — *Autaketa, erdiaz gaindiko autakiek erabakiko dute; autatze-unean norberak an egon bearko du.*

VIII. — *Aipaturiko kargudunek, onelako kultur-bazkunetan oi dituzten eskubide ta eginkizunak izango dituzte, bai kulturari buruz, bai ekonomiari buruz.*

IX. — *Bazkide bakoitzak, diru-zaiari emango dio: sarrerakoan milla peseta ta urteoro beste milla peseta.*

*Lenengo asmoa beteta zegoan.*

*Idazten ikasten segitzeko Idazle-Eskola ere badegu gure artean. Berez, Kardaberaz-Bazkun au beti izan zaigu idazle-eskola, ez da ba arritzeko gaurko egunean ere leengo eginkizunak gudan artzea...*

*Bigarren asmoa liburu onekin betetzen degu, Aita Kardaberaz'en omenaldirako ateratzen degunakin, alegia.*

*Liburu oneri buruzko oarren bat bearrezkoa zaigu.*

*Ta auxe da: liburuak Aita Kardaberaz du gai, baiñan ez gai bakarra. Bere omenaldirako ateratzen deguta, aldizka, berbera degu itz-bide; bestetan, ordea, berak aiñ maite zitun Euskera ta Euskalerria. Orra zer dan liburu onen mami ta guna.*

*«Idatzi eta zabaldu» izan da beti Kardaberaz-Bazkunaren ezaugarria.*

*Elburu ori betzera goaz eskuan dezun liburu onekin, aldizkarietan argitaratzen ditugun idaztiekin bezela.*

*Bide oneri eldu diogu eta aurrera jarrai nai genduke zuen guzion laguntzarekin. Kardaberaz-Bazkunaren laguntzalle berriak bear ditugu: bere liburu ta emaitzak jasoko dituzten laguntzailleak, alegia.*

*Liburu-sorta eskeiñi nai genioke euskaldunei, baiña orretarako bazkideak bear. Liburuak artuko dituzten bazkideak Artara beuren buruak beartuko dituztenak. Orduan bakarrik beteko degu gure elburua: Idatzi eta Zabaldu.*

*Diskoak eta kasetak, irratiak eta aldizkariak, orra beste arlo interesgarriak ere. Danontzako dago zeregin: idazleentzat eta zabaltzailleentzat.*

*Laguntzaille izan nai badezu aitzera eman Kardaberaz-Bazkunari eta ongietorria emanen dizugu.*

*Arrinda'tar Anes.*

## ITZAURREA

*Lerro batzuek eskatu dizkidate, Kardaberatz Aitari eskeñi dioten liburu ederrarentzat sarrera izan ditezen. Oso pozik idatzi ditut.*

*Agustin Kardaberatz Aita, denbora guztietako gipuzkoarrik santuenetako ta ospatsuenetako bat izan da, ezpairik gabe.*

*Bi urte dira Ernanin omenaldi aundi bat egin ziotela, an jaioa bait-zan; eta Loyolan ere bai beste bat, urte askotan an bizi izana bait-zan. Orduan ezagutu zituzten obeto gipuzkoarrak San Inazioaren Seme jator onen bizitza ta lan bikañak*

*Kardaberatz aita egiñalak egin zituan gure erri osoa kristauago izan zedin. Osasun berakoa izan arren, lan asko egin zuan. Gure erriko bide guztiak ibilli zituan, eta, esan dezadan garbi, baita guztiak bere izerdiz busti ere.*

*Asmorik onenak, Jaungoikoari ta Elizan zien maitasunak, animentzako bere onginaia eta bere euskaldun erriarentzat zuan maite-miñak bultzatzen zioten bere apostolu-lanetan.*

*Jesusen Biotzaren apostolu gartsua izan zan. Askotan da askotan esaten zuan Jesukristo dala ez galtzeko bide bakarra; ez iltzeko bizi bakarra; ez utsegiteko egi bakarra. Orregatik esan oi*

*zuan: «Jaunari ez diogu beldurrik izan bear; Jaunari maitasuna izan bear diogu ta neurri-gabeko uste ona.»*

*Gure artean egin zituan sermoi bikañak euskeraz izan ziran; eta bere liburu ederrak ere euskeraz egin zituan.*

*Orregatik oso bidezkoa da Kardaberatz Aita, gure izkuntza-ren maixu ta gurasoetako bat bezela eukitzea.*

*Eta itz auekin bukatzera nijoa. Jesusen Biotzak gora dezala Elizan, Santuen lerrora jaso-ta, lurrean ainbeste eratan Bera goratu zuan Kardaberatz Aita. Ala nai dakiola!*

*Auxe da gure erriko kristau guztien gogo bizia.*

*t Jazinto. Gotzaia*

*1-1972*

Parroquia de San Juan Bautista

H E R N A N I

DON JOSE EUSEBIO SE IRAOLA E IPARRAGUIRRE.OTRA  
ECÓNOMO BE LA IGLESIA PARROQUIAL BE SAN JUAN BAU-  
TISTA BE HERNANI,PROVINCIA BE GUIPÚZCOA, DIOCESIS  
BE SAN SEBASTIAN,Y ARCIPRESTE BE ZONA

C E R T I F I C O :

QUE en el libro III de Bautizados,fol.179 de  
este Archivo Parroquial existe una Partida de Bau-  
tismo,que cOpiaada literalmente dice asi:

"A veintinueve de diciembre del año de mil setecien-  
tos y tres bauticé a Agustin de Cardaveraz,hijo le-  
xitimo da Sebastián, de Cardaveraz y Manuela de El-  
gorriaga,siendo padrinos B. Agustin de Zabala y  
Dña. Ana Maria de Cardaveraz,y lea advertí el pa-  
rentesco da cognación espiritual".- Existe al mar-  
gen una nota que dice asi:"Jesuita que murió en  
opinión de Santo on Italia,año 1770"- "Juan Bautis-  
ta de Leizaun".- FIRMABO Y RUBRICABO

Boy fe,fimando y sellando oon el de esta parroquia  
de mi cargo,con fecha 2 de febrero de 1.972.



## A. KARDABERAZ ETA ERNANI

Joan Bataillearen Ernani'ko Eliz-parrokiko Liburutean, Bataiatuen III garrenean, eta 179 gn orrian, AGUSTIN KARDABERAZ'en bataio-agiria arkitzen da. Aldamenean auxe dio; «Jesuíta que murió con opinión de santo en Italia el año 1770».

Erri onen seme ospatsu baten eriotz-berreungarren urtea gañean genduan.

Lanean asi bearra zan, eta gogo bizi-biziz asi giñan.

Urteoro, erri-festatan, zerbait idazteko eskatzen didate programa edo dalakoan agertu azteko; eta onela 1970'gn urtekoan auxe idatzi nuan «Une auxe artzen det zueri esateko laxter datorrigula, alegia, egun zoriontsu bat: Ernani'ko seme argitsuenetako baten gorespena.

Ernani'k seme asko izan ditu; bere izenan dizti ta zorion izentegietan daude. Baño baliteke AGUSTIN KARDABERAZ aña gure omenaldiaren sarigarri iñor ez izatea. Ernani'ko seme au 1903'gn. abenduko 29'an jaio zan. Castel San Giovanni, Bolonia'ko Eliz-barrutian il zan, 1770'gn. urrillaren 18'an. Ernani'ko seme ospatsu au il zaneke berreungarrengo urte betetzea gañean degu.

Uste det egun orrek ez duala igaro bear bere oroigarri gabe. Gure Ernaniartasunak, naiz edozein izen buru, ez luke barkatuko beñere orixe astutzea; AGUSTIN KARDABERAZ'en izenak dauzkan balio guztiak oinperatzea izango litzake ori.

1970'gn. urtea guretzako «eun-urte» izan bear du, eta uste genezake ekin-bide onak agertuko dirala danori gogoratu-azitzeko AGUSTIN KARDABERAZ'en oroimen eta mandatuak esan nai duena denbora dijoan bezela.»

Gero, 1969'gn. urte aldi azkenean, Gotzai jaunak, berez eta batez ere gure Agustin'en dion zaletasunak bultzatuta aurrera bi-deak iriki zituan; bein baño geiagotan itz egin zian, alegia, al dan ondoena antolatu bear zirala jai egun oietako zer egiñak.

Eta olaxe, 1970'gn. urtearen asieran, batzar batera deitu zigun Ernani'aldeko eliz-buruari, eta antxe, bere etxean alkartu giñan beste gizon emakume askokin «zerbait» egin naiean.

Billera batzuek egin ziran, eta erabaki antzera, onexek izentatu ziran:

a) — Ernani'n egin bear zirala, berreungarren urte aldia ospatuaz alako elizkizun eta beste alderdi askoetako jaiak ere bai.

b) — Eliz barrutian buruz ere, Loyola'n antolatu bearko zirala eginaldi berezi batzuek.

c) — Aspaldi xamar Bitori'ko Apaiztegia sortu eta lanean jardun zuan KARDABERAZ «Academia» eraberritu bearrezkoa zala, orduan bere bizkar artu zuan zer egin berakin: «Euskera garbian kristau pentsaketa zabaldu».

Batzarrak eta billerak aurrera zijoazten, eta ekin-bide berriak ere agertzen ziran.

Berriro ere erriko «festak» ba-zetozten, eta aurreko ariari jarraituz onela nion «programa» edo dalakoan:

«Datorren udazkenean, Jaungoikoak nai ba-du, Ernani'k dir-diraz ospatuko du bere seme ospatsuenetako baten eriotza santuaren berreungarren urte au. Eliz-Barrutiko Gotzai ber-berak Erroma'n egin ditu lendabiziko lanak eta uste izatekoa da ordua irixten danean, Ernani guziak arreta aundiarekin artuko duala egun goragarri au ospatzeko lana.

Seme ospatsuan beren erriak aunditzen dituzte; baño auek gogoratu erritar jator danaren lana izaten da. Auxe degu gure gertaera».

Eta olaxe, 1971'gn. urteko udara osoan ixil ixilk baño kementsu lan egin zan Ernani barruan egin bear ziran jaieri buruz.

Iru illabete osoan, asteoroko parroki-orrian, KARDABERAZ'-en bizitza pixkana eta ziatz aitatu zan,

Ernani'ko iru eliz-buruak; batzarretara joaten ziran.

Izparringietan ere bein eta berriro Kardaberaz'en jokaera gogorazten zan.

Joan Bataillearen eliz-parrokiak ere bere jaiak antolatu zituan.

Aitatzekoak dira noski: Kardaberaz'en agerpena, erri etxean antolatu zana; ainbeste lagun jua ziran ikustera. Loyolatik ere bere gorputzkiñak ekarri ziran, eta ementxe eliz barruan guztion aurrean egon ziran Ernani'n bertan ere dauskagun beste gorputzkiñakin alkartuta. Aita Arrupe'k ere bere eskutitza bialdu zuan, eta erri guztian zabaldu zan. Ernani'ko Elizan ere Kardaberaz'en gorputzkiñak gordetzen diran txokoa berritu eta apaindu zan, eta euskeraz eta erderaz idatzita jarri zan bere eriotz eta berreungarren urteko goralmena.

Beste zerbait ere egiteko asmoan giñan, baño oiek gerorako utzi ditugu, Pastoral aldetik egin bear diran batzar eta billeratan artzen diran erabakiak ikusi arte.

Katekesis Kardaberaz ere ikastola antzera iriki zan eta aurrera dijoa.

Erri oso osoa jai eguna ospatzen alegindu zan. Erri Meza guztiz ospatsua izan genduan, Gotzai jauna buru zala. Gure Gotzai jauna egun osoan gure artean izan genduan.

Gerorago, berriz, Loyola aldean ere jai aundi bat egin zuten, eta Ernani'tik ainbeste lagun jua ziran.

Orrezaz gañera, aspaldiko Bitori'ko Kardaberaz «Academia» berritzeko asmoak ere aurrera zijoazten. Anastasio Arrinda jauna lan oien jabe egin zan. Eta berealaxe bere lanari buruz eta jator ekin zion.

Orain zure eskuetan daukazun liburu au «Academi» orren lana dezu. Berriro ere, aspaldi baten bezela, Kardaberaz izena dala

ta, Euskal-errian sortu zaigu langille talde ederra. Egin-nai bera-kin: «Euskera garbian kristau pentsakera zabaldu».

AGUSTIN KARDABERAZ'en eriotz santuaren berreungarren urtea ospatu degu. Baño asi egin gerala esan genezake; aurrera jokatzeko asmo bizian gera. Liburutxo au ez da bakarria izango; atzetik ba-datoz geiago.

Lantxo auxe bukatu baño leenago beste zertxobait ere esan nai nuke. Gotzai Jauna deituta biltzen giñan artean ba-zan gizon bat. Ez nolanaikoa: gizona, oso-osokoa; euskeldun jatorra; kristau berezia; idazlari bikaña; zuzen bidetik aurrera jotzen zuana. Bai; olakoxea zan gure JOXE ARTETXE. Onek ala zion: gaurko egun gogor auetan, illuntasuna eta kezka dariola ditugun egun auetan, kristau garbiak bere burua aberastu bear izaten du bein baño geiagotan. Izan ere alako zalantzak ditugu gure artean. Aurreko denboratan liburutxo bat esku artean izan genduan, Kempis deritzaiona. Ainbeste mesede egin zuan liburutxoa, benetan. Gaur ere, gaurko egunari buruz olakoxe zerbait bear genduke: argia, indarra, eta biotz berotasuna nunbait arkitzeko. Eta ala zion ARTETXEK: Oso egoki izango litzake, gure Aita KARDABERAZ'en omen-aldia dala-ta, norbaitzuen artean lan egoki eta bearrezko orixe egitea: liburutxo bat, esku-artekoa, Kempis'en antzekoa, gaurko eguneko kezka eta zalantzan argi eta indarra dakarrena. Nere ausardi bat agertuko dizuet: ¿ez ote lezake bere gain artu lantegi au Karda-beraz «Academiak»? ARTETXE berak ere bere liburuetan ainbeste pentsamendu egoki eta aberats ba-ditu. Danak bildu eta uts ori bete.

*José Eusebio Iraola*

## KARDABERAZ'tar AGUSTIN AITAREN BIGARREN EUNURTEA

Nere adizkide ta senideok, agur:

Gañean degu oraintxe, Kardaberaz'tar Agustin Aitaren eguna: Berreun urte il zala, ta santu bezela il ere. Hernani'n jaio zan 1703'garren Abenduan, eta ementxe, Juan Bautista donearen eliz ontan bataiatu zuten.

1721'garren urte-asieran, berak 21 zituala, Jesus'en Lagundian sartu zan. Geroztik, beraz digunez, gero ta ugarigo ixuri zizkan Jaungoikoak bere erruki ta graziak; eta gero ta leialtasun aundiagoarekin Jaungoikoa serbitzeko irrikaz bizi izan zan. Bere bizitzaren aldirik luzeena Loiola'n igaro zun: 1736'garren urtetik, 1767'garreneraño. Erbesteratu zuten arteraño.

Aita Kardaberaz'ek, Gipuzkoa'ko seme zanez, Gipuzkoa benetan eta gogo beroz maite izan zuan. Baita onbiderik asko eman eta santutu ere egin zuan bere bizitz arrigarri eta itzaldi sutsuekin. Iya Gipuzkoa guziko parroketan itz-egin zuan beñere aspertu gabe; eta amaika erri berpiztu ere bai bere mintzo argi eta zerukoiaz.

Bere azken urteetan ordea, gaxorik eta ainbeste akatsez josia, ezin ziteken leen bezela, mixio-lanetan batera ta bestera ibilli.

Orduan, gogo-jardun edo ejerzizioak egin naiean Loiola'n biltzen ziranen ardura bere gain artu zun. Aita Kardaberaz degu

gogo-jardunen xuspertzalle eta baita Loiola'ko gogojardun-etxearen eragillea ere.

Euskalerrian, apostoladutzako biderik onena eta bear bearrezkoa zalako, ardura, maitasun eta gogo bizienakin ari izan zan euskeraz mintzatzen, idazten eta euskerara itzultzen. Beste lanen artean, utzi idazute neronei dagokitan bat aitatzen: Aita Astete'ren dotriña euskeratu zuan, eta auxe izan zan ain xuxen, nere aurtzaroan esku artean erabilli eta ikasi nuan kristau ikasbidea.

Pake zale amorratua gendun Aita Kardaberaz. Arrigarria gizonak alkarrekin aixkiderazteko zuan bere doaia! Itz-egin zuan toki guzietan asarreak desegin eta auzi guztiak onik erabaki oi zituan.

Gizaarte gaietan ere erabat sartuta ikusten degu: gaxoak edo beartsuak edo txiroak zirala-ta, iñork ez bezela eratuko zituan bear zituzten laguntza guziak. Aizpeiti'ko Hospitala ere, Aita Kardaberaz'ek lagunduta jaso zala ba-dakigu.

Zeñek esan, gure Kardaberaz'ek, ainbeste ildura berekin zituala eta ain minbera zalarik, orrenbesteko eginkizunai: bereganatu eta urteetan, lan gogor artean, asitakoak bukatzera iritxi zitekenik...

Españi'ko errege Karlos III izan zan, jesuitak erbesteratu eta oien etxe ta ondasun guztien jabe egiteko erabakia eman zuana. Biotzondoko ederra gure aitarentzat! Bañan Jaungoikoa gizon guzien ganetik zebillela gogoratu-ta, ixil-ixillik eramaten jakin zuan ezbear au. Emen, Donosti'n bil-erazi zituzten Gipuzkoa eta Nafarroko josu-lagun guztiak eta emendik irten ziran erbestera Ferrol'dik ziar.

1770'garren urtean, Urrilla'ren 18'an il zan Aita Kardaberaz 67 urte zituala, Itali'ko Bolonia deritzaion uri inguruan, erbeste bete-betian.

Aita Kardaberaz'en bizitzan, batikbat geien agertzen zaigun apaingarria, Jesus'en Biotzaren zale eta Bere jaiaren (debozioaren) zabalatzalle bizkorra izatia deritzaigu. Bere erakutziak gai ontan ziñez ziur eta bikañak ziran. Bear bada orduko bere idazkera

zerbait gogaitgarri ditekeana, bañan bere jakinduria zuzena, xamurra ta goi-goikoa.

Gaur egun, Elizak damazkigun erakutziei aurea artuaz, Aita Agustin Kardaberaz'ek, Jesus'en Biotzari buruz diogun guztia, Jesukristo Ber-beragatik dioguna dala zerakuzan, Jesukristo'k gizonen dien maitasunagatik dioguna; biotza maitasunaren irudirik jatorrena bait-da, adibiderik egokiena eta Liburu Santuak erabilli oi duana. Orregatik Aita Kardaberaz'ek dirauskunez, Kristo'ren Biotza gurtzea, Kristo Ber-bera goratzea da, Jaunak izan digun maitasunari, gure Eroskundera zor diogun maitasunari agur egitea.

Beste argitasun berri bat ere, ba-du, nere ustetan Aita Kardaberaz'ek: Jesus'en Biotzaganako jaiera, Eukaristi Santuarekin bat-egitea, alegia. Jaunak, lurrean zalarik izan zuan bizitz zuzen eta guztiz jarraigaria, ezkutuan bada ere, egi-egitan beintzat, Eukaristi bidez iraun eraztia nai izan zuan onbide ederrenen irakas-kintza izan dezagun. Eliz-Batzar Nagusiak ere, Liturgia berritu naiez, gu guziok Eukaristira garamazki, bertako Jainko-bizitza geregianatu dezagun. Ontan ere, gure Kardaberaz guzien aurretik zerbilkigun.

Azkenik, beste itz bi esaten utzi idazute. Elizak, ba-dakigu, eragozpenik asko ba-darabilki gaur egun. Era askotako pentsakerak, burubide ta ikaskiak entzuten ditugu baztarretan. Aita Kardaberaz ere bide oietan barrena ibillia zan, bear bada gure gaurko bide oiek baño latzagoak eta arrixku aundigokoak igaro zituan. Baño bai ongi erantzun ere Jesukristo'ri! Beti eta nun-nai Ebanjelioa zabalduko zizun aspertzeke, eta bere jokaera ere, sinismenaren neurrira erabilli.

Ospatu nai degun BERREUNgarren urte onek gure kristau bizitza ugaritu, aberastu eta indartu dezaigula. Ortarako bear-bearrezko zaizkigun grazi eta laguntzak iritxi bezaizkigu zerutik Aita Kardaberaz'ek; zerutik bai, antxe arkituko da-ta noski, bere anima eder-ederra.

Jaungoikoak bere onespenez bete zai tza tela, nik apalki be-deinkatzen zaituztedan bezela.

*Jazinto, GOTZAIK*

Donosti'n 1970'garren Urrilla'k 2.

## Juan Bataille'aren eliz-parroquia. - ERNANI'»

Urrilla - 1.970

POZIK ETA ARDURATSU BERREGIN NAI DEGU IOSU-LAGUNDIZO BURU NAGUSI DA'N ARRUPE'TAR KEPA AITA AGURGARRIAK, DONOSTI'KO GOTZAI JAUNARI IDATZITAKO ESKUTITZA. — KARDABERAZ'TAR AGUSTIN AITA ORAIN BERREUN URTE SANTU BEZELA IL ZALA-TA, EGUN ONTARAKO EGIÑA DEGU. ESKUTITZ AU GOTZAIK BERAK IRAKURRI ZIGUN MEZA NAGUSI GARAIAN. — MEZA, BERRIZ, «ERRI-MEZA» IZAN ZAN BAI. — GOTZAI JAU'NAKIN BATERA ERNANI'KO SEME, APAIZ DIRAN, ETA IOSU LAGUNDIKO BATZUK ALKARTURIK EMAN ZUTEN, JUAN BATAITZALLE DONEAREN PARROKIAN, 1970'gn. URRI-LLA'k 18 ZITUALA. KARDABERAZ AITA IL ZAN OROITEGUN BERE-BERIAN AIN XUXEN ERE.

JOSU-LAGUNDI'KO  
BURU NAGUSIAREN  
AUZITEGIA

1970'gn. Urrilla'k 18

Borgo S. Spirito, 5  
Erroma'n

DONOSTI'ko GOTZAI  
txit argi ta agurgarri  
ARGAYA'tar JAZINTO'ri.

Gotzai Jaun maite-maite:

Beste ezer baño leen, eskerrak eman bearrean nauzu, Kardaberaz'tar Agustin Aita il zala berreun urte betetzen dirala-ta, egun au ospatzeko artu-emana izatera dei-egin didazulako.

Bidezko deritzait batez ere ERNANI, Kardaberaz'en jaíoterri danez, eta Donosti'ko eliz-barruti osoa ere, jai ontan, zerbait antolatatu naiena ibiltzea. Eta beroiekin alkartu egin bear bada Iosulagundia'k ere, bere semerik aundienetako bat bait-gendun Kardaberaz Aita.

Neronek joaterik ez ordea orreraño, eta Loyola'ko Jesuiten Buru egiten duanari eskatu diot, agertzeko nere ordez zuen artera.

Nik ere itz ematen dizut, Jaunari bereziki egingo diotela otoi, egun zoragarri eta onuratsu bat izan dezazuten.

Jesus'en Lagundikoak oso goi-altxa dute beti Aita Karda-beraz; Apostoladutzan, langille porrokatua dakusgu; santutasu-nean, aundia benetan; eta gutxi bezelakoa gizatasunean ere.

Arrigarri ba-zitzaigun eta eraginkor izlari bezela elizan ere ezin sartu sarritan, berari entzutearren, jarrai zitzaizkion guziak, eta eliz-atari ta enparantzetan itz-egin bear izaten zuan; goragarri baldin badegu lagun urkoaganako bere onginaia: bein baño geiago-tan eragin zion euskerazko idazti berriak sortzera (ira danak eliz-liburuak), «Retórica vascongada» deritzaion ikasbide aipatua ere egin zuan, eta beste izkuntzetan argitaratutako zenbait idazti euskeratu ere bai; ala ta guztiz ere, ba-ditut, Kardaberaz Aita'ri buruz esan gabe utzi nai ez nituzken beste ezaugarri bi,

Margante doatsuak izan zitun agerkundeen ondoren, Jesus'en Biotza-ganako zaletasuna zabaltzen, ez zan izan iñortxo ere Españi'n guztian, gure Aita Kardaberaz'i aurea artu zionik. Berak dionez, 1727'gn. urtetako jaiera onen jabe zitzaigun Kardaberaz. 1733'gnan, bide ontara zuzendu zuen Hoyos'tar Bernardo Aita, eta geroztik, Aita Hoyos'en jokabideak aspertzeke jarraituz, be-ronengandik jaso zuan, Kristo'ren Biotza'ganako gurmene Españi guzian zabaltzeko sugar eta lei zerukoia.

Kardaberaz gendun Bilbo'ko eliz batean, 1733'gn. Garagarri-llan, eta jai aundi batez, lenengo aldiz jaiera onen berri eman ziguna. Ez zitzaigun aspertuko eta leiatsu mintzatzen zan gurmene onen mamia agertzen; su-ta-gar jardun oi zan Kristo Ber-bera-ganako maitasun bizia gizabiotzetan piztutzen. Mixioak emandakoan, ark uzten zun arrastoa, ark! Eta an gelditzen ziran erabat berri-turik, mixioetako ondoren osasuntsuak galdu ez zitezen, kristau aitormene ben-benetakoei eta kristau-bizitz jatorrei eutsiko zien kris-tau talde bikañak.

Adibidez, ara an, Madrid'en, 1736'garrenian, Ikastetxe Na-gusian sortu zituan oietako Elkarte bat; eta urrengo urtean, Elo-rrio'n bestea. Berau zitekean geroago Euskalerrian ugari asko erai-kiko ziran Elkarte edo Kongregazioen asiera,

Aaztu ezin diteken Kardaberaz'en bigarren ezaugarria onoko au degu: Iñazio donearen Gogojardunen'ganako zaletasun bizi-bizia, alegia. Bera izan zan «Loyola'ko Ejerzizio-Etxea»ren erakille nagusia; eta bertan izan zan 30 urteen buruan, amaikatzotalde eraman eta bakarkako amabiri ere, ber-berak eman edo zuzendu zizkien gogojardunak.

Bañan Kardaberaz'en bi alderdi oiek, ez deritzaizkit kondairakorri baten betegarri bakarrik. Badegu zer pentsa ta zer jasorik.

Garai artan, Jansenio zaleek oztu eta kokildu ba-zituzten giza-bitotzak, Kristo'ren Biotza'ganako maitasunak sutu zituan berririo eta suspertu. Gaur ere, Kristo'ren maitasun sutsu baten bearrean gera bada, gure mundu edo gizadi onek beregan dauzkan almen eta indar ikaragarriak zuzendu al-izateko, eta ongarri biur zatzaizkigun, ez galgarri. Batikano'ko II'gn. Batzar Nagusiak aitatu eta Iñazio donearen gogo-jardunen mami eta ardatz degun Kristo-zaletasun au, auxe degu eta ez beste ezer, mundukuak bear bezela aldatu lezazken indar bakarra. Ditekena, gaurregun ain egoki ez datozkigun esakera eta itxuraz jantzita egotia kristau-oitura eta jaieren batzuk; eta jazkera oiek, bear-bearrekoak ez diranez, erantzi bear izatea. Bañan ez ditzagun azala eta mamia naasi; urrun gugandik, esanaiez bete-betea degun Jainkoaren egi sakona, esakera biguñegi eta itxura gezurtiarekin naazpiltzea.

Ez eta ere, ez da igaro oraindik, Loyola'ko Iñazio donearen bitartez eta gogojardunak ongi egiñaz, Elizak artu zuan zeruko laguntza berezia. Or dituzute gizonak, euren bizitza zuzentzeko, argi-billa; Kristo'k bakarrik eman dezaken pakearen egarri dau-de; kristau-ekintza egitazko baten indar eske dira. Eta oietsek izaki ain xuxen, bear bezela egindako gogo-jardunen emaitz joriak. Oraindik ere, Ejerzizioak ditugu Apostoladutzarako eta «Kristo'ren serbitsuan aurea artu nai dutenentzako», indar-iturri bikañena. Orretxegatik poztu naiz geienen bat, gaurko eskariei erantzun naiez, Loyola'ko Gogojardun-etxea eraberritzen ari dirala esan didate-nean, Manresa'ko Ejerzizio-etxea ere oraindik orain berritu duten bezela.

Dakustanez eta uste gabea, Iosu'ren Lagundia bein da berriz aitatu bear onekin, geitxo bezela luzatu dut nere eskutitz au. Iñazio doatsuak, gipuzkoar santuak, gure Lagundiaren eraikille eta Jaungoikoaren serbitsu ta aintza aundienaren gizon onek, iritxi bezaizkigu zeruko onespenik onenak, bere erritar eta seme duan Kardaberaz'tar Agustin aundiaren BERREUN'gn URTEKO IL-OROIPENA ospatu nairik gabiltzan guztioi.

Berriro ere nere onginai bizi-bizia zuri, ene Jaun Agurgarri-orri, agertuaz; eta Kristogan bat-egiñik, artu nere agurrik xamurrena.

*Arrupe'tar Kepa, losu-Lagundiko Buru Nagusia*  
(bere izenpen eta marrazkia)

ERNANI'KO ERRIAK ESKERRIK BEROENAK DAMAZKIO IOSU-LAGUNDIKO BURU NAGUSIARI ESKUTITZ EDER ONEGATIK. ETA OSPATZEN DUGUN EGUN GOGOANGARRI AU BEKIGU GUZTIONTZAT VI'gn. PAULO AITA SANTUAREN IRAKASGAI ARGIAK JARRAITUAZ: KRISTAU-BIZITZAREN INDAR-BERRITZE ASIERA; BAI GURE ERRIAN ETA ELIZ-BARRUTI OSOAN, BAITA AIN MIXIO GARTSUEKIN BEROTUTAKO EUS-KALERRIAN ETA ELIZ GUZTIAN ERE. ALAXE OPA DEGU BIOTZ-BIOTZEZ.

AITA AGUSTIN KARDABERAZ IL ZANEKO  
200'GARREN URTEA  
18-X-1770      18-X-1970  
Jai-Aldia ERNAN'TN

EGITARAUA

URRILLAK 16

Arratsaldeko 7,30 tan, eta Erriko-etxean, Erakusketa au zabalduko da: "Kardaberaz'en lanak eta bere aldia".  
Loiola'ko agiritegian zaitzalle dan Aita Jose Ramón Egillor Jesu Lagundikoak, jakindurizko itzaldia eman-go du.

8,30 tan, "Zintzotasuna" Eliz-antzokian galde-erantzunak zuzenduko ditu, Erroma'ko "Gregoriana" Ikatetxe Nagusiko Teoloji-Irakasle, Jesus'en Lagundiaren Kondaira Elkarteko eta Italia'n Gogo-Jardun Elkartasunaren Lendakari-orde dan Aita Iñazio Iparraguirre.

## URRLAK 18

Goizean: Soñu alaiak joko dituzte Ernani'ko soñulari ta txistulari taldeak, eta Gipuzkoa'ko beste txistulari talde geiagok.

10,30 tan, "Erri-Meza" nagusia. Ernani'ko seme apaizak Elkar-Meza emango dute, Gotzai Jauna, Argaia, buru dutela.

Meza barruan Jesus'en Lagundiko Aita Nagusi dan Arrupe txit agurgarriaren eskutitza irakurriko da.

Eguardian, "Elizatxo" auzo berrian Kardaberaz izeneko Katekesi-gela irikiko da.

12'tatik 2'tara: Erri barruko auzoetan euskal soñu eta euskal dantzak. Erriko pelota tokian partidu ikusgarria: Bengoetxea ta Garaiar batetik eta Goikoetxea ta Salbide bestetik.

Ondoren Lazkao-txiki eta Gorrotxategi bersolari ezagunen bertso-saioa.

Gipuzkoa'ko zenbait dantzari taldeen euskal-dantzak.

Arratsaldean 5'etatik aurrera Erriko-enparantza nagusian Euskal-erromeri bikaña, soñu eta dantzari talde euskaldunak alaigarri diralarik.

*Luzaro baño len batzar iriki bat egingo degu: Orduan aztertu ta ikusiko degu zer eratu diteken Aita Agustin Kardaberaz' en oroigarri bizia izan dedin bere jaioterrian.*

*Kristo Erregearen bederatzi urrena eta gero Garizuma al dan egokiena ospatuko dira.*

*Egun auetan edozeñek ikusteko eran egongo dira Aita Kardaberaz'en erlikiak, 1908'an Ernani'ra ekarriak.*

ERNANI'KO MEZATAN ABESTU ZIRAN  
LAU BERTSO BERRI AUEK

I

Milla zazpireun da irugarren  
Abendua'k o(ge)itazortzi,  
Hernani'n Jaio ta eliz ontan  
Bataioz zuten igortzi.  
Berreun urteida, erbestian,  
(Gaur Urrilla'k emezortzi)  
Kardaberaz'tar Agustin Aita'k  
Mundu au zubela utzi...  
Kardaberaz'tar Agustin Aita'k  
Mundu au zubela utzi.

III

Bere lanikan gogozkoena:  
Kristo adieraztia,  
Gipuzkoa'ko erri geienak  
dadukate ikasia.  
Ernani'n bertan, mixiolaritzan  
ongi zuten ikusia,  
Kristau-bizitzan sendotu nairik  
Euskal-erriko jendia...  
Kristau-bizitzan sendotu nairik  
Euskal-erriko jendia.

II

Irurogei ta sei urte oitan  
Jainkoa serbitu nairik,  
erabaki zun apaiz eitia  
Jesuitetan sarturik.  
Meza emanaz bere biotza  
Goi-maitasunez suturik  
lagun urkoen negar-malkoak  
txukatu zitun poz-pozik...  
lagun urkoen negar-malkoak  
txukatu zitun poz-pozik.

IV

Euskaldun-jator idazle bezin  
Eusko-izlari egokia,  
bazekin ongi zer tzan itzekin  
biotzeraño sartzia.  
Ainbeste euskaldun kristau-berritu  
ta ez da arritzeko idaztia:  
"Jainkoak nai du gure Euskerak  
burua goi-jasotzia..."  
"Jainkoak nai du gure Euskerak  
burua goi-jasotzia."

# LOIOLA-KO BASILIKAN

## AITA KARDABERAZ-I OMENALDIA

Euskalerrian Jesus-en **Biotzaren**  
apostolu izan zana  
eta Loiola-ko Gogo-jardun  
Etxea jaso zuana

## BERE ERIOTZEKO

## BERREUNGARREN URTEAN

Garagarrilla 20 Igandea

12-tan. — ALKARREKIKO ERRI-MEZA NAGUSIA, Don Jazinto Argaya, Donosti-ko Gotzai jaun agurgarria ta Don Jose Maria Zirarda, **Bilbo**-ko A. A. jaun agurgarria buru dirala.

## 1-tan. — ITZALDI BATZARRA BASILIKAN

J. L. Aita Joan Goikoetxea Maiza, Euskaltzaindikoak.  
"Kardaberaz, euskal gizon ta euskal apostolu" (euskeraz).

Jose Iñazio Telletxea, Salamanka Unibersidadeko irakasle  
eta R. S. V. Amigos del Pais-koa.

"Kardaberaz, Larramendi ta Mendiburu" (erderaz).

Manuel Lekuona, Euskaltzaiñak.

"Euskeraren berri onak irakurtzen" (euskeraz).

## 6-tan. — EUSKAL JAIA LOIOLA-KO ZABALDIAN

Agirre Lazkano ta Lizaso bertsolarien lenengo saioa.

"Erketz" euskal dantzari taldearen lenengo saioa: Oñati-ko dantzak - Eaurteko dantza - Durango errialdeko dantzak.

Bertsolarien bigarren saioa.

Dantzarien bigarren saioa: **Be**-Nafarroako iñauteri: **Bolant**-Yantza - Sorgiñak - Euskaldunak - Muxikoak - Egi ostale-rrak - Mayana - Lapurtar-motza - Kuadrille.

1703 -1770

## KARDABERAZ AITA

1770-garren urteko Urria-ren 18-an, Bolonia-ko Castel di S. Geovanni-n il zitzaigun.

67 urte zituan, bi illabete ta amar egun gutxiago.

Gutun bat ipiñi zioten, eortzi zuten, zerraldoko oin-aldean, eta auetxek ziran gutun ortako azkenitzak: «OBIIT CUM FAMA SANCTITATIS»: santu-izenean il zan,

•

Euskal-erriak ezin zezakean Kardaberaz aaztu, ta bere etxe-koak gutxiago. Eta bere illobaetako bat izango zan, (Jose Kardaberaz), 1794-garren urtean, bere osabaren gorpuzkiak jaso, ta bere-tzako egindako illobi-berri batean sartu-eraziko zituana.

Illobi-berri au S. Geovanni-ko eliza bertan egin-eraziko zuan, eta Xabier-ko Franzizko Santuaren aldare ondo-ondoan ain-zuzen, ere.

Ez zegoan ba, toki obeagoa, aukeratzerik...!

•

Aundikiro ospatu zuten Ernani-n, 1903-garren urtean, Kardaberaz jaio-zaneko berreungarren urtea. Ta txalogarria izan zan benetan, jaialdi artan, ernaniarrak artu zuten erabalda: Euskal-erri-ra ekarri bear ziran Kardaberaz-en gorpuzkiak.

**M**

Zesareo Ibero Aita zan, orduan, Loiola-ko erretorea, ta onen-gana jo zuten ernaniarrak, beren erabaki ura aurrera eramateko, laguntza eske.

Ez zuten, ortarako bear zuten baimena, egun batean iritxi. Bost urte-luze bear izan zituzten ortarako. Eta 1908-garren urte-asieran egin ziran baimen orren jabe.

•

Auzi bat sortu zitzaien orduan. Nun gorde bear ziran Kardaberaz-en gorpuzkiak...? Ernani-n edo Loiola-n...? Ernani izan ba-zan, ere, Kardaberaz-en jaioterria, Loiola izan zan «Kardaberaz Aitaren» etxea.

Eta ernaniarrak, gizonki jokatuaz, Loiola-n gorde bear zirala, erabaki zuten. Loiola bait-zan, orduan, Euskal-erri-ko santutegirik ospatsuena ta ederrena: Kardaberaz-ek merezi zuan bezelako santutegia.

Eskuiko besoa gordeko zuten Ernani-n.

•

1908-garren urteko Maiatza-ren 2-an iritxi ziran, Irun-era, Kardaberaz-en gorpuzkiak. Jende-talde aundia zegoan zai: agintariak, eta agintari ez ziranak, eresbatzak eta abar.

Treanean eraman zituzten, Irun-dik Zumarraga-raño, Kardaberaz-en gorpuzkiak, eta zalpurdi apaindu batean Zumarraga-tik Loiola-raño.

Apainduak arkitzen ziran Azkoiti-ko kaleak.

Gorpuzkien zai zegoan, Kardaberaz bera bizi izan zan etxe aurrean, erri osoa.

Erresponso eder bat kantatu zuten bertako abeslariak, eta otoitz bat errezatu bertako apaizak.

Baiñan arrerarik ederrena Loiola bertan izan zuten Kardaberaz-en gorpuzkiak. Jendez bete-beterik agertzen ziran bertako eliza, ta eliz-aurreko zelaia. Antxen zeuden Loiola-etxeko jesuíta guz-

tiak, antxen Gipuzkoa-ko aldunak, eta antxen Ernani-ko agintariak ere...!

Migel Aizpuru Aitak egin zuan itzaldia.

Eta Loiola-ko etxe-santuan gelditu ziran, betirako, Kardabera-zen gorpuzkiak.

141 urte igaro ziran, ba, Loiola utzi-bearra izan zuanetik...!

## ETA NOR IZAN GENDUAN, BA, KARDABERAZ AU...?

Ona-emen bere bizitzako zenbait berri.

Jaio, Ernani-n jaio zitzaigun Agustin Kardaberaz, (Cardave-rayz bataioko agiriak dionez), 1703-garren urteko Abendua-ren 28-an.

Ernaniarra, ta bertako Udal-eíxe-ko idazkaría., izan zuan bere aita Sebastian, eta donostiarra bere ama Manuela Elgorriaga,

Amaikaren-bat urte izango zituan Agustin-ek, bere aita Donosti-ko idazkari ta artxibero egin zutenean. Eta arutz joan zan Agustin, ere, bere gurasoekin.

Jesus-en Lagundikoen ikastetxe, batean jarraitu zituan bere ikasketak. Eta 16 urte bete zituanean, «lege-gizon» izan zedin, Valladolid-era bialdu zuan bere aitak.

Ez zan, ordea, ura, Agustin-en bidea. Ta 1721-garren urteko Abuztua-ren 20-ean, 17 urte zitualarik artean, Jesus-en Lagundian sartu zan Valladolid bertan.

Villagarcia de los Campos-era bialduko zuten, nobiziadua egi-tera, ta, antxen gertatu zitzaion ustegabeko bat.

Bere aideetako batzuek ez zuten ondo-artu, alegia, Agustin-en erabaki au. Gazte-aroko txorakerien-bat ote, zuan, bildur ziran, eta andik atera-erazi ta Valladolid-era ekarri zuten berriro,

Ba-ziran orduan, Valladolid-en ere, onelako auziak erabakitzen zituzten eliz-gizon batzuek, eta auen eskuetan utzi zuten Agustin.

Laister erabaki zuten auek, ordea, Agustin-en erabakia ez zala gazte-aroko arinkeri bat, eta ViUagarcia de los Campos-era biali zuten berriro.

1723-garren urteko Abuztua-ren 21-ean egin zituan Agustin-ek bere botoak.

Iruña-n egin zituan bere filosofiako ikasketak, eta Valladolid-en teologiakoak.

Eta 1729-garren urteko Abendua-ren 26-ean egin zan apaiz, Valladolid bertan. 26 urte, bi egun gutxiago, zituan, orduan, Agustin-ek.

Valladolid bertan egin zituan bere leenengo apaiz-lanak, baiñan ez luzaroan. Bilbao-ra biali zuten, laister, San Andres ikastetxeko irakasle, ta ordutxetik degu Agustin Euskal-erri-ko mixiolari ere.

1734-garren urtean, Iruña-n arkitzen degu berriro, baiñan filosofiako irakasle bezela, oraingo ontan. Azkoiti-ra etorri zitzaigun andik, eta Azkoiti-tik Oñati-ra joan.

1736-garren urte-ezkeroztik Loiola izango zuan bere etxea, alik-eta Carlos III-garrenak, beste Jesus-en Lagundikoekin batera, erbesteratuko ez zuan arteraño.

1767-garren urtean izan zan erbesteratze au.

Ordurako, Euskal-erri osoko erri-geientxuenetan, mixioak emana zan Agustin. Eta ez nola-nai gaiñera...! Elizak txikiak gertatzen ziralako, enparantzaetan itz-egin bear izaten zuan askotan. Eta onetxek galdu-erazi zion, are geiago, bere osasuna.

Ala guziz ere, ez zan Agustin lo-egoteko gizona. Ta erriz-erri mixioak ematen ibiltzeko, gauza ez zala, ikusi zuanean, «Aita S. Ignacioren ejercicioac» artu zituan bere lan-bide. Ez bait-zituan artean, erriak beintzat, itxian eta taldeka egiten. Eta auxe degu, Agustin-eri zor diogun, beste gauza bat.

Donosti-n bildu ziran, erbesteturik joan bear zuten, Naparroa-ko ta Gipuzkoa-ko Jesus-en Lagundikoak.

Legorrez egin zuten, Ferrol-arteraño-ko, bidea. Ta itxasoz andik Italia-arteraño-koa.

Civitavecchia-ko kaira iritxi ziranean, ez zitzairen, legorrera jeisteko, baimenik eman. Corcega-ko ugartera eraman zituzten andik. Eta Genova-ra, amalau illabete geroago.

Ala ere, ez zan Agustin, besteekin-batera, Genova-n gelditu. Gaixorik zegoala-ta, Bolonia-ko Gastel di S. Geovanni-ra eraman zuten Agustin. An bait-zeuden beste gaixoak ere.

Eta antxen il zitzaigun, santu izenean, 1770-garren urteko Urria-ren 28-an. OBIIT CUM FAMA SANCTITATIS.

Iru urtekoa izan zan, ba, Agustin-en erbestddia.

Pixatu ta neurtu-ezinezko gauzak, ez dute, gaur-eguneko gizonentzat, balio aundirik. Materialista-uts biurtu bait-gera gaur-eguneko gizonak. Orregatik ez ditugu emen, aipatu ere, Jesus-en Biotzak egin zizkion agerkerak. Ez bait-degu gaur, gauza oietan sinisteko-aiña, federik. Baiñan ezin ukatuko ditugu. Asko izan zitu-tuan-eta.

## KARDABERAZ EUSKAL-IDAZLE JATORRA

Ba-du, ordea, Kardaberaz-ek, auetzaz gaiñera, beste merezi-mendu aundi bat, ere, guretzat. Santuaz gaiñera, euskal-idazle jator bat izan genduan Kardaberaz. Eta or daude, lekuko, berak idatzi, ta argitaraturik dauden zenbait idazki. Eta ona-emen oieta-ko geintxuenak, beintzat:

«Cristauaren bizitza.»

1744-garren urtean, Iruña-n argitaratua.

«Aita S. Ignacio Loyolacoaren ejercicioac»

1756-garren urtean, Iruña-n argitaratua.

Jesus Maria ta Joserren devocioa, edo iru persona oien eguiazco amorioa.»

1758-garren urtean, Iruña-n argitaratua,

«Christauaren doctrina.»

1760-garren urtean, Donosti-n argitaratua.

«Aita S. Ignacioren ejercicioac. Beren consideracioac.»  
 1761-garren urtean, Iruña-n argitaratua,

«Aita S. Ignacioren ejercicioen gañean afectuac, beiren ejemplo ta dotriña-quin.»  
 1761-garren urtean, Iruña-n argitaratua,  
 Eta liburu onen geigarri bezela:  
 «Ejercicioen bigarren partea.»  
 «Ejercicioen irugarren partea.»  
 «Asteaco meditacio laburrak, edo ejercicioen laugarren partea.»

«Eusqueraren berri onac, eta ondo escribitzeco, ondo iracurtzeco ta ondo itzeguiteco erreglac.»  
 1761-garren urtean, Iruña-n argitaratua.

«Ondo iltzen icasteco eta ondo iltzen laguntzeco ejercicioac.»  
 1762-garren urtean, Iruña-n argitaratua.

«Justuen ixpillu argia. Santuen erretrato bizia.»  
 1764-garren urtean, Iruña-n argitaratua.

«Senar-emazte santuac.»  
 1766-garren urtean, Iruña-n argitaratua.

«Mezaco Sacrificio ta Comunio sagraduaren ganeko doctrina.»  
 1782-garren urtean, Tolosa-n argitaratua,

«Eshcu liburua.»  
 1826-garren urtean, Tolosa-n argitaratua.

«Amorezco eta dolorezco Jesuchrísto-ren pausuac. Calvarioco estacioac eguiteco ejercicioa. Jesus Maria ta Joseren liburuchoan emanac.»  
 1858-garren urtean, Tolosa-n argitaratua.

«Ama Virgiña doloretacoen bederatzi-urrena.»  
 1881-garren urtean, Tolosa-n argitaratua.

«Ama Veneragarri Josepha Sacramentu guciz Santuaren ceritzanaren bizitza ta vertuteac.»

1882-garren urtean, Tolosa-n argitaratua,  
Azkoiti-ko Josefa Larramendi-ren bizitza degu au.

«Jesus-en Biotz Sagraduari bederatzi-urrena.»

1889-garren urtean, Tolosa-n 'argitaratua.

«Dolorezco Ama Virgiñaren novena.»

1890-garren urtean, Tolosa-n argitaratua.

«Azpeitico erri chitez noblearen gloria edo Aita San Ignacioren bicitza laburra.»

1901-garren urtean, Tolosa-n argitaratua.

Eta Jaungoikoa-k bakarrik daki, zenbait ote diran, argirik ikusi ez duten, aren beste idazkiak.

Elizkoiak dirala aren idazki geienak...?

Bai, noski. Eliz-gizon bait-genduan Kardaberaz, eta eliz-gizon sutsua gaiñera. Ta orregatik zaigu ain-txalogarria bere jokabidea. Bakoitzak, gure saillean, beste ainbeste egin ba-gendu, beste ollar batek joko liguke gaur...!

Nik ez dakit, zer esango diguten, Kardaberaz-en euskarari buruz, gaurko euskera-aztertzaileak. Izan ere, eta azterketa bat egi-terakoan, ez bait-ditugu, «noiz» eta «zeinentzat» idatziak izan ziran, kontuan artzen gaur. Eta XVIII-garren gizaldian idatzitako bat, XX-garren gizaldian idatzia bezela, aztertu nai izaten degu. Ta ori ez da, iñotara, zuzena.

Ala ere, ta euskal-joskerari begiratzen ba-diogu (eta ontan-txen dago batizbat euskeraren jatortasuna), Kardaberaz-en euskera, euskerarik ederrenetako bat degula, ezin ukatu al-izango degu. Ez zuan bestela, erri artean, izan zuan bezelako arrera onik izango. Askotan argitaratuak izan bait-ziran bere idazki geienak.

Eta ba-ote zan, orduan, Kardaberaz-en libururik ez zuan eus-kaldunik...?

Eta zenbaitek ez ote zuten, liburu oietan, irakurtzen, ere, ikasi...?

Zer geiago eskatu dezaiokegu idazle bateri...!

Orixe izan genduan, bada, Kardaberaz:

SANTU BAT  
MIXIOLARI SUTSU BAT  
EUSKAL-IDAZLE JATOR BAT.

Orregatik artu degu guretzat elburu, Kardaberaz-ek, bein-beti-  
rako, idatzirik utzi zigun au: EUSQUERAC B U R U A JASOTZEA,  
JAUNGOICOAC NAI DU...!

*Albisu Anastasio-k.*

## KARDABERAZ, EUSKAL GIZONA ETA EUSKAL APOSTOLU

Itxurak itxura, Austria ta Borbon errege-etxeen trukeak ez-baiñan idea ta espíritu-aldaketak ematen digute emezortzigarren gizaldiaren antz eta irudia argi eta garbi.

Ordurarteko filosofi-teoloji ezta-bidak erdeiñatuz, *jardun-jakintza* edo «ciencias de aplicación» generizkienetara jarri zan Europa buru-belarri. Teknika-bide ortatik, indusri-aunditze, sal-erosketa, diru-korritu ta abarrez gaurko «sociedad de consumo»ra gindoazen ez-arian edo purrustean, bearbada.

Emengo semerik argienak, Frantzian buruz jantziak eta Islak «Caballeritos de Azcoitia» bataiatuak, bertan-bera girotu zuten Euskalerrri osoa, ta gure muga-probintzi txikia batik bat, beren Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-en bitartez. Menendez Pelayo-ren «el siglo menos español» au «Munibeen aldia» da, euskal begiratuz, Arana azkoitiar euskalari ospetsuarentzat (1).

Zalduntxoen «euskal milagro» onen aurretixe, Larramendi ta Kardaberaz puntako, beste mugida bat abiatua zan Loyola ontatik: izkuntza ta erlijio-mugida, ain zuzen. Frantzi-arnasako ekintza zalduntxoena, gaztel-lurretik aizatua jesuitena, puntu desberdiñetik jo-muga berera begiraten zuten biek: teknikaz, jakituriz, izkuntzaz, literaturaz eta erlijioz Euskalerrria berritu, alegia.

Jakintzaren mixterio-argitzetik eta teknikaren bizitz-atsegin-tzetik, zentzu berri bat artzen ari zan emen-aldia Europan: «*ez geroakiko kezkarik, bertan-goxo egin baizik*», Enziklopediak bildu ta aizatuko zitun idea berriok. Mornet-i sinisterra, «La finalidad de la Enciclopedia proclama muy alto que el destino de la humanidad no es volverse hacia el cielo, sino de progresar en esta tierra y para esta tierra, gracias a la inteligencia y a la razón. A un ideal místico opone un ideal práctico» (2).

Urkijok Menendez Pelayo-ren buruz buru erakutsi bezela, zaldun txoak salbó: ba zetorren arrisku orí Euskalerrria ere, emen izango bai-genduan agian gizonkal (edo jendearen proportzioan) mundu guzian Enziklopedia geiena irakurriko zuan erria, Bergara (3). Materia utsaren, erlijio gabeko, humanismua zan: otza ta motza. Eskuz esku, jansenismuak-eta zegiten gaiñerakoa, gizonari Jainkoaren maite-beroa ukatu ta geroaren bildur-ikara sartuz.

Emen Kardaberaz.

Materiaz gaindi, Jainkoa kanta zion ark gizonari elburu ta neurri; Jainkoari berriz bere Biotza eskatzen zion gizonarentzat. Españiko edozein alderditan baiño leen izango du Euskalerrriak Biotz orren berri; Jesusen Biotzaren leenengo ezagutzaille ta apostolu izan bai-zan Kardaberaz. Debozio onekin, iñor gutxik, agian iñork sekula ez-bezelako iraulia eman zion Euskalerrriko kristautasunari.

Amazazpi-emezortzigarren gizaldietan ipintzen du Mañarikua istorigilleak berak dion «edad de oro de la religiosidad de nuestro pueblo» (4). Kardaberaz dugu erlijio-jaikiera orren erpin eta gaillur. Goiko deiaren serbitzuan, arrigarrizko santutasunaren kemenez, euskal gizonak pakeatzeko eta espiritu ta izkuntza-maillatan Euskalerrria jasotzeko egin-lanagatik: bere gizaldi bikaiñeko eta, agian, gure kondaira guztiko giz-aundien lerroan punterengo toki bat dagokio Kardaberazi.

\* \* \*

Agustin Kardaberaz Elgorriaga: milla zazpireun eta iruan (1703) Hernanin jaio, ta Donostian, Iruñan eta Valladolid-ko uni-

bersidadean igaro zuan bere gazte aldia, Gramatika, Filosofia ta abogadutza banan banaka ikasten. Emezortzigarren urtean Villagarcía de Campos-en jesuíta sartu ta, Palenzian eta Valladolid-en apaiztarakoak bukatuta, Euskalerrira itzuli zan mixiolari, gogojardun-zuzendari ta euskal idazle; Carlos ÍIgarrenak erbesterratu ta, iurogei ta zazpi urtekin, Italia-ko Castel San Giovanni-n orain bereun urte illik (1770).

Muga-bitarte oietan baiña aren espiritua datza, zabal, sakon, aundi. Ondo erori zitzaion bataioko ura Agustiñi. Mantxa gabe eramango du grazizko jantzia goiko erreinura. Jaunartu edo Jesus aldareetan adoratzeko egon eziña utzi zion leenengo jaunartzeak. Garbitasun zinitza (castidadeko botoa) 'amairu urtekin egin eta, andik laster, San Telmoko elizan otoitzean ari zala, erlijioso sartzeko eskatu zion Andre Mariak itzez.

Ez uste, ordea, utsean edo duan jasotako graziak zituanik. Ordain aundiak eman zituan trukean. Jaunaren doaiak otoitzez eta penitentziz zaitzen zirala irakurrita, zilizio zorrotza erantsi zion bere narru-azal samurrari, ta sei illabetez erabili, arreba konturatuta orduan ixil-bearrez utzirik. Sarri egiten du barau, amaren jakinñean. Etxe-barruan, familikoak noiz bere ondotik pixka bat al-denduko zai dabil, bizkarrari dizipriña-zartako galantak erantsiz bakar-uneak betetzeko. Muttiko gazte, lau-bost gau lurrean egiten du lo, arrillua buruko, pentsamentu lizun batek lan eman diola-ta. Ta oiek baiño areago, ikasi egiten du, liburuei gogotik eman, ix-turiante danez.

Nobizio sartuta, gure «Eutsi Goiarí! » egin zuan bere slogan edo gudairrintzi. Ortik, biotz eta anima berri eskatzen zizkion Jainkoari aspertzeke. Animaren on-bidea otoitza izanik, gogor ekin eta ater gabe iraun zuan eriotz-uneraiño. Loyolako pake ta isil-miñak zitun, mixiotan, Jaunarekin itz-aspertuetarako. Etxe aldian, lanari lotuta ez bazegon, jakiña Sakramentu-aurrean zegola. Or be-launbiko errezatzen zuan egunoroko Brebiarioa.

Egitekorik ez zuan artuko goikoen baimenik gabe: Jaunaren borondateakin nai zuan asmatu, obeditzetik.

Garbi-naia du, ene ustez, Kardaberazek espiritu-arpegiko le-  
rro edo arrastorik garbienetako bat. San Luis aingeru-mutillaren  
zale ta gale, San Luis bigarren eta aingeru dakuste bera ere bizi  
guztiko bere lagunek. Bilbon iru urtez bizi-lagun izanda, sekula ez  
ziola utsegite bat arrapatu, dio lagun batek. Kardaberaz apaiza  
egunoro aitortzen da ordea, mezatarako. Zer aitortzen? Or lanak  
konfesoreak, asolbizioa zeri botako. Ul-urren bizi guztiko aitortza  
egiñik, «sub condicione» edo «pekaturik bai otean» barkapena  
eman zitzaion Euskalerra geienaren pekatuak entzunda zegoen mi-  
xiolariari. Egiatzko pekataritzat zedukan bere burua, noski.

Langille purrukatua beti Kardaberaz; ikasle saiatua; oso ar-  
gia buruz, ori ere bai; irakurle aspergaitza; Hburu-gosea; euskal  
idazle bizkorra, azkeneko urteetan beñepein.

Oar bat bein ere ez da palta Kardaberaz-az bere lagunak ari  
zaizkigunean: lagunarterako atsegiña, parretia, otxana, ikusten du-  
te danak. Ainbeste urtez jende artean erriz erri ibilita ere, goi-  
koekin edo beekoekin iñorekin asarrerik izan ote zuan, ez dago  
aztarrenik.

Zintzotasun orren sari, mistikara jaso zuan Jainkoak nobizio-  
tatik bertatik. Mistikurik aundienen eksperimentzia ezagunak atera-  
tzen ditu Kardaberaz-ek, gogo-zuzendariei barrua ustuz. Ala ageri  
da gure mixiolari izatekoa Jainkoak Beragana erakarri ta pake  
gozo bat anima-barruan edatzen diola, zentzuak lotu ta jardunik  
gabe geraturik, ekstasi betean. Ordia bezela du iñoz anima, Jain-  
koak zoratuta. Animaren poz-saltoak nabaitzen ditu batzutan, Jau-  
na urrez urre edo aurrez aurre duala; tximist-argitu biziak espi-  
ruan, Jainko-ezaguerata maitasun esan-eziñekoak darizkiotenak.  
Alakotan, azkon edo fletxa biziz josten eta zauritzen dio Kristok  
anima. Musu, laztan, besarkada, begiratu gozo: maite-siñale guz-  
tiak damazkio bere Jaunak, maitasunez korde gabe utziaz. Jain-  
koagandiko begiratu, ikutu ta itzegite, sarri oi ditu.

Umillagotu egin zuten doai bikain auek Agustin, arrotu ez  
baizik. Aragizko tentaketekin iñoizko edo berrizko burrukak di-  
tularik, sekula ez arrokeriak.

«Nunca tuvo que combatir con el vicio de la soberbia y vanagloria, que a tantos arruina» (5).

Ez ziran kanpora azaltzen aren doai mistikuak. Ezkutuan gorde zezazkiola eskatu baí-zíon, ala eman ere Jainkoak. Esker on izan zion orregatik Berari. Ez zan Kardaberaz bere buruakin teatro ta komeri egin-zalea. Nobiziotatik igarri zioten ala bere lagunak.

«...era un nobizio sin hazañerías ni follaje de apariencias» (6). Antzeko aitorpenak, lagunengandikoak edo Kardaberaz bera-renak, ez dira gutxi onen bizitzan. Ezagupide gogoangarriak, noski, gure gizakera ta sikoloji aztertzaileentzat,

Mesede auek, baiña, goragoko ta bikaiñago bat oi dute askotan beren osagarri: Kristo ta animaren «elkartasun oso bete» edo espiritu-ezkontza, alegia, Santa Teresak-eta «matrimonio espiritual» deitua. Gradu ortara ezkerro, oiko gauza da Kristo ta mistikuaren anima urrenez urren etengabeko edo oso aldi luzeko jardunetan elkarrekin egotea. Ala gertatu zitzaion Kardaberazi ere (7).

Palentzian, ogei ta bat urtekin filosofia ikasten ari zala, eman zion Jaunak espiritu-erregalietan bikaiñen ori. Baiño denbora-premiz aukera egitea beartua nagonez geroz, Valladoliden apaiz ordenatu aurretixe berriro ziona azalduko dizuet emen Kardaberazen itzekin berekin:

«Día del Dulcísimo Nombre de María... me puse casi  
» al anochecer a tener lección espiritual... De allí a  
» poco, como en, además de quien me llamaba, me  
» hizo su Majestad mirar a sí; y estando deleitándome  
» con su hermosura inefable, vi que con sus divinas  
» y poderosas manos abría su divino pecho y llaga del  
» costado, hasta descubrirse claramente su Divino co-  
» razón...; y habiéndose también abierto aquel Sagra-  
» rio de la Divinidad, el benignísimo amor Jesús me  
» dijo con muestras de inefables caricias, que entrase  
» a descansar en él. «Hijo, entra en este mi corazón y  
» descansarás en él a tu gusto.» Yo estaba suspenso,  
» y su Majestad me metió luego con sus manos en

» aquel... centro de eternas delicias... Entré por aque-  
 » lla puerta de Vida del Amor que dijo: «Ego sum  
 » Ostium.» Y al llegar mi alma a meterse en su Divino  
 » Corazón, fue tan divina, tan fragante y peregrina su  
 » suavidad que la bañó toda, que luego me sumergí y  
 » perdí en el golfo inmenso de la Divinidad... y vi en  
 » aquellas divinas tinieblas e inmersiones de la Divini-  
 » dad... altísimos secretos... Al volver en mí, me dijo  
 » este Señor con tiernísimo amor: «Hijo, esta es la  
 » primera vez que has entrado en mi Divino Corazón.  
 » De aquí adelante tendrás puerta franca para entrar  
 » en él a tu gusto y descansar en mí. Aquí has de tener  
 » tu habitación y morada. Yo soy tu Dios y tu Amado.  
 » Soy y deseo ser todo tuyo y que tú seas todo mío.  
 » Yo te escogí y te quiero tener por mío.» Estas y otras  
 » altísimas cosas incluyó aquel favor, y después acá he  
 » experimentado su cumplimiento. Sea el Señor de la  
 » Majestad glorificado por siempre; que sola mi ingra-  
 » titud puede ser óbice para no morir de amor con la  
 » pluma en la mano, al hacer memoria de estas inven-  
 » ciones divinas de... Jesús. De este género de favores  
 » y regalos de dulcísimas palabras y promesas, de un  
 » modo de mirar divino, de dulces y penetrantes heri-  
 » das y flechas de amor, de castísimos abrazos y otras  
 » mil demostraciones de mi... amor Jesús están llenas  
 » las telas y médulas de mi corazón, y son otros tantos  
 » estímulos de amor para despertar mi entorpecido, in-  
 » fiel, ingrato y tibio corazón.» (8).

Animaren muin muin eta sakonenean gerta oi da espiritu-  
 -ezkontza edo elkartasun oso beti ori. Egoera ortan, edozein nai-  
 gabek animari erasotzen diola ere, anima ta Kristo elkarrekin dau-  
 den egonleku goi artaraño ez da naigabea igotzen; bientzat bakar  
 bakarrik gordea bai-daukate toki ura. Sufritzen du noski animak;  
 baiño beste norbait bai'litza sufritu. Ala dio Kardaberazek berazaz;  
 leenagotik Avilako Teresak eta londone Gurutzekoak berekiko

aitortua zutenez. Eta Iondone Gurutzekoak, berriz: «Pienso que este estado (del matrimonio espiritual) nunca acaece sin que esté el alma en él confirmada en gracia» (9). Ori bera dio bere buruaz Kardaberazek Calatayud gogo-zuzendariari: «Una repentina ilustración del entendimiento, en el cual entendí la seguridad y la certidumbre de la consecución de aquel amor eterno y de gozarle inamissibiliter por toda la eternidad» (10).

Pasadizu au kontuan arturik, jabetuko gerala uste dut zer jainkozko gradu dituan ogei ta amasei urtez gurekin izango dugun Jesusen Biotzaren apostoluak. Orregatik Fonsekak: «Y esto baste para muestra de lo mucho que se pudiera decir» (11).

Begi-zoli eta begi-zorrotz ere zaitu zuten ordenako nagusiek ernaniar gaztearen espiritua, goí-bíde bakan oiek zear gal ez zedin. Loyola ta Calatayud gogo-zuzendariak zalantzarik gabe on-etsi zuten Agustinen espiritua; Egiluz nagusia bakarrik zebillen kezkat:

«Lo que en esta alma he echado de menos es la falta de la cruz, porque todo son consuelos» (12).

Arrazoi du Egiluz-ek. Izan ere, zazpigarren egonleku, espiritu-ezkontzako artan artu-aurretik, gorriak ikusarazten dizkiola animan Jainkoak, dio Teresa deunak (13).

Gurutzerik ez zuala Kardaberazek, onantxe zegoan Egiluz oker.

Aitamak ditugu Agustinen gaztearoko penitentziak; eta jesuita-aldikoak, berak sarri aipatzen baditu ere guk emen ixildurik, mistikara deituei Jainkoak eman oi dien lixuba ta garbitua zedukan oraindik. Nor berak iritxi dezaken anima-garbitua ez bai-da mistikarako aski, areagokoa Jainkoak eman ezik. Egoera ontan, «...desamparo (de Dios) casi hasta la última desesperación» ari da sufritzen Kardaberaz (14). Azkoitian bizi zala agertu zigun bere animako infernua, ezin liteke aretzaz errukitzeke irakurri. Eta erre-doble leen Iruñakoa ta gero Loyolakoa.

Bizi guziko min-iturri izan zuan Agustinek osasunik eza. Estudiantetan, Ernaniara bidaldu zuten Gaztelatik, osasun-berritzeko; Iruñatik gero berriro, filosofia irakasten ari dalarik, «...empecé al otro día de mi santo a tomar los caldos tan celebrados, que en-

tran bien hasta ahora», idazten du Donostitik (15). Baiño leen-pronostiku auen kontra, bere lagun Meagher jesuita idazle gaixotuak ardoakin izan zuan suerterik ez zuan Kardaberazek sagardoakin izan. Meagher sendatuak ez daki Bako-ren mama noraino jaso:

«Gizon bat, ardo bage,  
dago erdi-illa;  
marmar dabilta tripak  
ardoaren billa;  
baña edan ezker  
ardoa txit ongi  
gizonik txatarrenak  
balio ditu bi.» (16).

Orren buruz buru, illeta jotzen du Kardaberazek:

«No tengo en mi cuerpo parte sana ni libre, de terribles  
» dolores. Cada día se me hace más pesada esta vida...  
» apenas pasa día que no anhele la muerte..., aunque a  
» la verdad no temo morir ni vivir.» (17).

Ezur eta azal etorri zitzaigun, jesuita-karrera bukatuta, Gazte latik. Ogei urtez eutsi zion alare, Euskalerrria zear, mixio-lan aki-garriari. Aotik odola botata, zutik egoteko ez zala Loyola ontara erretixa zanean, iñoren ustez il bear zukeanean, mixiotakoa bera baiño lan onuratsuagoa egin zuan askoren ustez, gogo-jardunetako etxea iriki'ta euskerazko liburuak idazten. Sasoi ontan zer giza-modu zegoen ara berak aditzera eman zigun, kalegarbitzaillearen kartoizko zaldia gogoraziz:

«Ortzetan anima, esan oi dana, askotan ikusia nago: beste kulpati! (¿koplari?) agudoak esaten zidana: nere bizia edo osasuna udan kartoiezkua ta neguan paperezkoa dedala nago.» (18).

Au genduan arrizkoa bear zukean mendi-arte auetarako apostolua. Ebanjelioko apostoluen lerroan, «in virtute Dei», Jainko-indarrez edo karismaz ereingo digu Kristo Bera dan Aitaren Itza. Agustin beraren eta bere lagunaren bein-da-berrizko aitorra dugu ori.

Jainko-eksperientzi-dun apostolua arkitzeko zoria izan zuan Euskalerriak, teknika ta eksperientzi-zale biurtzera zijoan denbora beretan. Jainko-eksperientzi-dun gizon baizik ez bai-da mistikua. Lurtar danez fedez badijoa ere, zeruko ixuria jausi zaio, gerokoan txasta du, Jainko-elkartasun berezia. Ez da besteen espiritu-maillan bizi; erri-ibarretik Jainko-mendira artu du Jaunak, espiritu-indarrez erriari kristau legea ezar dezaion. Alaz, Jainko-doiñu berezia dauka mistikuaren abotsak eta bereala igartzen dio kristau-erriaren bellarri zoliak. Ez zan bestela agitu Euskalerriaren fede-berritua XVIIIgarren gizaldian.

Baiña mixiolariaren ondoren gure errietan barna abiatzeko gauden zoriz, oztopo bat jotzen dugu leen-pausoan: «jansenismuak kutsatutako erlijioa omen dugu euskaldunok, eta jesuitek erantsi kutsu ori, ain zuzen.»

Bost urtez erdi-mixiolari; ogei, erriz erri gelditu gabe: Gipuzkoa osoa, Bizkai geiena, Araba ta Naparroako sail aundiak zapaldu zituan Kardaberazek Jesusen Biotzaren berri-emaille. Eun eta berrogei ta amar, eun eta irurogei (150-160) mixio jotzen zaio gutxienaz emango zituala, amama egunekoak batzuk, amabost-ogeinakoak geienak, eta illabete ingurukoak beste batzuk. Auzo-erriak eta inguruko baillarak arrapatzen zitun erri bateko mixioak. «En Munguía, dio berak, concurrió gente de dieciocho lugares y repúblicas pequeñas, y sin quedar alma de ellas.» Olatsu Berriz-en, Bakion eta ainbeste ta ainbeste lekutan. Alde guztietatik eske, ezezkoa eman-bearrak biotza erditzen diola. Loyola-ra baztertuta, gogo-jardunez, aitortzaz, kartaz eta liburuz, ia berriro estaltzen du Euskalerria, mixiotan aña on egiñaz, batzuen iritziz. Bere denborako euskaldun gutxi geldituko zan bi probintzitan, beste bitan orrenbestera gabe, edo aren itza entzun edo liburuak irakurtzeke. Iñork ez bezelako markak urratu ta espiritu-aztarna erantzi zion Euskalerriari. Ankaz eta buruz arrapatzen du, beraz, jansenismu-salaketa orrek Kardaberaz jesuía.

Salaketa orri buruz onela dio Mañarikua Deusto-Unibersidadeko irakasle jakintsuak:

«Los vascos han sido considerados siempre como un pueblo eminentemente religioso. De una religiosidad seria y profunda, que calaba en lo hondo de las costumbres, sin perderse en la hojarasca de las manifestaciones externas, que con frecuencia revisten un carácter casi >diríamos folklórico.

» Incluso se ha llegado a insinuar por algunos autores, y la advertencia se repite con ligera facilidad, que la religiosidad vasca en su seriedad, en su tendencia a considerar los aspectos más duros de la religión, presenta cierto tinte de jansenismo. Quizá el hecho de haber sido vasco el patriarca del jansenismo... el célebre abate de Saint-Cyran, ha contribuido a ello. Sin embargo, podemos afirmar rotundamente, y sin miedo a equivocaciones, que nada tiene de jansenista la devoción vasca. Prueba clara de ello tenemos en la rapidez con que se propagó entre nosotros el típico culto antijansenista, la devoción al Sagrado Corazón de Jesús, que por primera vez en España se predicó en la Iglesia de San Antón, y el lugar preminente que ocupó inmediatamente en la vida religiosa de nuestros mayores.

» Lo que ocurría es que el pueblo vasco comprendía que la religión es asunto serio y la vivía con seriedad, con esa seriedad característica suya que a muchos autores clásicos pareciera taciturnidad. Por ello, para entender la vida pasada del pueblo vasco, no puede prescindirse de su vivir religioso.»

geroxego oraindik:

«En la religiosidad vasca pesan mucho los Novísimos, y ello no es ningún defecto. Pero ellos no absorben todo. Hemos mencionado antes el florecimiento que alcanzó entre nosotros el culto al Sagrado Corazón, que es culto de la confianza y del amor. No sólo se divulgó, sino que penetró en el pueblo fiel.» (19).

Orra Kardaberaz, auzia garbitzeko bi bider testigu otsegiña. Arritzekoa, noski, nola gure Erriaren erraiak jainko-maitez dar-darazi zituan Jesusen Biotzaren apostolua, oker ez banago, aitatu ere ez duten jansenismu-salatariek egin; eta bestera, nola janse-nismu-ukatzailleek Kardaberazek ekarritako maitasun-debozioa ain zuzen artu duten beren ukoaren oiñarri ta proba.

Izan ere, maitasun utsekoa, jansenismu-kontrako marka garbi garbikoa, da euskal kristautasunari Kardaberazek ezarri-aztarna. Berak esango digu noiz eta zergatik zabaltzen duan Jesusen Biotza-ren zaletasuna:

«...en todas las misiones la encargo y predico, para...  
» mover a todos a la mayor reverencia, adoración y  
» amor de... Jesús en su Sacramento de amor, a estar  
» en su presencia real con la mayor veneración y a co-  
» mulgar a menudo... Este es uno de los fines prin-  
» cipales... de mis misiones y del gusto indecible con  
» que las hago.» (20).

Eta eskutitz-karta batean aginduko du, predikatzean ez gel-ditzeko Biotz-berean, maitasunera jotzeko baizik: sinbolo edo adie-razgarria baizik ez dala biotza, maitasun bera dala gauzaren muiña.

Alperrik da maitasuna otsegin, bide egiten ez bazaio. Jainkoa kentzen bai-dio, bearrezko da pekatua zer danez gizona eskolatu. Onburu ortara begira egiten zituan Kardaberazek bere sermogin-tzako aukerak. Su-festa asko zegon aren aldian sermoietan. Sakra-mentuak artzean sakrilejioak egin litezkeanez, bai predikatzean ere, dio berak, egin litezke Jainkoaren itzaren kontrako sakrilejioak. «Gerundianismua» zeritzakean su-festa orrengatik, panejiriko itza ez zuan entzun ere nai.

Aita Iturri lagunari sinistera, «sus sermones eran dignos de un apóstol: la materia de ellos, la más importante para desarraigar vicios, llorar pecados, reformar vidas y costumbres.» (21).

Erlijioeko egiak argitu ta kontzientziko eginbearrak erakutsi, zan aren makur eta joera. «Para sermones doctrinales y morales y hacer un discurso práctico para la enseñanza no hallo dificultad,

con lo que he apuntado y sola la Sagrada Escritura...» Ta bere entzuleetzaz dio: «los más gustan de esto doctrinal.» (22). Erabili duan «práctico» itz ortan dago Kardaberaz goien-barren. Bere idazkera ta liburuak ere ez ditugu jo-muga ortara begira ez dala konprendituko.

Sakon ezagutzen zuan erria Kardaberazek; ba dakizki aren gusto ta neurriak. Euskal sikolojiaz zedukan iritziaz jabetzeko, gogo-emaiozun Fonseka-ren aitoren oni:

«De ordinario todo lo llevaba por el camino del amor  
» y mansedumbre; así porque éste era el afecto que  
» dominaba en su pecho, como porque en la nobleza  
» del genio vizcaino (vasco) hacía también más impresión y fruto más duradero.» (23).

Ez da ori besteen esan utsa, baiñan. Euskaldunekiko beren jardunetan jokabide ortatik ibiltzeko, gomendiatzen die, berak ere apaiz jaun eta maisuei (24).

¿Eta eriotza, betikotasuna, infernua: giza-bizitzako ataka estu oiek? Ez ditugu, noski, Kardaberaz diardugula ixiltzekoak: ortxe egotzi bai-diote euskal predikuari jansenismo-jokaeraz gizona larritu dualazko salaketa.

«Estos afectos de ternura no le impedían usar oportunamente y en toda su grandeza los del terror y espanto.  
» Las verdades eternas tenían en sus labios la siniestra  
» luz del relámpago y la terrible majestad del trueno.» (25).

Gure mixiolariaren bildur-sartze ta ille-lazteak ez ziran, baiña, deadarka, aserrez eta pulpitu-kolpatzez eragiñak; arrazoí-bídez eta gizonari sakon pentsaraziz baizik.

«Sí reprendía el vicio, era con peso y gravedad de razones, afeándolo por su desorden y escándalo; por los estragos que hace en el alma y en las familias, y por la ofensa que se hace a la Majestad de Dios, a quien se desprecia y «a quien vuelve las espaldas el pecador.» Esta expresión le salía de lo íntimo del corazón...» (26).

Gure erri-kultura ez dala gogo-ausnarketa maillara iritxi-ta, ari izan zaizkigu or. Ori orrela ez dalakoan jokatu zitzaigun Karda-beraz beñepein bere denboran. Sekulako bide-gurutzeetara kristaua artu ta or nun pentsarazten dion, burubidezko aukera eman, ez ume-modura izutu. Bera beratara biurr-arazten du bere pausoen jabe. Graziak bearko dio barrua bigundu, baiña or gure mixiolaria esku fiñez euskal sikoloji-ariak mobitzen. «Jainkoari bizkarr-emate ori» gogotik otsegiñaz, «gizalegea» itz sakratu biurtu duan erriari ari zaiola ba daki berak.

Baiña Loyolako santuaren itzala ikusten zaio gaiñetik mixio-lari aundiari. Gogo-jardunak eginda dagonak aise lotuko ditu emen Inazio ta Agustin biak batera. Sikolojiaz gaindi, maitasunera jotzen dute biek infernuko gogartean ere. Maitasuna beti aurrengo; se-gurantzizko eta baldintzazko azken-soka, bildurra: «maitasunak utsegin balezait...» (27).

Kardaberazekin ari gerala, infernuko sermoietan ere bere ar-pegí ederra nondik andik maitasunak erakutsiko zigula, jakiña nos-ki. Ona Fonsecak idatzi:

«No era posible escucharle sin asombro y sin moverse  
» el corazón a dolor y penitencia, porque lo hacía con  
» un afecto de compasión tan vivo, con un deseo tan  
» encendido de que nadie bajase a aquel lugar de tor-  
» mentos, que le leían todos el corazón y conocían cla-  
» ramente que los amaba a ellos como a sí mismo, y  
» que tenía tan en el alma la salvación de todos y cada  
» uno de sus oyentes, como la suya propia.» (28).

Sentimentu ta biotzondo aundiko itzlaria zan Kardaberaz. Pre-dikatzean, sarri negarrez bera; ta, biotzetik eginda, negarrez erria ere, Jainkoari «mixerikordia! » oiuka. Askotan eten bear izan zuan sermoia orregatik. Ezur eta azal, topo ta inpresioa aundia egiten zuan pulpilotik bere jainkozko itxurakin. Tenor-abots aitua zuan, bizia ta sarkorra, zerraizkion gizatalde aundiak erabiltzeko au-kerakoa.

Luzea zan sermoietan: bi otdu ta are, askotan. Ez zituan baiñan entzuleak aspertzen: «era tal la cultura de sus palabras, su facilidad en explicarse y el modo tan grato, que suspendía a los oyentes y los llevaba tras sí.» (29). Bilboko Santio-elizan itzeginda: «me dijeron que decían fuera, que estuvieran oyéndome hasta el día del juicio.»

Erreztasuna gora bera, ez zion bere buruari lanik barkatu: arretaz prestatzen zituan bere itzaldiak. Latzagoak izan ziran pres-tamenak asieratan, euskeraren aldetik beñepein. Euskal errenta kendu kanpoaldiak berari ere, noski. Ustuta utzi ez zuanari eskerrak, askori gerta bezela. Ainbestetxoak ikusi ditugu izan ere amakin jarduteko ez dirala ama-lurrera itzultzen, «unibersalismoa» dalako arrazoi polittez...

Bizkaieraz, Lekeition eta Elorrión, estriñatu zan euskal mixio-lari. Orregatik ere bildur piska bat geiago zuan asteko, antza. Erriari eman dion erlijio-zirraraz arrituta, onela idazten du Bilbotik Valladolid-era:

«...la gloria a nuestro Amor Jesús, que no quiso me  
» olvidase yo del vascuence: éstas han sido las primeras  
» funciones y la primera vez que he predicado; y si  
» bien, cuando seglar, fui sin disputa de los que mejor  
» sabrían el vascuence, porque no sabía otra cosa, pero  
»jamás oí Misión, ni hice estudio de hablar, en la Com-  
»pañía. Y por eso, aunque todos estaban asombrados  
» de ver la facilidad y expedición, cual dicen los mismos  
» que lo saben, no han visto en otro, yo me admiraba  
» de mí mismo, y lo tengo por favor especial del Señor,  
» que sabe bien la grande necesidad que hay en todo  
» este país y los pocos, poquísimos, que pueden y se  
» aplican.» (30).

Aitortzak osatzen zuten sermoietako lana: erein zan au, bildu ura. Fonsecak diona, bestela: «Si en el pulpito hería las concien-cias..., en el confesonario las sanaba...» (31).

Aitorlekuan agertzen zaigu Kardaberaz beraren beteko eta pulpitoan baiño ere aundiago. Onela berak Aita Loyola-ri Lekeitio-

ko mixiotik: «En el confesonario, más que ningún otro, eso siempre lo he tenido.» (32).

Bizi guztiko aitortzak izaten ziran ia danak mixiotan. Mungiatik: «Pasaron de 5.000 las comuniones, y las más de las confesiones, generales.» (33). Eta Erandiotik: «Luego entrarán las confesiones y no hay tiempo para respirar.»

Jardun ain gaitzari nola eutsi al izan zion galdera datorrkieke mingain puntara edozeñi. Ona Kardaberazen erantzuna: aitor-lana «no me sirve de mucha fatiga.» (34). Jardun latz orren berri dakianak ezin, ordea, siñistu. Jainkoaren doai berezi edo karismaren kontu egiñaz, Mungiako mixiotik egiten gaitu egiazen jabe: «Me hallé, gracias -al Corazón de nuestro Amor Jesús, tan sereno después de. todas (eguneroko platikak eta amabost sermoi), y del remo continuo del confesonario por quince días todas las mañanas y algunas tardes, después de predicar, hasta muy tarde.» (35).

Gauza bat zan jakíña: iñor Kardaberazekin aitortu ezkeru, arekin nai izango zuala gero ere beti aitortu. Mixiotan ezagutu duten jendeek, Loyolara erretiratuta gero ere ez diote pakerik emango, urrutitik etorriaz. Etorri ezin dutenak kartaz emango diote lan. «Son tantas las cartas, que no me dan lugar casi para nada.» (36). Mixio askotan, lanak akituta erretore-etxera gaueko atsedenera dijoala, jendeak dauzka kale-ertzetan edo etxe-kantoi-etan zai, urrenge egunean edo beste al duanean aitortzeko txanda eske.

Zer zedukan eliz-gizon onek ainbeste kostatzen dan «pardela saltzera» gizonak arrapalan erakartzeko? Mistikuen doai berezi bat dabil emen. Adimena bitartzeko, aldi berean bi eginkizunetan jarduteko, grazi arrigarria eman izan die iñoiz Jainkoak bere adiskide aundi oietako batzuei. Sarritan izan zuan Kardaberazek ori: aitorlekuan pekatariakin aritu, ta, bide batez, Jesus Sakramentuakin itzasperturik gozoenean jardun. Berak Aita Loyolari:

« ¡Ay, Padre mío: y qué cosa tan dulce es oír la voz  
» regaladísima de... nuestro Amor Jesús cuando, en la  
» faena de las confesiones y otras ocasiones, me llama

» desde aquel trono de su amor inefable a los hombres!  
 » Por eso... dispongo el confesonario de suerte que, si  
 » ser puede, siempre esté cara a cara donde pueda ver  
 » a mi... Amor Jesús. Allí, in ictu oculi, me muestra  
 » su infinito amor y aquel volcán de su Corazón que,  
 » siendo un horno celestial inmenso, arde todo él y se  
 » abrasa en amor, en ansias, en deseos y en compasión  
 » de los corazones humanos.» (Munitibar-tik, 1737-  
 -X-5.) (37).

Orra gizona ta Kristoren Biotza Kardaberazen espirituan batera korapillatuta. Or olatu bik Kardaberazen altzo zabalean elkar jo ta barkaziozko afar zuritan batera naastu: giza-zorigaitza ta jainko-errukia. Iñongo apostoluren bizitzan ez dut olakorik irakurri. Zer era arrigarritzkoan urreratu zaion euskaldunari Jainkoa, Biotza maite-garretan duala! Asmatu dute, omen dugulazko gure jansenismu-keriari uko egiteko, Kardaberazen apostolutza darabilten idazleek.

Berrituta gelditzen ziran erriak. Testamentuz bezela, «...he procurado en mis misiones, —dio—, imprimir sólidamente el amor al adorable Corazón de nuestro Amor Jesús.» (38). Maitasuna otsegin du gizon onek ogei ta amasei urtez (36) Euskalerrri osoan; maitasuna, eztarria urratu ta odola emateraiño. Ez maitasun utsa, ordea; Maitasun-Jaínkoa, berak dion «el Amor Jesús», baizik.

Berak bakarrik daki zenbat etsaigo desegin, zenbat gorroto itzali ta zenbat asarre oztu bear izan dituan. «El amor con que quedan los pueblos en donde he hecho Misiones» eutsi diola mixio-lan akigarri orretan, diosku berak.

Jesusen Biotzari nai dakiola, Luengo idazleak Kardaberazen eriotzakoa idatzi zuana —«aldareetan ikusiko dugu egunen batean»— egi gertatzea, ark erein zuan azia gure lur asarretu ontan «maitasun» loratu dedin.

*Goikoetxea-Maixa'tar Joan*

- (1) Aita Jose I. Arana, S. J. - Euskal Idazleak. I: Euskaldunak Euskeraz. (Olerkia).
- (2) Ignacio Ma Barriola, Los Amigos del País y la Medicina. (San Sebastián, 1963), 31.
- (3) Barriola, op. cit., 23.
- (4) Andrés Mañarikua, La Religiosidad del Pueblo Vasco. (Idaz-lan, artikulua). La Gran Enciclopedia Vasca, t. I., 11-12 sorta, 801.
- (5) Julián de Fonseca, S. J., Compendio de la Vida del P. Agustín de Cardaveraz. (Madrid, 1862), 26.
- (6) Fonseca, op. cit., 28.
- (7) Gaspar González Pintado, S. J., Vida del P. Agustín de Cardaveraz. (San Sebastián), 528.
- (8) Fonseca, 141 ss.
- (9) P. Urrutia, S. J., II Centenario de un Testimonio: Agustín de Cardaveraz. «Información S. J.» errebixtan, 9 (1970), 238.
- (10) Urrutia, Le, 239
- (11) Op. cit., 143.
- (12) Urrutia, 1. c, 239.
- (13) Urrutia, 1. c.
- (14) Urrutia, 1. c, 240.
- (15) Glz. Pintado, 518.
- (16) A. Onaindia, Milla Euskal Olerki Eder, I. «Matsaren zumua», 246.
- (17) Urrutia, 1. c, 239.
- (18) Ejerzizioen Gaiñean Afektoak, II. Itzaurea.
- (19) L. c.
- (20) Antonio Astrain, S. J., Historia de la Compañía de Jesús en la Asistencia de España, T. VII (Madrid, 1925), 139.
- (2.1) Glz. Pintado, 585.
- (22) Glz. Pintado, 480.
- (23) Glz. Pintado, 585.
- (24) Euskeraren Berri Onak. Auspoa-37, 119-120.
- (25) Glz. Pintado, 586.
- (26) Glz. Pintado, 585.
- (27) Exercicios Spirituales, 65 zbkian.
- (28) Glz. Pintado, 586.
- (29) Glz. Pint., 586.
- (30) Glz. Pint., 489.
- (31) Op. c, 77.
- (32) Glz. Pint., 490.
- (33) Glz. Pint., 568.
- (34) Glz. Pint., 568.
- (35) Glz. Pint., 568.
- (36) Glz. Pint., 599.
- (37) Glz. Pint., 573. Ikus baita ere, «En la Residencia de Azcoitia» kapituluan, 526.
- (38) Glz. Pint., 554.



## KARDABERAZ ETA BIZKAIA

Ez dot esango nondik nora, ez dot esango zelan, baiña Bidasoaz emendiko Euskalerrian zeozer barri jazo zan XVIII garren mendearen erditsuan: euskal-literaturaren arloa, artean igarra edo erkin egona, bapatean indar betean asi zan bizi-itxurak agertzen. Nondik etorren ori?

Askok uste dau Larramendiri deusagula zor orduko bapateko biztualdia. Bere gramatika ta iztegi-lana bide, bera ei dogu orduan gure artean ikusi zan barriztaldiaren sortzaille. Ez dogu Larramendik egiñiko lanen baliorik eztabaidan jarriko. Ez dogu esango euskera lantzea askorentzat erraztu ez ebanik. Beste askorentzat, oster, kaltegarri izan ei zan aren eragiña, eta alan dirudi.

Larramendiri ezer ukatu barik, eta aren egunetan, gizon bi agertzen jakuz euskal-idazleen artean buru ta gidari. Ez datoz, ez, euskeraren edertasuna edo aberastasunik atzerritarrai erakusten: bai, Euskalerrian beronen izkuntzan berba egiten, bai euskaldunen gogoai, euskeraz azaldurik, egia, bizia ta bidea non dituen irakasten: Mendiburu ta Kardaberaz dira. Biak, Larramendiren adiskideak eta gogozko anaiak; irurak Aita Iñazioren Lagundiko soiñekoa jazten dabe.

Zer zor deutse euskal-idazle biok gramatikalaria ta iztegi-giuearen lanari? Ezer gitxi, nik uste. Aren iztegia agertu orduko, luzaro ibilli dira erriririk erri sermoegiñen. Olan ikasi, landu,

orraztu ta aberastu dabe euren euskera, eta gero, berbaz lenago irakatsia bera liburutun ezarrita eskeiñi deutse euskaldun irakurleai. Biak dira giputzak. Batak, napar-euskeraren giropean jaioak, naparrentzat idatzi dau, batez bere; besteak giputzentzat, geien baten.

Bidasoaz onantza, biok ditugu euskal-literaturaren arloan, giro barri baten sortzaille. Bizkaia geroago sartuko da giro ta eragin orren barruan. Baiña ez arei ezer zor ez deutsela. Batez bere Aita Kardaberaz Ernaniko seme argian. Bizkaia zordun andi da Aita agurgarri ta euskal-idazle ugari onen aldera. Bizkaitarrok ez daigun aitzu auxe, orain gizon santu au il ezkeroko berreungarren urte onetan. Nire lantxo onek orixe gogoratu nai dau. Zer zor deutso Bizkaiak Kardaberazi? Zor ori irukotxa dala esan geinke: ainbat urtez bizkaitarren mixiolari izan da; Bizkaiko euskaldunentzat libururik bere idatzi dau; Bizkaitarrai euren euskerea garbiago ta jatorrago egin eta idazten irakatsi deutse.

## KARDABERAZ, BIZKAIAN MIXIOLARI

Ona lenengo zorra: Aita Kardaberaz Bizkaitarren mixiolari izan dogu. Bizkaian, luze-zabalera guztian ibillia da bera mixioak emoten, Jaunaren Barri Ona zabaltzen. Bere mixiolaritzako lenengo izerdiak, arlo onetako bere asikiñak Euskalerrian, bizkaitzarrentzat emonak ditu. Euskeraz eta erderaz.

Gazte-gazterik, ogei ta zortzi urte bate barik dituela, bere nagusiak Bilbora bialdu eben, latin-irakasle; 1731 garreneko urtea da. Laster ikusten dau irakaskintza orretako lanak ez dauala bere biotza asetan; arimai onik egin barik ezin da egon. Eta bere barruko irakiñak pulpituan, sermoegintzan, aurkitzen dau urteera, asazkaldia. Lenengo jesuiten eleizan bertan, urrengo Bilbo-barruko parroketan, eta gero inguruetako erri batzuetan, ospetsu egiñez doa bere sermolari-izena. Sermorik ospetsuena, izenik andiena emon deutsana, San Anton-eleizan, 1733an izan ebana. Urte orretan, Gorpuzti egunetik zortzigarren egunean, entzuten zan Fran-

tziako mugatik onuzko aldeetan lenengo aldiz, diñoenez, Jesusen Biotzaren itzaldia.

Donostiatik eta bere jaioterritik, Ernanitik, bere izan ditu deiak. Bere ezagunak, batez bere moja batzuk sermolari gaztearen itza entzuteko pozez dagoz. Ernanin erderarik ez ekien batzuk bere ulertu ei eutsen. Orti badakigu erderazkoak zirala sermoi areik. Erderazkoak izan ditu orain-arteko beste guztiak bere. Bilboko lenengo urte bietan sermolari erdelduna izan da. Irugarren urtean dator bere sermoi euskaldunen txandea. Eta bizkaitarren-tzat izan dira Kardaberazen euskerazko asikiñak,

Arrezkero euskaldunen mixiolari biurtuko da arteñoko sermolari erdelduna: Bizkaian, Naparroan, Gipuzkoan, Araban, beti ta danean euskaldunen mixiolari. Bizkaian asita.

Elorrio ta Lekeitio izan ziran, 1733-ko udagoienean, lenengo erriak, Kardaberazen euskal-sermoiak entzuten. Elorrión, San Agustín eleizan, iraillaren 28an, emon eutsan asierea bere lenengo euskerazko mixioari. Urrengo, andik gerotxoago, Lekeitioen emoten dau. Bata ta bestea, ogei eguneko mixioak. Ogei egunez, goiz ta arratsalde, sermoi luzeak egiten: ez zan lan makala asibarra baten-tzako. Badakigu gitxi gora bera orduko mixioak zer ziran, zelango lana ta nekea emoten eben. Oraintsurarte bizi bizirik iraun dabe. Orain...

Orain, esan bearrik ez dago. Mixio itza iñoz baiño ezagunagoa ta erabillíagoa da, orraitio. Agoz belarri dabil edonon itaun au: Mixio-erri gara ala ez? Mixio-erri da Euskalerría ala ez? Mixio-erri ete zan Kardaberazen egunetan? Ez da gure asmorik, itaun onei erantzunik emotea. Edozelan bere, mixio-erri izatea eta non-baiten mixioak emoteak badirudi ez daukela alkarregaz zer-ikusi andiegirik edo esturik. Gogoan artu: orain, askoren eritxiz beintzat, mixio-erri gareanean, mixiorik gitxi da gure errietan, edo bapez. Lenago, oraintsu-samar, izen ori merezi ez ei genduenean, txitean pitean genduazan edozein erritan.

Eta, besteak beste, Loiolako Iñazoren semeak ez ziran lan orretan gitxien nabarmentzen. Euskaldunai euskeraz egin bear

jakiela-ta, S. Iñaziok berak bialdu ei eban bere semeetako bat, ain zuzen, Bizkaira, Aita Otxoa, Erronkariko semea. Zelan konpondu ete zan bizkaitarrakaz? Gauza argirik ez dakigu. Ez dogu uste bizkaitarrentzat errazegia izango zanik Erronkariar baten euskerea ulertzea orduko aldietan bere.

Zori obea izan eben, bai orixe, XVIIIgarren gizaldiko bizkaitarrak Aita Kardaberazegaz. Lenengo egunetik asita, ederto baten aitu ei eutsen oni. Eta andik aurrera, askoz obeto. Kardaberazek ez eukan laster Ernaniko euskera bizkaiko semeakaz erabilli bearrik; bizkaitarrak baixen ondo ikasi eban Bizkaikoa.

Mixiolariak berak ara ta orra bialtzen zituen kartetatik ataraten dira ainbat barri, ainbat argibide. Lenengo ta bein, ortik dakigu pozik artu ebal mixiolari-lana, baiña bai bildur-pitin bategaz bere. Arimai on egiteko aukerak poztu egiten dau; baiña euskeraz egiteko oiturarik -ezak, bildurtu. Au ez da arritzekoa. Ikastetxe andietatik ibilliriko askori jazoten jakon orduan; eta gaur bere, oindiño, bardintsu. Aita Bartolo Karmeldarrak esan eban lez, eskola nausiak bazirudien euskera aiztuten ikasteko zirala. Zeinbat euskera entzun ete eban Kardaberazek bai Iruñako ta bai Valladolideko ikastetxeetan?

Zorionez, ez eban aitzu bere jaiotetxean ikasi ta egiñiko guztia. Eta pozik dago bera eta eskerrak emoten deutzaz orrexegaitik Jaunari: «Gora Jesus Jauna, nik euskerea aiztuterik nai izan ez daualako! Egundo lenengoz oraintxe egin dot itzaldirik euskeraz. Egia esan, errian mutil nintzala, beste edozeiñek baixen ondo nenkian euskeraz egiten, jakin bere besterik ez nenkian-eta. Baiña iñoiz mixiorik entzun bakoa nintzan, eta Jesusen Lagundian sartu nintzan ezkerro, ez neban euskeraz egiteko ardurarik artu. Alan da guzti bere, arriturik neukazan entzule guztiak nire erreztasuna ikusita, jakin dakienak esaten ebenez, beste iñori ikusi ez deutzen erreztasuna. Siñistu eziñik nengoan ni neu bere, eta Jaunaren mesede anditzat daukat auxe. Ondo daki Berak bazter oneitan dagoan bear izana; badaki lan onetan ekiteko gauza danik eta zeozer egiten dauanik gitxi, oso gitxi direana...»

Euskalerriaren eta euskerearen deia entzun eta ari erantzutera jarri danean, gure gizaldiko olerkariari jazioa jazoten jako mixiolari oni bere:

Asaba zarren baratza,  
untzadun ormek esia,  
eguzkiak len maitea:  
otzaldi zoro baten itzuli,  
joka nagokit atea.

Len ain zabal, ain loretsu zan baratza, gero ain estu ta ain zimel. Baiña, zorionez

«Ene asaben lokarri zarra,  
Jaunari zor, etzan eten.»

Ez, ez dau zorionez aitzu osoan Kardaberazek bere etxeko izkuntza; eta orregaitik eztitan entzun al izango dabe bizkaitarrak Kardaberaz! agotik darion etorria, euskera gozoa. Ez dabil bera mixio orreitan bakarrik; lagunak baditu. Batzuen izenak ezagutzen ditugu: Aita Jauregi, Ibarluzea, Laskurain. Baiña entzuleai Kai'daberazen euskerea egiten jake entzuteko gozatsuen. Zer dala-ta? Zelan izan leiteke ori? Jesuitak Lekeition ikastetxea euken orduan; eta ango nagusiak esango deusku, edo, arexek esango eutsan mixio-emoilleari: «Ez zaite arrotu (ez daukat zergaitik arrotu, esango dau emen Kardaberazek); baiña argitasun geiago, barru-indar geiago emon deutzu Jaunak zuri; eta batez bere zure euskerea gozoago egiten jake entzuleai.»

Eta Kardaberazen erantzuna: Gora, Jauna, eskerrak Berari! Baiña ez eban dana euskera gozo orretan Jaunak goitik bera ixuri ta emona. Ainbeste nekeren semea eban sermoegiñen erakusten eban euskerazko erreztasuna ta etorria. Lenengotan, dana aurretik idatzi bearra eukan, erderazko papeletatik euskerara itzulita. Eundaka orri zirriborroturik eroan zituen lenengo mixioetarako. Bear bere bai, zeozer, ogei egunez, goiz ta arratsalde, zer esanik eukiteko.

Lekeitio ta Elorrio ez dira gizon arimazale onen mixio-leku bakarrik izan Bizkaian; 1733-ko urte orretan asita, beste erri as-

kotan ikusten dogu mixiolari edo sermoegiñen. Esaterako, 1737an, Mungian, Bakion, Erandion eta Munitibarren; aurreko urtean, Elorrión, bigarrenez: 1741an, Zornotzan eta Berrizen; 1747an, Markiña ta Zornotzaldetik dabil {emen bere, antza, bigarrenez}. Baiña Bizkaian, zein erri gelditu ete da sermolari jainkozale onen berbea entzun barik? Batera ta bestera dabil bein mixioak emoten, bein Jesusen Biotzaren anaidia sortzen edo beste sermoen bat egiten. Eta beti Kristoren bakea eroaten eta, askotan, auzo-etako gorrotoak uxatzen. Aldi bakotxean itzalezko jentetzak ekartzen ditu, bideak betean, beragana. Bakion, eleizea txiki zala-ta, kanpoan emon bear izan zituen itzaldiak. Mungian eta Berrizen, inguru-etako zortzi edo amar errietatik etorrita ditu entzuleak. Zornotzan bardintsu jazoten jako.

Zek egiten dau Kardaberazen ondoan dabillén eragikera au? Lekeioko jesuiten nagusiak esan deusku zerbait. Baiña beste zerbait geitu bearra dago. Kerdaberaz ez da edozelango sermolaria, ez euskeraren aldetik, ez mamiaren aldetik. Bere gaiak ez dira bildurra sartzekoak, bai biotzetan maitasun-giroa sortzekoak. Berak emondako lege au darabil bere sermoietan: «Pekatuen kontra aserrealdien bat iñoiz bear bada ere, baiña guzia pekatarien amorez, guzia pakez, pazienza ta espirituko suabidadez beterik. Konfessore ta predikadore jaunak, maixuak bezala, begien aurrean idukitzea nai nuke, gure jendetxo onak, agitz geienez, bertuteen edertasun ta amorez, pekatuen itsustasun eta gorrotoz baiño, Jaungoikoagana ekartea obe dala.» (Euskeraren Berri Onak).

Kardaberazen sermoien jokera orrek gozago egiten eban, antza, aren euskerea bere. Aren berbak Jesusen Biotzaren sutegitik zear urtetan eben eta sarkorrago jotén eben euskaldunen biotzetan. Gure erriaren jansenista-izaera gora ta bera aitatzen dabenak badauke emen gogotan artzeko gairik.

Ez dakigu mixiolari onek Bizkaian egin zituan ibillaldi guztien barririk. Dana dala, berak esan dau naiko argi Bizkai osoa aratuta eukala: Arabako mugalde guztian asi ta Matxixako aldeko itxasoraiño, Gipuzkoa-aldeko errietatik Txorierri ta Plentzia-aldeko errietaraiño. «Entzunez ikusi edo ikasi» dau alde guzti orreitako

euskerea. Bizkaiko erririk geienetan izan da, *beraz*, errien deiak eta arimen maitasunak eroanda. Eta olantxe jarraitu dau arik eta oiñez ibilli eziña sortu jakoa arte: 1755garren urtean da. Orduan Loi olan Gogo-jardunetako Etxea sortzen dau eta bertan lotzen da. Arrezkero, ez dauko erririk erri urtetarik, baiña antxe bertan ekingo deutso, berbaz eta lumaz, arimen alderako lanari.

Jaunak auxe adierazo ei eutsan orduan: «Oraiñarte zeu bialdu zaitut errietara arimen billa, nire Barri Ona zabaltzen; emendik aurrera eurak ona etorri ta Loiolako etxe onetan billatu zaiezala: auxe nai dot nik.» Baiña an sartu dan arren, bizkaitarren gomuta ona beragaz daroa; ez ditu aiztuko ez bizkaitarrak ez Bizkaiko euskerea, bere eritxiz gauza askotan beste euskalkiak baiño beteagoa. Berak esana da: «Ainbeste anima edo gizon ta andrekin igaroko urteetan Probintzia oietan mixioetan jardun bear izan det, eta egunero ta geiago admiratu izan nau guzietako, eta ez gutxiago, Bizkaiko itz egiteko era ta armoniak. Besteak bezein ondo, ta gauza batzuetan, bearbada, obeto izkeraren legeak an gordetzen dituzte» (Euskeraren Berri Onak).

## KARDABERAZ IDAZLE BIZKAIKO EUSKERAZ

Kardaberazen azkenengoko itzotatik atara geinkenez, ez eutsan berak iguiñik artu, ez, Bizkaiko euskereari. Entzun daiguzan barriro bere beste berba batzuk: «Entzunaz ikusi edo ikasi dot Orozko ta Zeberioti Otxandianora, eta Plentzi eta Matxixako aldeti Mungiara ta onuntz berba batzuk edo esateko moduak barnaro edo diferenteak dituezala. Baia Señorioko beste leku zabal andi eta bazterretan bere ainbeste euskaldun euren modura nik askotan entzun eta diranak gustoz adietan nituan.» Olantxe, Bizkaieraz esanik, argi ta garbi autortu deusku Bizkaiko euskerea atsegin ebal.

Atsegiñez entzuten ditu bizkaitarrak bizkaieraz egiten. Atsegiñez entzun eban, esaterako, arako Elorrioko uzandreari bein entzun eutsana. Atsegiñez eralgi ta ekarten deusku, euskerazko erre-

torikaren eredu ta ezaugarritzat, andre orrek abadeari emon eutsan erantzuna. Abade orrek etxandera on baten seme bakarragaz ezkondu nai eban bere llobea; baiña neskeak dote urritxoia ei eukan senargaitakoari eskeintzeko, etxanderearen eretxiz. Abadeak alperrik diardu, bere llobeak senide aberatsak eukazala-ta, urrezko mendiak opatzen geroko, etorkizunerako. Bai «epe galantagaz» zorrotz eta bizi erantzun bere andereak:

«Eta, Jauna, zure mesedeak etorkizuna bazau?

—Ez, andrea.

Bakizu etorkizuna zelangoa dan? Zuria ala baltza dan?

—Ez, andrea.

Etorkizunagaz ian edo edan bozu, edo beragaz bizi izan bazara?

—Ez, andrea.

Bada, Jauna, etorkizunaren barri obagorik eta seguru-bagorik ezpozu, zu geldi zaite zeureagaz, eta ni bere banoa neureagaz.»

Kardaberaz arriturik dago andre orrek nondik ikasi eban edo nok irakatsi ete eutsan «erretorika ain bizi ta egokia».

Agirian da belarriak zur ebillela aita mixiolaria erriaren berbeta ta ateraldiak jasoten. Eta noizik bein olangoxe bitxiak batzea jazoten jako. Berorrek jaso dau bizkaitar askoren naieratxo bat bere: Gipuzkera-zaleak ei zirean. Orixe ikusi ei eban Bizkaian: «Bizkaitarrak berak, askok beintzat, gure dialektoan berenean baiño predikatzea naiago dutela, eta Bizkaiko predikadore asko gurean predikatzen oitu edo egin dirala.» Baiña bera ez dago euskalkiak baztertzen. Euskalkiak euskalki, «euskera beti bat eta berbera» ei da. Baina bata ala bestea egitea «ferian edo dendan erosten dan gauza ezta; bakoitzak bere dialekto edo iskerari jarraitu ondo. Oitura ...ala da ta aurrera ere ala izango da». Emen agiri dauanez, Kardaberazek ez eutsan bere aldian euskera batu osozkoari etorkizunik ikusten. Bakoitzak bere euskera alik ondoen, alik garbi ta jatorren egin, bizkaikoak bizkaieraz: naikoa zan ori.

Orregaitik, eta bizkaitar giputz-zaleai ordea emotearren edo, bere zentzun onak alan aginduta edo, Bizkaian bizkaitar egin zan bera. Eta erririk erririk ebillela, laster egin zan bizkaieraren jabe. Eta Loiolan bere mixiolaritzari bakea emon eutsanean, eta lumazko apostolutzari ekin, euskal-liburuak ataratean, Bizkaitarrak eta Bizkaiko euskera ez ditu aitzurik itxi.

Bizkaian, ain zuzen, premiña andiagoa ikusten dau, euskal-liburuen premiña andiagoa beste Euskalerriko iñon baiño. Alan diño berak: «Aita Mendiburuk Nafarroako eran liburu asko atera ditu.» Baiña Bizkaian? «Jainkoaren ontasunari eskatzen diot Bizkaiko biotz nobleren bati, ango era ta dialektoan, zeruko Dotrina ta ejenploen libruak ateratzeko, arren, argi zeloz ta gogoz bete bat eman diozala... Arimen onerako Bizkaiko, Nafarroako ta Gipuzkoako iru dialektoetan eskribitzea guztiz premiazkoa ta gauza bearra da. Gure izkera, beste bien erdikoa bezala, Nafarroan, baita Bizkaian ere, geiena aditzen da. Baiña ez nafarrak bizkaikoa ta ez bizkaitarrak naf arrena aditzen dute; ta bata besteagandik urruti ta bakoitza bere bidetik dabil. Jainkoak guziak zuzen ditzala bere gloriarako.»

Onen ondoren, zer jazo zan Bizkaian? Ez zan beingoan agertu Kardaberazek salatu eban utsunea betetakorik iñor. Andik urte gitxi barru, barriz, euskal-liburuentzat giro txarragoa etorri zan. Euskal-liburuei urteera galazoten asi ziran agintariak Madrildik. Kardaberaz bera bere, liburu bat argitara emon eziñik gelditu zan; goitik baimenak ukatu. Urte batzuk gerotxoago, Bizkaiko praille frantziskotar batek liburu bat edo bi idatzi ditu eta alperrik da baimenik eskatzea. Etorkizun obe baten zain, lagunen eskuetan itxi ditu bere lanak. Giro ito orrek irauten dau, arik eta Bilbotar ministro baten bitartez, Mogel andiak Madrilgo agintarien gogorkeria ausi eban arte.

Baiña ez gaitez anurreragi joan. Bien bitartean, giro txarrago ori sortu aurretik, Kardaberazek ez dau geiago itxaron nai eta bera dator bizkaitarrai laguntzen, Bizkaian ikusten eban utsunea estaltzen. Urte baten aldeaz, 1763tik 1764ra liburu bi ataraten

ditu bizkaieraz; Dotriñako kartillatxo bat eta *Jesus, Maria la Joserén Devocinoco Libruchoric atararico Devocino batzuc*.

Dotriña-liburuz, egia esan, ez egoan Bizkaian guztiz uts. Ain zuzen Kardaberazek berea atara eban urtean bertan argitaratzen dau Olaetxeak, orduan Laukarizko arimazain egoala, bere Dotriña ospetsua, gero ainbeste argitaldi izango zituana, Kardaberazena baiño osoagoa bere bai. Biak batera etozan argitara, batak bestearen barririk izan barik antza. Edozelan bere, esker onez artzeko dira bizkaitarrentzat Kardaberazen gogo ona ta lana. Olako liburuak, au da, dotriñako kartillatxoak atarateko agintariek bere ez eben ainbesteko eragozpenik jarten. Osterantzekoetan, Bizkaiak eta Gipuzkoak ez euken euren legez aparteko eskubiderlk. Erregearen eskuetan egon or aginpide guztia. Nafarroan ez zan bardin. An Gaztelako legeak ez eukan inprentako gauzetan indar modurik, azkenengo urteetan an bere erregeak euren eskua edo musturra larregi sartzen eben arren. Ortik ete dator Bizkaiko ta Gipuzkoako libururik geienak, aldi atan, Iruñan agertzea? Gai onetan noz edo bein egingo al da argi.

Aita Kardaberazen Dotriña-liburuak ez eban aurkitu eragozpen andirik bigarrenez argitaratua izateko (1783); baiña norbaitek orraztuta, euskera apaindubaguan jarrita agertu zan. Ona zelan apaindu eutsen titulua bera: len *Christinau Dotrinea* zana oraingoan *Cristinaubaren jaquinbidia* da. Mogel edo Astarloataarren baten esku-ikutua ete dogu emen? Beste bein, gure gizaldi onetan argitaratua dogu, Dogson eta Urkixo jaunak argitaratua, Baionan, 1906an.

Bigarren liburuak, Jesus, Maria ta Joserén deboziñoko orrek ez dau, guk dakigula, beste argitadirik euki, bizkaieraz.

Liburu biok dauke bizkaitarrentzat sarrera bana. Batean eta bestean egilleak arau ta argibide batzuk ematen ditu, Bizkaieraz obeto idazteko. Baiña au urrengo saillekoa da.

## KARDABERAZ, BIZKAIKO EUSKERAREN MAIXU.

Ez ete dau eskubide osoa Ernaniko seme argi onek euskeran bizkaitarren maixu izateko? Nor da aren egunetan berak baiño

obeto bizkaiera ezagutzen dauanik? Ainbeste erritan mixiolari ibilliak emon deutso ezaguera ta maixutza ori. Ibillialdi orreitan ikasi dau Bizkaiko euskerea, bat izan arren, ez dala alde guztietan bardina: «Badakust ondo, Bizkai guztiko euskera bat izan arren, berbaren batzuk erri batzuetan, besteak besteetan oi direala.» Orre-gaitik, argitasun batzuk emongo ditu, bai bere liburuen irakurleen tzako, bai idazleentzako.

Lenengo, irakurleak, bere erriko erara ez danik liburuan ikustean er dau arritu ez atzerarik egin bear. Guztien gogora ezin lei idatzi: «Bakust, irakurlea, ta bakutsu ondo, irakurtean asko txito lotuak direala, eta berba guztiak eta bakotxa euren gustora ezpadakuste, bertan espantuak artu ta nastuten direala. Askatuago, edo libreago nai zaitut. Dotrinako kartillatxuan esan neban legez, juizio edo burua daukanak errazoe au erraz ikusi ta ondo ezagutuko dau. *Amudio* esan edo *amodio* guztia bat da... *Jaungoikoa* esan edo laburrago *Jainkoa*, *orazino* edo *orazio*, debozino edo *debozioa*, ta orrelan besteetan; zeuk bata edo bestea, gura dozuna, orrelangoetan esazu. Ez, arren, seiñak legez, ikaratu; *ezpada*, gizonak legez, juizioaz bata besterik atara, ta ondo irakurri ta erraz berba egin bear dozu.»

Kartillatxoan emonda, ona beste argibide batzuk geiago: «Bizkaitar guztiendako ainbat da *sartzea* edo *sartutea*, *artzea* edo *artutea*, *agertzea* edo *agertutea*..., guztia edo guzia, zeure, zure, geure edo gure, *galdea*, *itaun* edo *itaundea*... Baia bakotxak bere erriko legez irakurri, esan edo pronunziadu bear dau. Erri guztietako modura ta guztien gustora ezin izango dan gauzea da.»

Euskaldun askok errazegi artzen deutse iguia euskera iraguiña kurtean olangoxe eragozpen edo zoztor txikiren bat dala-ta. Gaurko egunetan bere jazoten dana. Ez datoz, bada, ortixik alfabetatzea dalako ekintzaren ekiñak? Aita Kardaberazek aspaldi da olako ekiñai aurrera artu eutsela. Eta atxaki guztiak kendu gura deustoz euskaldunari euskera irakurteko daukan atzerakuntza ori austeko.

Bein kaskondu ta gero asten dira asko olangoak atxakiak jarten. Umetan, ezta olangorik. Euskaldun nagi guztiak gogotan zi-

tuela, auxe diño Kardaberazek gipuzkerazko liburu baten: «Txikitan zuk eta guztiok ikasi genduen Dotriña berbera kartillan irakurten da. Bestek irakurri edo predikaduta zuk guztia aditzen de2u. Lotsagarritzko gauza da zuk ez irakurtea; gogoa bazendu, irakurten erraz da» {*Ondo illtzen laguntzeko liburuan*, bigarren argitaldian).

Bein baiño sarriago ikusi dogu gure egunotan euskaldun askoren gatx au: eurak euren ez dira, itxura baten, irakurteko gauza; ez ei dabe ezer aituten; bestek irakurri ezker, barriz, dana ulertuten dabe. Eta Kardaberazek, bere mailluaz ingude berrean joaz, argiago jarri nai dau atxaki askoren ustela, sustrairik eza: «Batak dio euskerazko dotrina edo libruak ezin irakurri dituela; besteak euskera algarabia, gregeria, girigai edo naspilla mardarikatua dala.» Eta ona gure idazlearen erantzuna: «Oriek gezurrak, ametsak edo atxakiak dira... Ainbeste denboran, urte askotako mixioetan Bizkaian, Nafarroan, Araban eta emen guk predikatu deguna berbera libruetan ematen da.» Orduan entzunaz beste barik ulertuten ebena, zergaitik ez ete dabe, liburuetan irakurrita, ulertuten? Nagitasunez, beste ezergaitik ez; «Askok beren nagitasunazitsuak daude, orrela bizi ta illtzen dira... Jainkoak itsu oiek argi ditzala» (*Ondo illtzeko liburuaren sarreran*).

Askok dira olango nagi ta atxabi-bíllatzailleak; baiña guztiak ez dabilte bardin. Zorionez beste askok ezagutu dituzte euskd-idazle onen zentzun obekoak eta bide zuzenagoa artu dabenak. Eta orí, «Bizkaian, Nafarroan eta emen». Abade jaun batzuk badakie olangoen barri. Mixiolariaren irakatsiai jaramon egin eta jarraituz edo, abade orreik badakie «baserri-jende on askok jai-egunetan, bakkarririk, irakurten asi ta ikasi, ta liburu onekin illtzen laguntzeari eman diotela: aingeruen ofizioa artu dute» (*Liburu berean*). Alfabetatze polita, xixi-xillik eta bape zarata barik egiña, Kardaberazek eta beste abade batzuk orain berreun urte eragiña. Gipuzkoan, Nafarroan eta Araban.

Bizkaian egiñari gagokiozala, ikusi dogu ez egoala, Kardaberazek eritxiz, guztien gogora idazterik. Orrek ez dau inor irakurte atzeratu bear. Berba batzuk bardin dira, era batera nai bes-

tera esan. Baiña berak ez ditu itz egiteko edo idazteko era guztiak ontzat emoten.

Esaterako, berbak laburtzean larregikeri batzuk salatu ditu. Euskalerrri guztiko gatxa ei da berau, baiña Bizkaian andiago, aurki: «Ala Probintzian, nola Nafarroan, eta are geiago Bizkaian, itz egitekoan edo aoz esatean, itz asko laburtu egiten dira, baita letra asko trukatu ere.» Eta bere bizkaierazko liburu bien sarreran gatx orri adar batzuk moztu nai leuskioz. Esaterako, ez da erabilli bear onango laburpenik: *Aitien*, *Semien*, *Kurutzien*. Aitearen, Semearen, Kurutzearen idatzi ta esan bearko leiteke.

Olantxe idazten ei eban Kapanaga, Mañariko abade jaunak, bere dotriña-liburuan: «Eun da zazpi urte da, gure Aita Ripalda famaduaren dotrina lizenziadu Kapanaga Mañariko sazerdote jaunak Bizkaiko euskeran atara ebal. An dakust, zelan emeko gure modura berba asko usetan eta akabetan dituan. An dakust zelan ederto baten diñoan: Kurutze Santearen, Aitearen ta Semearen, Jaungoikoaren... Orain eun da zazpi urte legez, gaur bere guztiok esatea erazoe da: *Aitearen*, *Semearen*, *Kurutzearen*, ak diñoan legez... Pluralean, edo asko diranean esan bear da: *Iaunen*, *gizonen*, *semeen*; eta olan eskribidu ta pronunziadu bear dira.»

*Errazoe da*, ondo dago, esan bearko deutsalagu emen Karda-beraz!. Baiña beste bitxikeritxo bategaz guztiak ez dira bat etorriko. Euskeraren legetzat dauko batzuetan *ta* eta beste batzuetan *da* erabiltea: Aita *ta* Semea *ta* Espiritu Santua, batetik; Aitearen *da* Semearen *da* Espiritu Santuaren, bestetik. «Euskerak bere erregla suabe ta ederra dauka... Euskeraren erregla seguru ta eder beti gorde bear dozuna au da; eta maisuak ondo erakatsi bear dabe.»

Baiña bere maixutzarik ederrena ez ete da izan abadeen artean egin ebana? Bizkaiko errietan sermolari asi zanean, abaderik gitxi ei zan mixiorik emoteko edo euskeraz patxadaz egiteko gauza zanik. Andik ogeta bost urtegarrenean, gauzak aldatuta dagozala dirudi. Abade asko ezagutzen ditu euskera irakasteko eskolak daukezanak bere: «Bizkaian, baita emen gure artean ere, sazerdote jaun asko ikusi ditut eskoletan obra ori zelo ta arreata andiz egi-

ten; obra obeagorik errientzat ezin, ala fede, umeak ondo azitzea baiño egin dezakee... Bestela, zer lotsa gaitzo itsusiagorik euskaldun galtzadun edo gizon egin bat lau erengloi euskeraz ezin irakurririk, ez atzera ez aurrera, lotuta ikustea baiño? Ta ori guztia zergatik? Ain aisa ta erraz lau egunean liburu bat irakurtzen ez ekin edo jarduteagatik.» Benetan txalogarriak, lan orri eldu deutsen Bizkaiko abade ixillak!

Gaiñera, gero ta sermolari obeak dagoz, abadeen artean. Jainkoaren berbea zabaldu bearrak itzal andia ta zeregin au benetan artzea eskatzen deutso ariman artzaiñari. Eta Bizkaian bada egiteko orri erantzuten ondo ikasi dauanik: «Ala Bizkaian nola emen, zelo andiko sazerdote jaun ta animen artzai lezio au ondo artzen dutenak dirala badakit. Oiek beren dotrina, itzaldia edo sermoiak euskeraz eskribitzen dituzte... Itzez esan edo erakatsi nai dutena kontuz onela eskribitzea askorentzat txit erazko konbeni dan bidea da. Bakoitzak bere errikoakin itz egin oi duen bezala bere erara lenago paperean ezarri, kontuz etxean nai bezala irakurri, ta gero pulpitan errespeto andiagoaz errazago, gogotikago ta bizi-roago esango du.»

Jaunaren itza euskeraz egokiago azaldu ta euskaldunei euskera jatorragoan emoteko gai izan daitezana, abadeentzat emona dau beste urrezko lege au bere: «Jainkoaren dotrina bear dan fede ta debozioaz esateko, lenagotik ondo pensatu, begiratu, ikusi ta ikasi bear da; eta ori, latín edo gaztelanirik munduan ez balitz bezala. Au egiten duen euskaldunak, nere kontu, dotrina ondo eskribidu, ikasi, esan ta adierazoko duela.»

Urrezko legea, benetan, batez bere, «latin edo gaztelanirik munduan ez baliz bezala» ori. Lege au gordetan alegindu zan, aurki, Kardaberaz bere sermoi ta liburuak gertakeran, eta orrexegaitik edo, bere euskera jatorrago aurkitu eban erriak beste askorena baiño. Erderaren azpitik, azatzetik urten eziñik ebiltzen gure elizgizon asko ta asko, eta orregatik ziran euren artean ainbeste D. Kalixto, *Peru Abarkan* azkenengo orrialdeetan agertzen danaren senide urkoak, bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan. Kardaberazen gizaldia amaitu baiño lenago, Donosti zarreko parroki baten, olako

D. Kalisto edo Fr. Kalistoren baten erderakadak irri ta barrez artzen ei zitezuan entzuleak eleiz-barruan bertan. Errian baeki onari ta txarrari igarten.

Aita Kardaberazek lege ori izan eban aurrean bere Aita Iñazio-ren gogo-jarduntako liburua euskaldunentzat azaldu ta atondu eban-ean: «Nik nai nukeana da, eskola usia duten ta erdara ondo ez dakiten euskaldun garbiak beren animen probetxuren bat ateratzea; eta orretarako ejerzizio oiek emengo euskera usatuenean ezarri, ta ez itzez itz erdarazkoai lotu; ezpada zerbaiten A. San Iñazioaren espiritu, fin edo deseoai albaitere jarraituaz.»

Euskaldun sermolari ta idazleak erdararik ezpaltiz legez jokatatu bear eben euskeraz idaztean; esatekoaren gaia, mamiña, guna euskeraz ausnartu, euskeraz jantzi ta euskerarik ulerterrezenean emon.

Eredu ona euken, aurki, gure abadeak Kardaberaz beraren sermoietan. Eta ez ete eben orixe ikasten, ain zuzen, gure mixiolari onek eurentzat izaten zituen itzaldietan? Au bere ez dogu aitzu bear. Errietan emon zituen mixioetan, Kardaberaz-ek aparteko itzaldiak izaten zituen eleizgizonentzako. Eta irakatsi au, euskaldunei euskeraz Jaunaren berbea zelan ondoen azaldu, irakatsi ain bearrezko au emon ta argitu barik ez zan gelditu, nik uste. Itzez eta egitez egin zan olantxe abade euskaldunen maixu ta euskal-irakasle. Ez dogu alan ez dan gauza andirik esango, aren egunetan agertu zan aldakuntza ta giro barria berari zor jakola geien baten. Larramendiren liburu ta alegiñai baño askozaz geiago.

Giro barri orrek urte batzuk geroago emongo zituan fruturik onenak Bizkaian. Andik gerotxoago dator Bizkaian euskal-liburuentzat lenengo loraldi betea: Mogel biak, Añibarrok, Aita Bartolo, Aita Astarloak, Uriarte ta Zabalak ekarri daben loraldia. Zeinbat ez ete deutso zor giro barri onek Kardaberazen egiñari ta era-giñari? Mogel zarrenak esker onez aitatuten dau *Peru Abarka-ten* erderazko itzaurrean Kardaberazen izena. Jesuíta jainkozale ta euskalzale onek eder eritxi ei eutsan Peru Abarkaren erriko euskerari. Ez deusku orregaz gauza barririk esan. Maite eban Kardaberazek euskerea, eta maite eban Bizkaikoa, nik esango neuke, gaztetako

maiteari izan oi jakon maitasunez. Eta ez dau berak maitasun gordeta euki, ez; bere berbetatik, eutsi eziñik legez, bein *ta* barriro dario, eta bere egiteetan argi ta garbi erakutsi dau. Zirriborro oneitan naiko gelditu da.

Bizkaiak ez deutso gitxi zor aspaldiko mixiolari, euskal-irakasle ta bide barri-zabaltzaille dauan gizon argi oni. Zorrak ordaindu bearra dakar. Eta orretarako lenengo bidea, zorra autortzea. Geldi bedi, bada, emen, pozik emonda, zor atsegingarri onen autormen zintzoa.

*L. Akesolo*

## CARDAVERAZ, LARRAMENDI Y MENDIBURU

*/ . Ignacio Tellechea Idígoras*

Larramendi, Cardaveraz, Mendiburu. Son tres nombres gloriosos, cuyo recuerdo honra a la tierra que los vio nacer. Tres personajes entrelazados en la vida por una patria de origen, por una pertenencia a la Orden que fundara otro guipuzcoano, San Ignacio de Loyola, por afanes comunes, por una irradiación espiritual profunda en el País Vasco, por haber dignificado con su presencia esta casa de Loyola.

# # \*

Larramendi nació en Andoain en 1690, Cardaveraz en Hernani en 1703, Mendiburu en Oyarzun en 1708. El primero llevaba 13 y 18 años a los otros: los suficientes como para ir por delante en todo lo que impone la cronología y para poseer sobre los otros dos el ascendiente y la madurez que acompañan a la edad.

Digamos algo del más concreto humus originario en que nacieron estos hombres, de sus familias. Larramendi y Mendiburu proceden de ambiente rural; Cardaveraz será hijo de un escribano de San Sebastián. Larramendi conocerá pronto la orfandad

de la madre y las segundas nupcias de su padre; esto determinó su ida al Colegio jesuítico de Bilbao, y marcó su alma con una nostalgia de la madre y con una evolución afectiva menos normal. Mendiburu perteneció a una familia levítica: de cuatro hermanos, tres se consagraron a Dios, dos de ellos en la Compañía. No sería menos cristiana la familia de Cardaveraz; recordará con afecto a su madre, pero no podría olvidar la resistencia tenaz y agria de su padre a su ingreso en la Compañía.

La entrada en la Compañía fue fácil y gozosa para el huérfano Larramendi, que, dicho sea de paso, acabó entonces consagrando para la historia el apellido materno, ya que su verdadero apellido paterno era Garagorri. No ofreció dificultades para Mendiburu, pero fue reñida y difícil para Cardaveraz. Larramendi ingresó en Bilbao en 1707; era un niño ingenuo que hacía gracia con su candor, aunque daba claras muestras de un talento despejado. Cardaveraz era para los usos de entonces casi una vocación tardía. Poseía mayor instrucción: había estudiado Gramática en San Sebastián, Filosofía en Pamplona y su padre lo había mandado a estudiar leyes a Valladolid poniendo en él grandes esperanzas; todas se derrumbaron cuando tomó el hábito jesuita en 1721. Mendiburu lo haría en 1725.

La Compañía era la nueva y definitiva familia para los tres, en la que heredarían un espíritu y una forma de vida; y además un marco obligado de larga preparación filosófica y teológica. Aún se conserva intacta la maravillosa capilla del noviciado de Villagarcía de Campos, en tierras de Castilla. Sólo ella y Dios saben las secretas aspiraciones y fervores de generaciones enteras de eminentes jesuitas, que vivieron entre aquellas paredes la ilusión pura de su primavera vocacional. Medina del Campo era la segunda etapa con el trienio de estudios filosóficos, que Cardaveraz los hizo en Palencia. El Real Colegio de San Carlos en Salamanca, que ahora alberga a la Universidad Pontificia, y San Ambrosio de Valladolid, eran la meta de la preparación, con sus estudios teológicos. Antes del fin de los mismos, venía la ordenación sacerdotal. Tras esto se iniciaba el período de la docencia o el minis-

terio, interrumpido brevemente para refrendar la consagración tras un año de oración y reflexión, con el llamado cuarto voto, último remate de la vocación jesuítica. Esa fue la trayectoria marcada que siguieron los tres.

Luego la vida y la obediencia diferenciarían las tareas de cada uno, enmarcándolos en una tradición rica y variada, en la que figuran otros muchos jesuitas guipuzcoanos. En 1686 había muerto el P. Miguel de Abendaño, hijo de Idiazábal, profesor y autor de altas disquisiciones escolásticas sobre la ciencia divina y la predestinación, impresas en San Sebastián en 1674. En 1693 murió el donostiarra P. Juan de Berreyarza, vocacionado especialmente para las misiones populares y gran apóstol en tierras salmantinas. Aún le superó el hijo de Zumárraga, P. Juan de Abriezqueta, gran misionero de la zona de Sayago y las Batuecas, agreste, pobre y abandonada, y hombre jovial y alegre, gran director de conciencia, cuya muerte causó verdadera emoción en Salamanca. Cuando Larramendi, Cardaveraz y Mendiburu llevaban varios lustros en la Compañía, sacudió a ésta y a Guipúzcoa la noticia de la muerte de un hijo de Asteasu, el P. Julián de Lizardi, asaeteado por los indios chiriguano a orillas del Paraná. Era casi riguroso coetáneo de Larramendi el P. José Echeverría, de San Sebastián, visitador de la Compañía en México y procurador de las misiones jesuíticas de California. Tal era el amplio horizonte, la variada gama de vocaciones que se abría a nuestros tres guipuzcoanos.

# # #

Larramendi, despierto, lucido y brillante, fue destinado a la cátedra. Enseñó Filosofía y más tarde Teología en Salamanca, donde se distinguió también como orador sagrado. Cuando todo parecía marcarle una senda fecunda, diversos imponderables torcieron su camino para traerlo a Bayona como confesor de la Reina viuda del último Austria, Mariana de Neoburgo. Tres años vivió en Bayona: los suficientes como para desengañarse de los ambientes cortesanos y conocer de cerca dos vastos movimientos ideológicos del momento: el jansenismo y el galicanismo. A los 44 años era

un hombre desengañado y maduro en experiencia; tuvo el privilegio de poder escoger el lugar de su retiro, y fue Loyola. Ya para entonces había publicado su Gramática vasca con un título que era un desafío, «El imposible vencido»; en él se refleja toda la capacidad combativa de Larramendi. Alejado del mundo y del bullente ambiente universitario, sin más libros que San Antonio en el desierto, como diría él, su alma se concentró en el pequeño amable mundo de la tierra nativa que contemplaban sus ojos. Se malogró un hombre de cátedra y ciencia, con aptitudes para ser un Masdeu, un Burriel, un Hervás, por no mencionar sino a jesuitas ilustres contemporáneos, y nació un ávido explorador de la tierra guipuzcoana, de su historia y costumbres, de su alma, y sobre todo de su tesoro más antiguo y precioso, el euskera. Larramendi substituyó los libros por la vida, recorrió palmo a palmo Guipúzcoa hablando con sus hombres, buceando en su alma y recogiendo miles de expresiones y noticias que luego engrosarían su célebre Diccionario Trilingüe o su maravillosa Corografía. Una gloria de anchas resonancias fue substituida por otra más recoleta e íntima, más grata. Al Doctor y al Maestro suplantó el popular *Aita Manuel*, Un dinamismo incontenible le sacaba fuera de Loyola para hacer paces, reformar monjas, arreglar pleitos... y a veces para enzarzarse en ellos, como en el caso de la fábrica de anclas de Hernani o en el del enconado debate sobre la cuna de San Martín de la Ascensión. Treinta años largos vivió en Loyola, alternando el trato con papeles, con libros y con hombres. Era orador nato, pero no se sentía con arrestos para ser misionero, porque no se creía suficientemente santo y porque su genio no le ayudaba a componer la figura externa que se estilaba entre aquellos apóstoles de púlpito y del confesonario, a los que Larramendi miraba con algo de envidia y ojeriza. El era sencillamente un hombre; su cultura y su experiencia del mundo acaso lo hacían más comprensivo y tolerante. Era honrado, generoso, trabajador, con sensibilidad para problemas no circunscritos a la pura espiritualidad, franco en su hablar, aunque contenido y hasta respetuoso con los que no eran como él. Hay en él un cierto poso de esa

amargura que acompaña a los incomprensidos; los espirituales lo creían «amigo de fiestas». Y todos valoraban escasamente sus trabajos. Era un solitario, que se consolaba secretamente con los elogios que se tributaban a su obra de gigante en Francia y en Alemania, rumiándolos en su celda. En su tierra, en su propia casa, no los valoraban debidamente, y ponían trabas a la publicación de sus escritos. Triunfaba fuera; no sabían apreciarlo en su Guipúzcoa adormilada. Cuando afirma que la envidia es pecado guipuzcoano, fruto de un mal orgullo, no hace sólo una afirmación impersonal; hay en ello resonancias autobiográficas. Pero él podía pensar como un Don Quijote solitario: ¡Yo ya sé quién soy!

Cardaveraz nació para santo. Ya desde la niñez se advierten en su vida las señales inequívocas de unos destinos providenciales singulares, en forma de gracias e impulsos poco comunes. Ante una virgencita negra que se guardaba en el convento dominico de San Telmo en San Sebastián gustó de los toques de llamadas celestiales cuando se abría a la pubertad. Trasplantado como flor intacta al jardín de la Compañía, se entregó plenamente a las arduas faenas del espíritu y llovieron sobre él esas gracias que nadie puede merecer. Elevado a alturas místicas indudables ya desde estudiante, dirigirá a sus propios directores, como se palpa a través de sus cartas. Estas transformaciones interiores ocultas, no se traslucen al exterior de forma aparatosa. El espíritu es un pozo mucho más insondable que la materia con todos sus misterios; el alma más compleja que el átomo. En ambos casos una apariencia se trasluce a los ojos; la realidad última se esconde a nuestra curiosidad celando su secreto definitivo.

El marco del ministerio de Cardaveraz, una vez concluida su etapa de preparación, es humilde y sencillo. Comienza a enseñar Gramática en Bilbao y más tarde Teología Moral en Oñate. Alternan la enseñanza con la predicación hasta que descubre en ésta su verdadero camino. Cardaveraz se transforma en misionero popular, recorriendo villas de Vizcaya y Guipúzcoa. Contempla desde sus alturas místicas al pueblo rudo y sencillo que se mueve en los valles de una pobre vida cristiana. No pretende elevarlos a

su altura, sino combatir vicios elementales y eternos, con verdades también elementales y eternas. Si en el púlpito era ardiente e inculcaba santo temor de Dios, en el confesonario era paternal y comprensivo. Como medicina para los espíritus llevaba un mensaje nuevo y viejo: la exaltación del amor de Cristo en la devoción a su corazón sagrado. Aún quedan huellas de su paso en las villas donde predicara. Cuando una débil salud le forzó a retirarse a Loyola, las gentes vinieron a buscarle a su retiro y el convirtió Loyola en un centro de irradiación espiritual por medio de los Ejercicios. Para muchos Loyola era el P. Cardaveraz. Se preocupó especialmente de la elevación espiritual de los sacerdotes; pero también cuidó de alentar la vida cristiana matrimonial. Su sitio era el confesonario.

Mendiburu se asemeja en su trayectoria externa a Cardaveraz. Desempeñó su actividad preferentemente en Pamplona. Le tocó enseñar Gramática, Filosofía, Teología. Pero le atraía más el ministerio: el apostolado con jóvenes a los que encaminaba hacia la Congregación de San Luis Gonzaga; el apostolado con los sacerdotes, bendecido por el Prelado iruñés. Y más que nada la cristianización de las masas rurales, de las que él había salido. Su sitio era el púlpito. Desde él sembraba su palabra recia en muchas villas de Navarra y Guipúzcoa. También él predicaba la devoción al Sagrado Corazón y cerró frecuentemente sus misiones con la fundación de la correspondiente Cofradía. Publiqué hace mucho el acta fundacional y el reglamento de la de Deva. Mas para que germinara en su pureza y exigencias esta forma de adhesión profunda a Cristo, era preciso roturar terrenos incultos y pedregosos. Mendiburu, asceta y penitente, tronaba contra los pecados más usuales e inveterados. Es famoso por sus invectivas contra los bailes, acaso extremando las aplicaciones de principios morales. Aquella severidad disgustaba a Larramendi y sobre todo aquella obsesión casi maníaca; reprendía a Mendiburu y hasta le daba lecciones de Teología Moral equilibrada, mezclada con buenas dosis de psicología. Larramendi contemplaba sin espantos las danzas que se celebraban en las plazas públicas a la luz del día y no tiene

empacho en describir la belleza rolliza de las guipuzcoanas. Mendiburu imaginaba las danzas desde lejos, y no sólo las de las horas tranquilas bajo el sol sino las que con menos primores se celebraban en bajos y zaguanes de ventas y pueblos apartados y a la luz de candiles; sabía de danzas... por el confesonario. Probablemente ambos hablaban lenguajes distintos y sobre cosas diferentes, Hay que decir que a la contrafigura sombría que de Mendiburu nos da Larramendi, no se acomoda el afecto popular, y hasta el respeto y aprecio en que le tuvieron figuras tan significativas como el propio Conde de Peñaflorida. El contacto personal con Mendiburu despejaba las sombras de la fama que lo precedía.

Hubo un punto privilegiado de contacto entre nuestros tres hombres: el despertar del cultivo del euskera. El impulsor y el Maestro indiscutible era Larramendi. A él dedica su primera obra euskérica Mendiburu; a él someterá Cardaveraz el manuscrito de un pequeño libro de devoción. Larramendi se siente gozosamente el padre de aquel despertar, que, no hay que olvidarlo, fue impulsado por graves razones pastorales. Cuando Cardaveraz escribe aquella frase profética, diciendo que Dios quiere que el euskera levante su cabeza, piensa primordialmente, como Larramendi y Mendiburu, en salvar almas, en cristianizar una lengua para que sirva de vehículo apropiado y usual del mensaje de Cristo a los hombres y de la respuesta de los euskeldunes a Dios; para predicar y rezar. El euskera floreció e inició su primer renacimiento a la sombra y al servicio de la Iglesia. Tan alta finalidad no pedía menos que la máxima dignificación y perfección posible en el tratamiento de la lengua. El objetivo, a juicio de ellos, no consistía en una exhibición vana de primores lingüísticos, sino en el servicio de un mensaje hondo e intelegible al dueño más auténtico y verdadero de la lengua, al pueblo. Larramendi sería exigente con sus discípulos; tanto, que Cardaveraz, víctima de aquel rigor, le dirá que ante tales exigencias nadie se va a atrever a escribir en euskera y aún le dirigirá un reproche amistoso al pedir a Larramendi que, además de consejos y normas, sea más pródigo en producción literaria. Y no le faltaba razón. Larramendi recogerá

en vida los frutos primiciales de su labor y podrá decir satisfecho un año antes de su muerte: «A lo menos están viendo que después acá se predica la palabra de Dios con fruto, limpieza y decencia, y es lo que no había antes. Ven que ya se habla, se escribe, se imprime en vascuence, y que de esto se me dan a mí las gracias por los instruidos vascongados, franceses y no franceses.» Podía cantar su «Nunc dimittis».

Larramendi murió en 1766. La muerte le ahorró la amargura del destierro y más tarde la de la supresión de la Compañía. En cambio conocieron este amargo trance Cardaveraz y Mendiburu. Cumplieron ejemplarmente el duro veredicto. De Mendiburu, que estaba dando misiones, nos consta que fue traído preso a San Sebastián en auténtico olor de multitud. Tras humillaciones y desventuras sin número, ambos acabaron sus días en Italia. Uno de los primeros fue Cardaveraz, en 1770. Murieron tras él otros guipuzcoanos, como el azpeitiano P. Aztina, el donostiarra P. Domingo Meagher, el hijo de Albistur P. Juan Bautista de Ugarte-mendía, el de Anzuola P. Gaztelu, el antiguo Rector de Loyola P. José Joaquín Mendizabal. Luego el P. Mendiburu (1782), el P. Iraola de Beasain, y los tolos-anos Miner e Ibarzábal. A la agonía de Larramendi asistieron Cardaveraz y Mendizabal. Cardaveraz murió en olor de santidad en Castello de San Juan, cerca de Bolonia, el 18 de octubre de 1770. También fue santa y ejemplar la muerte de Mendiburu el 14 de julio de 1782.

# # #

Larramendi, Mendiburu, Cardaveraz: un sabio jatorra, un asceta, un alto místico. En cuanto los humanos podemos juzgar, el de santidad más elevada fue Cardaveraz. Sólo las circunstancias adversas de la Compañía pueden explicar que no esté en los altares o al menos que no se haya intentado siquiera este refrendo oficial de sus virtudes excelsas. Son tres guipuzcoanos insignes que nadie tiene derecho a arrancar de nuestra tradición, porque los tres a su modo amaron apasionadamente a su tierra, le consagraron el sudor de sus esfuerzos y le dieron lo que estimaron el regalo más precioso: la renovación de su fe cristiana.

# «EUSKERAREN BERRI ONAK» IRAKURTZEN

*Lekuona'tar D. Manuel*

Aita Kardaberatz'ek «EUSKERAREN BERRI ONAK» deritzan liburu bat argitaratu zuan 1761'gn urtean, juxtu-juxtu il baño amar urte leenago.

Liburu oso interesgarria, orduko Euskeraren problematikari buruz alde batetik eta A. Kardaberatz'en beraren Euskerarekiko problematikari buruz, bestetik.

Ez da liburu aundia; zortziurreneko 62 orrialde; gaurko Kristau-kartilla bat añako liburuxka.

Orain 210 urte egindako liburutxo onen guna, muiña, mamia aztertu ta aizatu nai nuke gaur, guztion pozetarako, bañan baita guztion erakusbiderako ere,

## EUSKERAREN PROBLEMATIKAK

Euskeraren problematika aipatu dizuet arestian.

Euskeraren problematika, XVIII gizaldian, Gipuzkoan, idazle-problematika zan.

XVII gizaldian Laburdi'k eta Baxenabar'ek eman zuten idazle-sail eder bat —bear bada, oraindño izan dan ederrena, Axular aundiarekin—.

XVII gizaldian, Bizkaia ta Gipuzkoa esku-utsean zeuden oraindik gai ontan.

XVIII gizaldia, gipuzkoarren txanda izango zan. Eta Jesus'en Lagundiko irukote bikain-bikain bati zorko zitzaion utsune ori betetzea: gure A. Kardaberatz'i eta aren lagun A. Larramendi'ri eta A. Mendiburu'ri.

Bizkaitarrentzat, XIX gizaldia geldituko zan: ots! A. Bartolo Karmeldarrentzat, et A. A. Añibarro ta Uriarte Frantziskotarrentzat, eta Mogel Apaizarentzat.

Benat Detchepare'k «Ialgi adi plazara» esan zion arte, Eus-kerak, idatzi gabetanik, itzetan bakarrik bizi zan, eta indartsu asko bizi ete, etxean eta Elizan. Bañan Etxepare ark dantzarako ta plazarako enbite egin zion unetik, Euskerak plaza berrira, idaz-plazara irten bearra zeukan: idaztea, Euskeraren problematika biurtu zan.

Eliztar batek egin zion, plazarako enbite ura; eta eliztarrak izan ziran, batez ere, enbite ura jaso zutenak. Gure A. Kardaberatz, aietan bat, eta ez makalena.

Bere lenengo jesuita-bizitzan, ogei urtez Mixiolari Euskalerri guzian ibilli ondoren, osasunak laguntzen-ez-eta, bere Agintariak Loyola'ra bil zedilla agindu zioten, emen, San Ignazio'ren «Gogo-jardunak» Ejerzizioak ematen ari zedin, Mixioetan aña neke gabe, baiñan beti ere animen onerako lanean.

Animen onerako, eta Euskeraren bentaja aundi baterako, Loyola'ko egoera artan idatzi bait zuan zenbait Liburu euskeraz: Aita San Ignazioaren Ejerzizioen osagarri, irakurgai sutsu-sutsuak batez ere —lau Liburu bikain—; eta «Ondo iltzen laguntzeko» beste liburutxo bat; eta A. Astete'ren Kristau Doktriña euskeraz; eta «Jesus, Maria ta Jose'ren deboziaz» beste bat; eta Azkoitia'ko «Ama Josefaren» mixtika-bizitza bat; etab.; bañan, batez ere, gaur guk emen aztertu eta jorratu nai degun Liburu txukun, bixi, bitxi, arrigarria: EUSKERAREN BERRI ONAK...

\*\*\*

## LIBURUAREN GIROA

—Zer dakarren Liburu onek? zer girotan dagon egiña?

—Liburuaren giroari bagazokio, gauza bat degu, lenbaitlen eta nai-ta-ez esan bearrik: A. Kardaberatz'en beste liburu guztietatik oso bestelakoa dala bere gaiaz Liburu au. Beste liburuetatik eta bere bizitzako tonika guztitik, oso bestelakoa ta diferentea begiratu baterako, begiratu axal baterako... Baiñan ori, geroxeago ikusiko degu obeto. Orain esan dezagan, zer dakarren? zer liburu-mota dan?

Liburua, bere izaera arruntean, Gramatika-liburu bat da: Gramatika eta Erretorika: Gramatika-apur, eta Erretorika-apur-rago.

A. Agustin'en Gramatikaren teknikaz ez natzaizute luze mintzatuko: bi gauzatxo bakarrik aipatuko dizkitzuet: biak nabarmen xamarrek: bata Morfologiari buruzkoa, eta bestea Ortografían.

Ortografían gagozkiola, auxe bakar-bakarrik: A. Kardaberatz'ek H zearo baztatu zuala; eta ez praktikan bakarrik —bere liburuetan ez erabilliaz— baita teorian ere, letra onen aurka zorrotz mintzatuaz, eta mintzatu ere, ain xuxen, gure Liburu ontan: «EUSKERAREN BERRI ONETAN».

Orra aren itzak, liburuaren 23'gn orrialdean: «Emen, gure Euskeran eta Bizkai'an, *atxe* ori alferrikako edo serbitzen ez duan gauza da... Ken ortik! Gure Euskera suabe, eztizkoarentzat soñu ori ez da.»

Gure A. Agustin'en itz oiek, diruditen baiño garrantzi aundiagoa dute, aren inguruko giroari begiratzen badiogu. A. Kardaberatz'en egunetan oraindik, aren bi lagun, idazle jakintsu-jakintsu, A. Mendiburu ta A. Larramendi'k, oso gutxi, bañan, erabilli erabiltzen zuten H ori: oso itz gutxitan, ale-ale batzuetan, urri benetan: Larramendi'k bi edo irutan {*hitz*, *bihotz* —ez beti— *hau*, *hori*, *hura* —auean ere ez beti—}; eta A. Mendiburu'k ale batzuetan geiago... erdi-illean dagon forma bat bailitzan...

Erdi-illean zegon elementu orri, gure A. Kardaberatz'ek eman zion, Bizkai'an eta Gipuzkoa'n, azken-puntilla esan oi dana, orain

dala berreun-da amar urte. Esan bait liteke Aita ernaniarraren ondotik etorri diran idazle bizkai ta gipuzkoar ia guztiak ernaniarraren legeari jarraiko zaizkiola orain arte... Ortografiari gagozkiola ori.

## MORFOLOGIARI BURUZ

Morfologiari gagozkiola, berriz, beste au, oso arritzekoa. Aita ernaniarrak, bere idazti-lanetan etzuala *bait* partikularik bein bakarrik ere erabili.

Izan ere, ba du Euskerak partikula txiki bat —partikula kausal mee-mee bat— gaztelanian berdin-berdiñik ez duana, latinezko *enim* eta grekozko *gar'en* antzekoa (adibidez: «Judutarrak ez *bait* dute artu-emanik samaritarraikin»; «Non *enim* coutuntur Judaei samaritanis»; «Ou, *gar*, synchroontai Ioudaioi Samaritais»); gaztelaniaz «*Porque* los Judíos no se tratan con los Samaritanos» esaten dan arren, *porque* ori baño askoz matizatuagoa bait da gure partikula *bait* ori.

Orra bada: Bidasoaz beste aldeko idazleak ain ugari erabiltzen zuten, eta Gipuzkoan ere, Beterri-aldean bederenik, itzetik-ortzera erabiltzen dan *bait* elementu ori, gure Aita ernaniarrak ez du bein bakarrik ere bere idaz-lanetan erabiltzen, izketan berak ere txitian-pitian erabiliko zuan arren.

«Arritzekoa» dala, esan det; bañan ez bait da orren arritzekoa. Gauza bera gertatzen zaigu A. Mendiburu'rekin ere. Berdin, baita, A. Larramendi'rekin ere.

A. Larramendi'k, bere Gramatika «El imposible vencido» ez du aipatzen *partícula causal* txiki au, beste ainbeste *partícula* ain zeatz aztertzen duan arren, eta berak ere, bere erritarrakin itzegitekoan *bait* ori itzetik-ortzera erabiliko zuan arren.

Arritzekoagoa bai da gauza au A. Mendiburu'rengan, bera, izkuntzaz, nafarra —oyartzuarra— izanik, eta bere idaz-lanak Nafarroako euskalkian bete-betean egiñak; Nafarroan oso erabillia bait da *bait-forma* ori...

Digresio-ixkintxo polit bat egiteko gai berezia eman lezaiguke gertakari onek. Gauza bat ageri da garbi emen: Idazleetan klasikoetan ez dagola Euskera «guztia». Idazleetan ezin ikasi ditakela Euskeraren izaera betea. Idazleai, izkuntza mintzatuaren detalle asko, eskuartetik igertzeke joan zaiela.

Gaur garrantzi aundia ematen zaio, «Klasikoak» irakurtzeari. Ez dago gaizki. Bear bada, izan degu aldi bat, XVII, XVIII ta XIX gizaldiko gure Klasikoak bazterturik euki izan dituguna, lexiko erdal-kutsuduna zutelako-edo. Orain, berriaz, Idazle zaarren irakurtzeari eman nai diogu garrantzirik aundiena. Ez dago gaizki, bañan, ez degu aaztu bear, gure Klasikoai, Euskera mintzatuaren zenbait detallek iges-egin diela, igertzeke iges-egin. Arestian ikusi degun *bait* ori dago esaten.

Eta ez da arritzekoa alde batetik. Gure Klasikoak, idaztera-koan, beren ideiak erdal-iturrietan edaten zituzten; eta beren Gramatika bera ere, erderazko Gramatiketan —Latin-grekoan— kalkatua egin oi zuten. Eta, erderazko textoetan eta erderazko Gramatikaetan arkitzen etzuten zenbait gure Euskeraren detalleri, etzioten jaramonik, etzioten kasurik egiten. Ori gertatu bide zitzaien Larramendi'ri gure *bait* orrekin.

Itz bitan: Euskera, osorik ikasi nai duanak, Klasikoak irakurriaz gañera, Peru Abarkaren Basarteko Unibertsidadera joan bearra daukala: buru-belarri baserri-baserrian sartu bearra.

Bañan jarrai dezagun aurrera. E. B. Onak irakurtzen.

## KARDABERATZ'EN «EUSKERAREN BERRI ONAK» ETA LARRAMENDI'REN «EL IMPOSIBLE VENCIDO»

Aita Larramendi'ren Gramatika ta Iztegia askotan aipatzen ditu gure A. Kardaberatz'ek bere Liburuan; aipatu eta «goraipatu» ere bai. Jesuíta biok jenioz oso elkarren bestelakoak ziralarik, gure A. Agustin "ek, beti ere, itzal ta maitasun aundiz aipatzen du bere erdi-erritar zuan A. Larramendi. A. Larramendi eta, esan degun bezela, aren bi lan bikain, Gramatika («El imposible vencido») eta Iztegia («Diccionario trilingüe») askotan goraiatzen ditu.

Bañan, dan-a-dala, eta bi lanok gramatikakoak diran arren, gure A. Agustin'en «Euskeraren berri onak» eta A. Larramendi'ren Gramatikak, alde aundia dute alkarren artean: A. Manuel'en Gramatika, erderaz dago; A. Agustin'ena euskeraz...

Ba dirudi, gure ernaniarrak, Euskera edozein jakintza-gaitarako, edozein erdera bezain egokia dala, praktikan eta ibillian erakutsi nai ziela, bere denborako euskaldunai. Ez du ortarako luze idazten; bañan bai, bere elburu ortara iristeko naikoa, Euskeraren egokitasun ori edozeini sinistarazteko, alegia. Gero ikusiko degu obeto, ortarako zenbait detalle. Eta ontatik aterako degu, Liburua-ren tonika, beti ere «APOLOJI-TONIKA» dala; Euskera goratu...

Aren garaitsuan izan zan beste norbait ere, ta bera baño leenago, bide ortatik ibilli zanik: Sara'ko Joanes Etcheberri, Azkoitia'ko mediku izana, bere «Euskararen atsapenak» eta «Lau-urdiri Go mendiozko karta gutuna» deritzan liburuan; liburu ortan latinez ikasteko metodo bat ematen bait du, dana, asi-ta-buka, euskeraz egiña, erderarik jakin gabe latine ikastekoa... Eta gure aitagutuzen zuan nunbait, eta aipatzen ere du, ain zuzen, itxuraz, Etcheberri onen metodo ori.

## KARDABERATZ ETA ETCHEBERRI BIAK

Gauden, beraz, ontan, gure Aita Kardaberatz'en liburu bitxi oni buruz: liburu apologetikoa dala: Euskeraren aldeko liburu apologetiko bero-beroa: gure Aitak Euskerari zion maitasun aundiaren agiri bikaña. Eta aren Apologetikaren aria ta muña, ontan dagola: Euskera edozein erdera bezain gai dala edozein erakus-gai argi ta errex erabiltzeko. Eta ori, praktikan erakusten duala: ots! Aita Larramendi'k erderaz ematen duan Euskeraren Gramatika, berak euskeraz emanaz: Gramatika eta Erretorika —laburki, bañan euskera ederrean... eta asarrerikan gabe.

«Asarrerikan gabe» diot. Izan bait zan, ura baño leenago ta Sara'koa baño ere leenago, beste Joanes de Etcheberri bat, Ziburuko apaiza, Euskeraren edertasunak erderaz goraiatzuten zituz-

telako euskaldun idazle zenbait arbuyatzen ta mendratzen zituana. Ikus Etcheberri onek, gure Garibai eta Echabe'ri buruz idatzi zuan bertsoa:

Burlatzen naiz Garibaiez,  
bai halaber Etchabez,  
zeiñek mintzatzen baitire  
erdaraz euskaldunez.

Ezen, ziranez geroztik  
euskaldunek hek biak,  
eskaraz behar zituzten  
egin bere historiak.

Garibai ori, ba dakizute, mondragoarra zan; eta bera izan zan, XVI gizaldian, Espaiñi guztiko lenengo Historia batua idatzi zuana, ots! «Compendio historial de todos los Reinos de España», iru tomo aunditan; eta ortaz gañera euskerazko errepiñ-bilduma interesgarria; bañan, erderaz.

Baltasar de Echabe zumayarrak, berriz, Euskeraren Apologi txiki bat idatzi zuan, izen onen-pean: «Discurso de la antigüedad de la lengua cántabra bascongada».

Ziburuko Etcheberri onek iru otoitz-liburu argitaldu zituan, irurak euskeraz, eta irurak bertsotan, bata, batez ere, oso errikoi egina zana, «Noelak» izenekoa, bere egunetan eta gero ere asko aldiz argitaldua.

Ikusten danez, Etcheberri ziburutarra ta gure Kardaberatz, ari berean dabilta: biok euskeraz idazten dute, beste askok ez bezela; bañan ziburutarrak aserre, besteak berak bezela egiten ez dutelako; gureak, berriz, aserrerikan gabe, eredu ixil bezela, itzikan gabeko xpillu mutu bezela, A. Larramendi'rentzat beraren-tzat ere: bere Gramatika eta Erretorika-saioak euskera ederrean idatziaz...

Ziburu'ko Etcheberri'k gaizki ikusten zuan, Etxabe'k eta Euskeraren beste apolojeta zenbaitzuek beren opoloji-gaiak erderaz erabiltzea, Euskeraren artarako gaitasuna teoriarantz aitortuaz, bafian praktikan ukatuaz. Bañan gure A. Agustin'ek, A. Larramendi'ren

ariera ez du arbuyatzen. Ontan dira alkarrengandik oso bestelakoak, Ziburu'koa eta Ernani'koa. Ernaniarrak aitortzen zuan nunbait, gure gauzak erderaz ere erabiltzea ondo zegona. Bañan... berak praktikan beste bidea entsaiatzen du. Sarako Joanes Etcheberri'rena.

Dana dala, gure A. Kardaberatz'en entsaioa, oso ondo etorri zan orduan, eta ondo etorri da orain ere guztiontzat. Olako entsaioai eskerrak, gaur esan dezakegu, ez dala jakintza-gairik, gaurko egunean euskeraz entsaiatu ez danik. Gure A. Ernaniarra izan zitzaigun aurrelari bide ortan: aurrelari, aitzindari, bide-austalle.

## «ETXEKO BERRIAK»

A. Larramendi'ren gure Kardaberatz'enganako «zera» aipatu degun ezkerro, sakon dezagun gauza au puxka bat geiago.

A. Larramendi'k, nere erritar A. Mendiburu oyartzuarrari «Oyartzun'go basurdea» esaten omen-zion. Gauza jakiña da, bi jesuita aundi aiek, Euskalerriko dantzaen gañetik elkarrekin oso aserre ibiltzen zirana. A. Mendiburu, dantza-mota guztien etsai amorratu, eta A. Larramendi Euskalerriko dantzaen apolojeta bero. Ortatik sortu bide zan basurde-kontu ori. Bañan esan dezagun garbi: A. andoaindarrak oyartzuarrarentzat erabiltzen zuan neurria guk berari ezarriko bagenio, «Andoain'go zakarrondo» —edo beste zerbait olako— esan bearko genioke berari.

Ala izan bide zan, izan ere-ta, zakarrondo, batez ere gure A. Agustin'entzat.

Gure A. Agustin'ek euskeratutako A. Astete'ren Kristau-Doktriñarentzako iritzia —teologo-iritzia— eskatu zitzaion noiz-pait nunbait; eta... dakitenak diotenez, A. Larramendi'k «asto beltxarenak» esan zituan bere iritzi-deskarguan, A. Agustin'en lanarentzat. —Bear bada, umoretzar-aldiren batean eman zioten enkargu ura—. Dana dala, A. Kardaberatz'ek min aundia artu bide zuan iritzi zorrotz arekin, eta baita berak bere deskargua eman ere bere Agintarien aurrean, gauzari zegokion bezela. Orregatik

diogu, Aita andoindarrari egoki zegokiola, berak besteri «basurde» esatea bezela, bestek berari «zakarrondo» esatea.

Bañan ziranak zirala aien aserreak, gure A. Agustin'ek etzion orregatik betiko asarrerik gorde A. Larramendi'ri. Kontrara baizik.

Begira gure Liburuaren VI Kapítulotik artuta aren itzak; ezin bait litezke adiskidekorragoak izan:

«Orain Euskeraren Gramatika ederra ikustera, goazen —dio, A. Andoaindarraren Gramatikari buruz—. Munduak ikusi duen mirari aundi edo marabilla guztizkoetatik bat, dudarik gabe, Arte au da (ots: Larramendi'ren «El imposible vencido», alegia). Onek, ez gizonen, ezpada Aingeruen beargaia zirudien; eta orain egiñik ikusi ta alare «ezin ditekeana» dirudi. Jainkoaren milagrozkko obra bezala da. Ta Libru au eskuetan iñoiz ere artzen ez det (ta askotan artzen ta irakurtzen det, ta geiago ta obeto, al banu, nai nuke) miretsi ta Jainkoa akbatu gabe. Berari milla esker, zeren Aita Larramendi'ri berezkirozko bear ziran argi andiak eman ziozkan, Gramatikak dituen bazter guziak ondo barrendu eta bere Arte preziosoan euskaldunai agertzeko. Lan andi onetan, ez gizon baten, ezpada askoren burnigita edo muellerik sendoenak eten, urratu ta desegin zitezkean. —Alabantza guzien ganeko ta neke guzien eragiñen ta izugarrien au ondo ezagutzeko, Gramatikaren parte ta erregladi guzien berri ondo jakin bear da». Eta ola jarraitzen du laudoriozko izkuntza beroan gure A. Agustin'ek.

Itz oietatik argi ageri, bait da, guk dioguna: ernaniarrak etziola betiko aserrerik gorde andoaindarrari, bere zakarrerengatik.

Dana dala, eta «joanak joan», aizkenik A. Larramendi'k bere eriotzako orduan etzuan arkitu gure A. Agustin bezelako laguntzallerik ordu estu artarako. A. Agustin'en besoetan eman zuan bere azken-arnasa Loyola'n, 1766'gn urtean, gure ernaniarraren santutasunari aitormen ura egin naiez bear bada, lengo zakarrerien ordañetan.

# # #

Eta orain, A. Mendiburu, ere aipatu degun ezker, aurrera jarraitu baño len, konpara ditzagun elkarrekin, Jesus'en Biotzaren Apostolu biok, oyartzuarra eta ernaniarra, eta ikusi zertan ziran elkarren antzeko eta zertan ez, A. Agustin eta A. Sebastian.

Biok euskal-idazle gotorrek izan genituan; biok Jesus'en Biotzaren jaieraren —orduan oraindik jaiera berriaren— zabdtzalle ta Apostolu langille, asper-gaitz, Euskalerra guztik zear; biok euskal-sermoilari bikañenetakoak —A. Mendiburu'ri «Zizeron euskalduna» esaten bait zioten—: A. Mendiburu, Nafarroa'n batez ere, eta Gipuzkoa'n; A. Kardaberatz, Gipuzkoa'n, bañan batez ere Bizkaian, Araba'n ere bere saioak egiten zituala. Gureak amalau bat liburu labur bezela, oyartzuarrak gutxiago, bañan askoz luzeagoak argitaldu zituan: «Jesus'en Biotzaren debozioa» batez ere, eta bere «Otoitz-gai» luze ta zabal, ots aundikoak: 11 tomo zortziurreneko... Biok, idazle oparoak.

Lañaren tonikari bagagozkio, guretzat ernaniarra bioztunago genduan; oyartzuarra burudunago, zerebralago. Biok «izlari»; ernaniarra beroago, oyartzuarra apañago, eleganteago; bañan biok itz-jario errex ta oparo.

## KARDABERATZ'EN ERRETORIKA

Bañan goazen orain, leen aipatu degun puntu garrantzitsu ura ukitzera.

Gure A. Agustin'ek —esan dizuet— amalau bat liburu ditu argitaratuak, guztira; eta amalautatik amairu —egoki ere itxuraz ala zan-da— amalautatik amairu jaungoiko-gaiezkoak. Bestalde, bere bizitzaz ere, etzan ura nolanaiko jaungoikozkoa, mistiko goren-gorenkoa baizik, guztiok ezagutzen dezuten «Los ardores de un serafín» liburu galantatik ondotox dakizuten bezela.

Zer gogokaldik eman zion, beraz, gure A. Agustin'i, Lovola'ko ezku mistikoan bizi zalarik, Aita San Ignazio'ren «Gogo-

-iñarkun» Ejerzizioak eman-ta-eman ari zan artean, zer gogoddik bultzatu zuan —zer?-ta— Gramatikan ta Erretorikari buruz liburu polit bat euskeraz idaztera? Tentazio txarren bat sentitu al zuan? Bere mistika-bizitzan xabar-aldíren bat izan al zuan?

Ikustagun gauza astiro.

Meza eman-berritan, Bilbao'ra bidali zuten, ango Ikastolan Gramatika ta Erretorika erakustera. Urte aietan bere baitan pentsatu edo amets-egin zezakean, noizpait, nunbait, gauza aiek berak euskeraz erakutsi zitazakeala. Ez dakigu; baiñan, nola-nai dala, Bilbao'ko erakusketa ark, seguru asko sakonerazi zizkion Gramatikaren eta Erretorikaren legeak, edozein izkuntzetan txukun ta garbi erakusteko lain. Gero, Larramendi'ren «El imposible vendido o Arte de la Lengua Vascongada» argitalduta ikusteak, idiki zion nunbait, berak ere gai ontan zerbait egiteko gogo.

Baiñan, beti ere, gure A. Agustín'en liburuon tonika ta bere izaera ezagutzen dutenai, arrigarri egiten zaie, bere Loyola'ko ordu barrukoia, olako lan batean —Literatura entretenigarri lan batean— ordu aiek eman izana. Batez ere, bere Erretorikaren eredu ta ejemplo bezela Liburuak 40'gn orrialdean dakarren troxu ironiko irritsua ikusi-ta.

Izan ere, ikusi besterik ez dezute, «berezko» Erretorikaren eredu bezela, an datozen bi troxuak —lenengoa batez ere, arako «gatz eta piperdun» donostiar «errekardari» garbosaren itz-jario bixi-bixia.

Ara:

«Andre donostiarraren Erretorika. —Beste errekarari asko oi dabiltzan bezela, au, batetik bestera, bere gauzak saltzen edo tratuan zebillen. Erri batean, ala bearrez, galai gazte batekin topatu zan; eta, ikusita ezagutu zuaneko, abegor txit gozo ta agasajo txit andiak egiten asi zitzaion:

—Ai! au enkontrua! «Ziña ta bedeika! » Au galaia! au joia preziatua! auxe, bai, gure Donostia'ko semea degula! ... Onela beste milla edertasun, gazte orri esan ziozkan.»

Baiñan garbo orrekin, mutillaren alderdi onak esan ondoren, orra orain txanponaren beste aldea, lengoa bezain garboz betea:

«Arako, beren tratu-gauzetara etorri ziranean, orra non gure galaiak eskeiñi txarren bat egin zion, eta bear etzan moduren bat erre kardariari erakutsi (Zirri pixkaren bat, seguru asko. A. Agustin'ek garbi ez dion arren) eta biak aserratu ziran, eta tortilla goitik bera irauli, eta andrearen beletak jira-buelta arin eman, ta gaztearen kontra biurtu... Besoak gerrian ifini, ta desaire guziak esaten asi zitzaion:

«Nene jende onak! zer ikusi bear ote degu? zer eskeiñi degu au, eta nork egin digu?

» Oni begira! au nongoa ote degu? onen patxadan begira!

» Ea! ken orpoetatik. «koartoa bosteko estampa! » ken gure begietatik! Ez gurí beintzat, orrelakorik! »

Eta orain, ironía ta humorezko troxu bat emen:

«Au nor degu? Gu español puru-puruak; au nongoa dan ez dakigu. Gure aita ta ama frantsesak ziran; bañan gu español garbiak, San Bizente'ko pontean bateatuak: jende onak...

» Au zer degu? ken ortik!

»Ai! au kontua! deabruak ikusi du golillarekin astoa.»

Olakoxe kabriola ta ostikada batekin bukatzen du gure A. Agustin'ek bere erre kardari donostiarraren erretorika-troxu bixi-bixia.

Bañan, arrigarria! Ironia ta kabriolaz beste, andre donostiarraren erretorika ber-bera erabiltzen du gure A. Agustin'ek bere beste liburuetan ere: «San Ignazio'ren Ejerzizioetan» adibidez.

Ikus, berak «Eriotzaren ganeko ejerzizioan» dakarren troxu au:

«Ah! lurreko andi edo altu-nai aizezko utsak! non zerate?

» Ah! munduko aberats pobreak! non dira ondasunak?  
 » Ah! atsegin loien ondoren, lau-oñekoen gisan, arrastaka zabiltzatenak! non dira zuen atsegin nekezkoak?  
 » Ai! zer ordua au! Au da mundua serbitzea? ainbeste dolore ta nekerekin, lurreko gauzen ondoren ibilli, ta orien pagua ori da?  
 » Oh, eriotza! eriotza! zein gauza samiña, latza ta garratza dan, zu begien aurrean ikustea! »

Olakoxe erretorika, sermolari-erretorika, erabiltzen du, bi troxu oietan berdin. Irakurlearekin jardurio zorrotzean, apostrofe bizi-bizian. Zenbait Retorikako tropoz ere egoki baliatuaz: «Aberats pobreak», «atsegin nekezkoak»; «gauza latza ta garratza», «zendo ta ondo», «ai, au larria! ta larrua ere utzi bear», zure osasun, ondasun, edertasun, indar ta beste doaiak»... Olakoxe erretorika-puxketaz ondotxo baliatuaz. Eta berdin bere liburu bi oietan: «Euskeraren berri onetan» eta areago, bear bada, oraindik, «San Ignazioaren Ejerzizioetan»,

Bañan bioen artean bai bait da beste bestelakotasun nabarmen-nabarmen bat: San Ignazio'ren Ejerzizioetan —bear ere baita— Jaungoikozko gauzak darabilzkiala; eta «Euskeraren berri onetan», berriz, Euskeraren bentajak... Eta ontatik orain, berriz ere, gure leengo galdera: —Zer gertatu da bion-bitarte ortan? gure A. Agustin jaungoiko-zale zoratua, *jetxi* egin al da bere liburu bitxi ontan? eratxi egin al du bere tonika, bere betiko tonika? zerutikan lurrerañoko erorkadaren bat egin al digu gure liburu ontan?

—Ez, inolaz ere! Batzuek-bezain-beste, aren liburuak tonika ta malla ber-berekoak ditugu; batzuek-bezain-beste, guztiok jainkotiarrak, alaxe zegokion-da egillearen bizitza jainkotiar-jainkotiarri, eta, gai ontan batez ere, ala zegokion aren biotzeko Apostolu-gar bizi-biziari.

Ikustagun.

## A. KARDABERATZ BETI-BERA

Arte-gaietan, «*el arte por el arte*» esan oi dan ariera bat dagon bezela, egon liteke, baita, «*la Retórica por la Retórica*» esan dezakegun zerbait ere: «Erretorika Erretorikogatik: ots! zerbait eskribitzalleren, artifiziozko su polit uts batzuek, ipurtargi batzuek, alegia, idaz-lanetan...

Gure Apostolu ernankrra, erretorikalari bortitza zan arren, etzan eskribitzalle utsal oietakoa. Aren Erretorika, etzan, ezta urrik eman ere, Erretorika «bere baitan bildua, kiribillatua». A. Agustin'en Erretorikak gora jotzen zuan beti, zerura, bere biotz-biotzeko Jaunarengana: bere gauza guztietan bezela, baita «Euskeraren berri on aietan» ere.

Ikustagun.

Garbi-garbi agiri da ori, liburuaren azalean bertan. Apaizai eskeintzen die, batez ere, bere erregali polit au, Apaizak beren predikuetan artaz balia ditezen, beren eliz-itzaldiak gero-ta jasoa-goak, apañagoak, biozkorragoak, gero-ta jatorragoak egin ditzaten. Apaizai eskeintzen die; eta baita Maisu Jaunai ere, liburuaren azalak berak dionez (1).

Baïan gauza onen adierazgarririk argiena, arako liburuaren barruan, 64'gn orrialdean datorren esaera gogoangarri-gogoangarri ura da: «ASKOREN ANIMAR SALBATZEKO, EUSKARAK BURUA JASOTZEA JAINKOAK NAI DU». Entzun dezute: EUSKARAK BURUA JASO, ASKOREN ANIMAK SALBATZEKO. Euskera aoan, zerua gogoan...

Ikusten degun bezela, guzti ontan ez dago *el arte por el arte-tik*.; «Erretorikarik Erretorikagatik»; dana Jaungoikoagatik. Gure A. Agustin, beti bera izan zan: betiko gizon jainkotiar: bai bere sermoietan, bai bere A. San Ignazio'ren ejerzizioetan; bai bere «Euskeraren berri onetan».

(1) «Cura Jaun, ta Escola-Maisu celoso ai».

## SANTU KARISMATTKOAREN «BERRI ONA»

Baňan, Jainkoaren naiarekiko kontu ori ikutu degun ezkeror, sakon dezagun azkenik gauza au apur bat geiago.

Gure euskaltzaletasunarentzako gauza pozkarria da benetan, olako gizon batek, ez praktikan bere burua euskaltzale azaldu bakarrik, ortaz gañera, teorian are bere zaletasun ori aitortu izana; eta aitortu, ikusi degun mallaraño: «EUSKERAK BURUA JA-SOTZEA JAINKOAK NAI DU» garbi-garbi esateraño. Ez bait da edozein bat, olako esate pozkarriak esaten dizkiguna; gizon «karrsmatiko» bat baizik, gaur esan oi dan bezela: gizon karismatiko bat, Jaunak bere karismaz seňalatu ta nabarmendu izan duan bere kutunetako bat baizik. Eta, itz-egiten duanean, gañera, bai bait dirudi Jaunaren beraren izenean eta Profeta-antzo mintzatzzen zaigula ere. Begira zer dion, itz pozkarri aien ondoren: «Gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, Euskerak iraungo du». Eta Euskararen bizi-bide orri Elizaren Kateketikan eta Homiletikan euskarri sendo bat ipiňi maiez-edo, itz auek ganeratzen bait ditu: «Jaungoikoaren borondate jakiña da, Aren Fede ta Legeko Misterio eskutatu ta Dotriña salbatzeko bear dana, Sazerdote Jauen Ministerio Sagraduetan, euskaraz baizik emen egin eta esan bear ez *dala*».

*Orra*, beraz, gure Aita Kardaberatz'en egitarau ta programa, gauza auei buruz: Jaungoiko-zale, Jaungoiko-zale izatea; baňan Jaungoiko-zale zalako, ta Jaungoikoaren beraren aginduz, euskaltzale, eta ez nolnaiko: bere Euskera maitearen Apologeta bero ta suar izateraño, apur bat aztertu degun Liburua testigu,



## ELIZIGIZONAK EUSKAL LITERATURAN

Bi zati bere-gisako ditu lan onek. Lenengoan, Aita Kardaberaz'en omenezkoa baita, aren euskaltzaletasuna aipatuko degu, naiz ta arinki ta azal xamarretik; bigarreanean, ordea, euskai literaturan esku artu duten eliz gizonen zerrenda bat —ez osoa, ezta askotaz ere— emango degu.

### I

#### AITA KARDABERAZ, EUSKALTZALE

Eder zaigu —nork ukatu?— gizakume ospetsuen jaio ta il urte-urrenak gogoratu ta txalotzea. Dezagun ola oraingoan ere. Kardaberaz'en eriotzetiko bigarren eun urteburua degu; 1770'gko urrillaren 18'an, an Bolonia (Italia) ondoko Castel San Giovanni erritxoan il zitzaigun, Euskalerritik urruti. Bere gorpua, erri artako eliz nagusian apaizentzat zeukaten obian ipiñi zuten; geroago, 1794'an, eliz bertako Frantzisko Jabier donearen kapillara aldatu zuten; eta azkenez, 1908'gko maiatzaren 2'an, Loiola'ra.

Mixiolari sutsu ta euskal idazle jatorra genduan Aita Kardaberaz, eta lendik ere, ezta arritzekoa, onako jaiak izanak ditu.

Oindiño oraintsu, Bilbao'n, esaterako, izlari bikain ark San Anton elizan, 1733'garren urtean, Espaiña'n Jesus'en Biotzari buruz len-dabizi egiñiko itzaldia —euskeraz zigurren— ementxe izan zala-ta, esker ona erakutsi nairik, 1957'an San Anton'go elizpeko orman arri luzanga bat jarri zan, idazpuru onekin: «J. H. S. En esta iglesia parroquial de San Antonio Abad, predicó el P. Agustín de Cardaveraz, S. J. (1703-1770) el 11 de junio de 1733 el primer sermón en España sobre el Sagrado Corazón de Jesús. A.M.D.G.»

Bilbao'n etzan luzaro bizi izan. Alere, Ander deunaren Ikas-tetxean gramatika irakasten zegolarik, bere giza-jokabide gozoz guztiz ezaguna egin zan. Izlari bezela saio bikaiñak zegizkin, eta oso txalotuak ziran bere iganderoko itzaldiak, baita or-emen eman ten zitun mixio ta gogo-jardunak ere. Irurogei bat eman omen zituan Bilbao'n. Aipatu deguna, au da, Kristo'ren Biotz gurgarria-tzazkoa, Korpuzti zortzigarren egunean zan, Bilbo'ko jairik aundien barruan.

Urte aietako Euskalerrri osoak ikusi zuen, beti kementsu, Kristo'ren fede-azia ereiten. Etzun geldi egoterik, eta ainbat on ekarri zion euskal gogoari. 1767'an, Karlos III'garrenak, Jesus'en Lagundia Espaiña'tik botatzea erabaki zuen; eta arrezkero, iru urtez, or ibilli zitzaugun alderrai. Azkenik, erbesteratua, Balonia ondoan il zan, bere Euskalerrri maitera begira. Zeinbat olako ez ote da izan euskal apaiz eta prailleen artean? Erriarenganako maitasunez urte ta arnasik onenak eman ondoren, zenbait alditan ibilli bear izan dute, odol-jario!

## ERRIARI KULTURA ESKEINKA

Aita Kardaberaz'ek badu beste alderdi eder bat ere. Etzun erlijio alorrean bakarrik kn egin, garai artako beste apaiz eta praille askoren antzera. XVIII'garren mendeko euskal idazle ja-torren artean —Larramendi, Mendiburu, Ubillos ta abar— ezta bere irudia txiki gelditzen. Liburu asko idatzi zitun, gipuzkeraz geienak eta banaka batzuk bizkaieraz; batzuk jatorrak eta beste

batzuk itzuliak; batzuk erlijiozkoak eta, euskerari ta Euskalerriari buruzkoak, beste batzuk. Amazortzi bat ditugu guztiz, batzuk sarritan argitaratuak. Auek bera bizi zala, ta aiek Aita Arana'ren arduraz argitara emanak.

Naitaez aitortu bear degu: ugaria ta ederra izan zan Aita Kardaberaz'en lana. Sorburu ona duen iturriak berez ematen ura. Orixe gerta zitzaion ernanitar argiari ere. Barne-muiña zeukan jakituriz ta Jainko-sugarrez ornitua, ta euskal arimetan piztazi nai zuen ardura ta kezka ori. Norbere ardura ta barne-griña besteai atxiki ta lot-eraztea ez al degu egiaz mixiolari danaren jomuga? Kezka sortu ingurumari, Jainkoa ta erria maitatzen erakutsi giza-semeari. Urduri ta kezka! Kristok dio; «Ez naiz pakea ekartzera etorri, sua ta gerra baizik». Au opa zuen Kardaberaz'ek: berak biotzean zuena besteai ere barne-barne sartu.

Eta guzti au aurrera aterateko, bere amaren altzoan ikasi zuen izkuntza erabilli zuen aspertu gabe. Erderak ba-zeukan orduan ere gure artean indar pixkat, uri nagusietan baitik bat. Baiña euskaldun sail galanta zan oraindik guraso ta aitonengandik zetorkien euskera besterik ez zekiana. Auek ere janaria bear zuten, goi-bizigarri egokia bear zuten; orren bearrez bait-zeuden euskaldunak. Ortarako asmatu zitun, et atz sotillez osatu, ainbat liburu txukun, *Esku-liburua* deritzaiona ta, maiz argitara emanak. Aita Dutari, 1710'an Iruña'n jaioa, mixiolari bipilla zan, eta onek erderaz egiñiko *Vida Christiana*, Kardaberaz'ek euskeraz ipiñi zuen, eta argitaratu (1744); liburu oso egoki zetorrena, dudarik gabe, euskaldunak bear zuen azkurirako. Etzan ale txikia ere, 238 orrialde bait zitun, amabirenean,

Amazortzigarren mendean euskal idazle gutxi ezagutzen ditugu: Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos ta besteren batzuk. Auek alere mende ori ederki bete zuten. Jakituriz tontor, eta santutasunez ere, Kardaberaz ta Mendiburu beintzat, Jainko-zale bero-beroak, Euskalerrri osoa, itxas-orratza iparralderantza lez, Jaungoikoarantza begira ikusi nai zutenak ditugu. Aita Kardaberaz'!, erriz erri Kristo'ren erreinua azaltzen asi zanetik, «jendetza talde andiak jarraitzen zioten, eta elizetan kabitu eziñik, zelai edo

plaza zabaletan bere itzaldiak egin bear izaten zituan. Bera ikustea naikoa zan, pekatuen damu ta penitentzira jendeak mugitzeko; bada padezitzen zituan eritasunak eta zeramakien penitentzizko bizitza zala bide, azal eta ezur-uts biurtua zegoen», diosku A, Kardaberaz'en *Berri Laburrak* deritzan idaztiak.

Kultura eman nai zion erriari, Jainkozko kultura batez ere, Kristo'ren mezu ta mandatua baztarrak zear zabaldu bear duen egiazko mixiolariak, berak barruan duena erriari ere itsatsi nairik, beti billatu bear duen kultura. Barneko gatz eta gjar ori, ots, kultura ori, gaiñera, euskeraz emango zion ark euskeraz mintzatzen zan euskal erriari. Ta gaztetan Ernani'n ikasian orrazketa batzuk egiñik, naikoa euskera ona degu berak erabilli zuena, bai liburu-etan eta bai Jainkoaren Itza aldarrikatzerakoan.

## AITA KARDABERAZ, EUSKERA ERAKUSLE

Euskera gaia ere etzun saiets utzi nai izan. Onetzaz berak idatzitako liburuia —*Euskeraren Berri Onak*—, liburu jakingarria degunez gero, naiz ta zerbait luzatu, ua aipatzea on derizkiot. Zergatik eta zein asmorekin idatzi zuen, berak azaltzen digu ederki, ta ortik atera dezakegunez, liburu au idaztean ere, etzan ez bere arima-arazotik irtenda ibilli.

Gaztetan Kardaberaz, Bilbao'n eta Iruña'n, aur eta gaztetxoan irakasle izana degu; beraz, ezta arritzekoa gramatika bat, euskal gramatikaren azi-orraziak idaztea. Titulua onela du: «Euskeraren Berri Onak, eta ondo eskribitzeko, ondo irakurteko ta ondo itzegiteko erreglak». Norentzat egiña? Kura jaun ta eskola maisuentzat; ez umeentzako, bakarrik. 1761'an argitara zuen Iruña'n. Askotan irarkolara emana izan da, gerora ere; lau aldiz bai beintzat: 1) Iruñean, 1761'an; 2) «Euskalzale» aldizkariak (Bilbao), 1897'an; 3) Tolosa'n, 1896'an, eta 4) *Auspoa*'k 1964'an. Ezta, ba, nolanaiko lana.

Asmo au zuen ardatz. Kintiliano'k, ogei urtez gramatika, erretorika ta olakoak erriari erakutsi ondoren, azkenik bere adiskide

Marzelo'ren semea zegokionez azitzeko amabi liburu idatzi ba'zitan, zergatik etzuen berak ere olako zerbait egingo? Ark mundurako ondo azitzeagatik, ainbat arau, lege ta ikasgai banaka azaldu zitun; eta «guk gure Jaungoiko guzien Aita maiteagatik eta animen salbazioagatik, zer ez degu egin bear? A! Batetik bestera asko dijoa! Gure intenzioaren aldean arenak zer ikusi etzuen. Ark lurrerako, guk zerurako: ark giza arterako, guk Aingeru arteko umeak ondo azitzea nai degu; eta guzia, ez guretzat, baizik Jainkoaren gloriarako izan dedin» (Itzaurrean).

Latina ta griego-a dira, berak diñoanez, munduko izkuntzarik zabalenak; bi oietan idatzi dute zein erri-jakintsuak zein eliz-jakintsuak. Asko ta ederki idatzi ere. Etxepare'k zuen kezka du ernanitarrek ere, barne-muiñean ozka. Bertatik darrai: «Gure euskerak bazter oietan orrelako gizaseme andien patu onik izan eztu. Baña latin ta griegoak asko-jakiñen ditxa ta gloria ori izan badute, bere modura marabilla txikiago ezta, baizik miragarritzko prodijio andiago, euskera, soil-soil, bakarrik edo nik eztakit nola, bizirik ainbeste sekuletan egon dan ta dagoen: ain berez ta beregan, ain argi ta garbi, bere erio ta arerio guzien damu gorri gaixtoan badere.»

Ondoren, gure izkuntza ere, barru ta kanpo etsai bildurgarritz inguratua egonagatik, bearrezko degul-a dio. Zertarako? Ona bere itzak, santu batek esanak: «Gure pobretxo on askoren animak salbatzeko, euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du.» Euskerak, ba, Jainkoaren itzala du gain, ta Ark nai du bizi dedin. Baiña gure laguntza pitiña efe nai du. Ta Ark nai arren, guk laguntzen ezipadiogu, gure zabarkeriz ilko zaigu. Aita Kardaberaz'ek: «Gure baserrietan jende prestuak dirauten artean, euskerak iraungo du. Esan oi dena: oiei lepoa ebaki edo bizia kendu gabe, euskera ezin utzi edo kendu diteke.» Zer esango ote luke gaur? Berak ain maite zitun baserriak baserritar gabe, ta beeko uri ta errixkak erdeldunez beterik ikusita, nola mintzatuko ote litzakigu?

Ezaguna da Jainkoak naia. Aren fedea ta legeko ezkutuak zabal tzeko, eliz-gizon-ak, beren elizkizunetan, euskeraz baizik ez dute egin bear. Garai artako apaiz eta prailleak ba-zituzten nunbait

beren aitzaki, txutxu ta akiakuluak euskera ordeztu erdera, edo-ta zentzu aundi gabeko izkera erabiltzeko. Gaur-egunean ere gisa ortako zerbait gertatu izan da; «ez degu libururik», «ez dakigu nola jokatu», ta antzeko aiko-maikoetan matasatuak gera. Baiña orain, dio Kardaberaz'ek, ezta olakorik; orain, zorionez, ba-ditugu liburuak. Eta emen, izarretaraiño jasotzen du A. Larramendi'ren lana. «Aita Manuel Larramendik —dio—, neke gogor ta estudio esan al baño andiagorekin, ezin izango ta ezin egingo zana bere artean egiñik, eziñak ta nekeak lazki garaitu zituen, ta ori ta bere iztegia, maisuak bezala, eman dizkigu» {*Auspoa*, 37 alea, 64'garren orrialdean).

Noiznai izan dira, ta izango ere, nagikeriaren sarepe errez eroriak. Egia esan, askotxo dira ortik, edozein gramatikan azal xamarretik ukutu leun bat egiñaz, euskera errotik ikasita daukatele uste dutenak. Edu ortakoen kontra au idazten du A. Kardaberaz'ek: «A baño —dio norbaitek—, euskerak naiagatik latin edo gaztelaniaren itzegiteko eleganzia edo edertasun ta erretorika edo elokuenziarik berez ez du! Ola, adiskide, oriek ere baditugu? Ai gizagaxoa! Zer diozu? Gaitzak eragin al dizu? Ala fede, zer gaitz andiagorik, jakiñ-ez itsua baño? Ignorantzia edo jakiñ-ez triste onetan euskaldun asko arkitzen dira, ta orrek gañez eragin ta itsu-itsuan zer dioten ere ez dakite» {*Auspoa*, 37 alea, 98 orrialdean).

Iñorena obe! Iritzi ontakoak ez dira gutxi: eder, errez, ugariegoa. Euskerak, ala ta guzti ere, —itz, esaldi ta galdera— norbere arnas berotan erabilli ezkerok, badu bere edertasuna, enparau izkuntzak aiñakoa izan ere. Irakur euskal idazle zarretan: Axular, Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos, Etxahun, Elizanburu, Grazian Adema, J. A. Mogel, Añibarro, Astarloa, Prai Bartolome, M. Zabalá, Lardizabal, Uriarte, Arrue, ta abar;' irakur gaurkoetan: Txomin Agirre, Azkue, Kirikiño, Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Eguskitza, Olabidea, Larreko, Manterola, Ibargutxi, Otxolua, ta abar. Beren izkuntzak ditun zizka-mizka guztien berri zekiten auek; etzuten beraz, egundo ere, latin naiz griegoaren inbidirik izan.

## II

### ELIZ-GIZONAK EUSKAL LITERATURAN MENDEZ MENDE

Au da nere laNaren gai. Natorren, *beraz*, zear-mearka ibiltzean utzirik, nere egitekoaren guna aizatzeraz,

Eliz-gizonak —galdezka diot— nola ta nolako neurrian artu ote ziguten esku euskal literaturaren barrutian? Arnas aundiko, ala motel? Nola zuzendu ote zuten euskaldunen kontzientzia? Bide egokiz, ala biurriz? Atzokoak ez ditugu galdera auek, gaurkoak ere bai. Aldikada ontan, edozein gai ta jokabide ta pertsona jarri oi degu darda gaiñean, demokraziaren izenean astiñaldi ederrak emanik. Zuzen eta egoki zaigu, beraz, galdera aueri alik eta argien erantzuna ezartzea. Orrek digu erakutsiko ondoren gure izlari edo maxiolari askok, elburu onez bear bada, nolako zentzungabekeriak botatzen dituzten pitean, eta nola geratzen diran len bezin potolo, batere lotsagorritu gabe.

Alperrekoa deritzait eliz-gizonak euskal arloan egiña duten lana ta euki duten eragiña, izugarria izan dala adibidez indar-aazi bearra. Eztago zertan, agerikoa da-ta. Iriki ezazute edozein euskal literatura kondaira, naiz Mitxelena'rena naiz A. Villasante'rena, naiz nire *Milla euskal olerki eder* liburua; ta euneko larogei, edo geiago, eliz-gizonak dituzu. Orrela izan dira, ta gaur ere, gero ikusiko degunez, orrela gaituzu. Penagarri zait au esatea; millaka ta millaka erri-gizon gura nituke, ba, euskal alorrean, jo ta ke lanari emanak. Betoiz gazte bulartsu asko, naiz atxerekin naiz atxe gabe, uzta-sail ugari ontara.

Alere, eskatu didate-ta, arrotu dezagun pixkat sail au, iñor mintzeko asmorik gabe. Ta lojika pixkatekin izan dedin, mendeka ikusiko degu eliz gizonok euskal elerti zear izan duten eragiña, ots, gure literaturari erantsi dioten dizdira.

### XVI'GARREN MENDEA

Aurretik ere, kantu, esaera, atsotitz ta onako asko zirala, gizaldi onen erdirantza, au da, 1545'rantza asten da gure litera-

turaren berarizko ixtoria. Urte ortan egiña degu euskeraz idatzitako lenengo liburuaren argitalpena. Ari-eginiñik uzten ba'gaitu ere, egia da; egun oietara arte ez genduan liburu idatzirik. Irarkola, egia esan, eun bat urte lenago asmatua zan, eta geldiro xamar sartuaz zijoan or-emen. Orduan latin eta griego ziran Europa'n kulturazko izkuntzak, eta oietan *hartzen zitan* libururik geienak. Lendibizi argitaratuak: Gutenberg'en *Idazteuna*, Bergili, Kikeron, Aristotel, Platón eta abar, Xvi'garren mendearen asieran; geroago zabaldu zan argitaratzeko era berri ori Frantzia'ra, Espaiña'ra ta beste laterrietara.

Orduantxe, inprenta asmatzean, sortu zan, len eskuz idatziak baiño etziran lanak ain ederki azalduta ikustean, elerti-ikaste (humanismu) griña beroa, Europa'ko bazter guztietan sortu ere. Orduantxe ospatu zan Trento'ko Eliz-batzarra (1545'tik 1563'ra), munduari ta Elizari ainbat mesede ekarri zizkiena. Ordukoxe degu munduko literaturaren birloratze izugarria. Ta esan dezagun eze-ren lotsarik gabe: euskal literaturak ere onduantxe izan zitun bi gizon jakintsu, mugaz aruzkoak biak: Etxepare ta Leizarraga.

Beñat Etxepare, Donibane-Garazi'tik iru kilometrura dagon Eihara-larre erritxuko erretore degu. Liburu bat idatzi du, bertsoz bera. Nok? Zergatik? Olerkari da; badu gitarra, badu arnasa. Al-boko izkuntzak loratzen ikustean, berak ere euskera jaso nai du. Esan zun: «Heuskara, ialgi adi plazara.» Ta inprentara eraman zuen bere lana, «zeren ladin publika mundu guztietara berze lengoajiak bezala hain skribatzeko hon dela». Euskaldunak ola, bes-teen pareko, izango zuten zerbait beren izkuntza, irarkolan emana, «plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora iragaiteko».

Eta gisa ortan, Etxepare'n liburuak bere mailla iritxi zuen. Ezin dezakegu iñolaz ere ukatu, aren bertsoak asmo ederrez egi-ñak diranik.

# # #

Leizarraga Beraskoitze'koa degu sortzez. Naparroa'ko erre-giña Juana Albret'en aginduz, *Jesus Christ gure Jaunaren Testa-mentu Berria* itzuli zuen euskerara; protestantea berau. 1567'ga-

rrean, Labastide-Clairence'ko erretore, kalbindarra, izendatu zuten ta bertan bizitu zan eriotzararte. Idazle bezela, garbi, dotore ta moduzkoa degu. Ta arazo berdiñean oni lagundu zioten Tartas eta Landetxeberri zuberotarrak ere, apaizak genitun. Leizarraga'ren beste bi liburuxka: *Kalendrera* ta *Abc edo Christinoen instructio-ne*. Irurak urte berean La Rochela'n (1571) argitaratu ziran.

## XVII'GARREN MENDEA

Amaseigarren gizaldiak ikusi zitun bereak Europa guztian, baiña Prantzia'n bereziki. Ostelari ta protestanteak txibita erabilli zuten, bazterrak oro iñarrosi ta asalatu bearrez. XVII'garrean, ordea, erlijio-kezka garaitua zan nunbait, eta pake izpiak zegiten argi. Literatura usan urre printzez agiri zan eguzkia, bai mugaz andik bai emendik. Gurean ere bai.

Axular'en (1556-1644) garaian gaude. Norentzat ezta ezagun idazle argi au? Sara'n erretore zegola liburu bat osatu zuen: *Gero*. Azkar darabil luma, ta bertatik dariona zeatza, sakona, argia ta euskal arnasaz betea dezu. Bost bider argitaratua izan da: 1643'an lenengoz, eta 1964'an azkenik, euskeraz ta erderaz.

Alere —ta nola ez?— idazlari jator onen inguruan ba-dira beste batzuk ere, aitzin-gibel. Aita Esteban Materre prantziskotarrak, esate baterako, bere *Dotrina Christiana* (1617) argitaratu zuen; Ziburu'ko Joannes Etxeberri'k bere *Manual Debozonezkoa* (1627), *No-elak* (1631) ta *Elizara erabiltzeko liburua* (1636); Aita prantziskotar Joannes Haranburu'k bere *Debozino Eskuarra* (1635); Ziburu'ko erretore-lagun P. Argaignarats'ek, bere *Abisu ta Exortazionea probetxosak bekatorearentzat* (1641) ta *Deboten breviarioa* (1656); Sivain Pouvreau'k, bere *Guiristinoaren Dotrina* (1656), *Vhilothea* (1664) ta *Gudu Espirituala* (1665); Bernardo Gasteluzar jesulagunak, bere *Egia Katolikak* (1686); Sara'ko izlari Kristobal Harizmendi'k, *Ama Birginaren hirur Ofizioak* (1660); Juan Tartas'ek, Arue'ko erretore izanak, *Onsa hiltzeko bidia* (1666); Ziburu'ko erretore Aranbillaga'k, *Jesus Christoren*

*Imitazionea* (1684); Atanasío Belapeire'k, *Katexima laburra* (1696).

Bidasoa'z emendik etzan loratze aundirik izan amazpigarren gizaldi guztian. Beriain'go Juan, Iruña'tik 17 kilometrora dagon Uterga'ko arimazai izan zanak, bi liburuxka idatzi zitun euskeraz ta erderaz; bata *Tratado de cómo se ha de oír Misa* (1621) ta bestea *Doktrina Kristiana* (1626); Mañari'ko seme ta bertako parroku Martin Otxoa Kapanaga'k, euskeraz ta erderaz onek ere, *Exposición breve de la doctrina chistiana* (1656), eta bilbotar Rafael Mikoleta apaizak, *Modo breve de aprender la lengua vizcaína* (1653).

## XVIII'GARREN MENDEA

Itxas-olatuak jeiki ta eratxi dabiltzan bezela, gure literatura ere lege berean ibillia degu gizaldietan barna. Amazazpigarrenean, Lapurdi'n, Baxe-nabarre'n eta Zuberoa'n, idazle mordoa ikusi degu luma-zorrotz. Amazortzigarren ontan, berriz, gutxi baizik ez ditugu mugaz andik; len andik zetorkigun argia laiñotan sartua degu noski, ta, alderantziz, emengoak asi zaigu iñar-jaurtika, egun-sentitik itxaropentsuena iragarriaz. Onen zergatia? Geienetan erri arteko gerra, aitu-ezin eta iraultzak izan oi dira gainbeira erortze oien iturri. Frantziko matxiñadak (1789) kalte aundia ekarri zion Euskalerrian, baita 1794'an Frantzia ta Espaiña'ren arteko guda-teak ere. Begira: oso ixillik egonak gera gu ere, geure egunetan, anai arteko guda (1936) ondorengo ia ogetabost urteetan. Ezta miresgarri, beraz, egun aietako ixilla.

Nolanai ere ezin genezake esan, biribilki beintzat, besoak gurutzetuta iraun zutenik mugaz bestaldeko euskal idazleak. Joannes Etxeberri, Sara'koa —osagille ta Oihenart'ekin bigarren erri-gizona euskal literaturan— asko ta ederki idatzia degu.

Eliz-idazleen artean auek aipatu ditzakegu: Donibane Lohizune'ko Pierre Urte, kaputxinoa; Azkaine'ko seme Mikel Txurio; Joanes Haradener, *Filotea* (1749), *Gudu izpirituala* (1750) ta, argitaratu ez arren, *Testamentu Berria* osorik euskeratuta utzi zigu-

na; Ustaritze'ko erretore Bernardo Larregi, *Testamentu zaharrezko eta berriko Historio*, bi aletan (1775 ta 1777), argitaratu zue-na; Andres Baratzart, Ustaritze'ko erretora, *Guiristinoki bizi-tzeko eta hiltzeko moldea* (1784) utzi ziguna. Ta gisa ortan beste idazle ta liburuxka garrantzi gutxiagoko batzuk.

Axular'en aldian Auñamendi'z andik ezagutu zan literatura garatze joria, emengo aldean asi zitzaigun Larramendi'ren denbo-ran. Biok, edo obeki, bai angoak bai emengoak, eragin gogorra izan dute gure idazlanen artean. Ezin dezakegu esan, inundik ere, ua ohea izan zitzaigula ta bestea kaltegarriagoa: egia zabal-zabal aitortu nai ba'degu, biak izan zaizkigu oso mesedegarri. Etzebil-tzan bide berdiñetik, baiña etziran aurkakoak ere. Axular'ek bere *Gero* joriakin oso astindu zuen iparraldeko giroa; Larramendi'k, ordea, bere iztegi ta gramatikarekin, eguerdi-aldekoa. Biak dituzte —ukatu eziña da— alderdi onak eta akatsak. Gaur Axular jarri nai degu eredu-aulkian. Baiña azken iru gizaldiotako literaturari begiak zorrotzu ezkeru, Axular'ek baiño naikoa mesede geiago egin izan dio Larramendi'k euskal arazoari. Axular'gatik, bear bada, era berean jarraituko zuen euskerak mugaz andik; baiña emengo ixurkian, Larramendi'ren indarra ta itzala izan ezpalira, emengo euskerearena egiña zegon aintziña xamar. Axular'ek etzuen es-natu gaurko euskal kontzientzia, Larramendi'k eta aren ondoren-goak baiño.

Zer edo zerk beartuta idatzi zituen Larramendi'k bere bi li-buruak: «Eziña egiña» ta «Iztegia». Kardaberaz oso latz mintza-tzen da, bere *Berri Onak* liburuan, aurreko ta orduko euskal idaz-le askotaz. Etzekiten gramatikalik, etzekiten euskeraren joskera ta olakorik. Urte aietan Dotriña asko biurtu zituzten euskerara; ona batzuk: Ordizia'ko Otxoa-Arin'ena (1713); Durango'ko Mar-tin Arzadun apaizarena (1731); Eleizalde aita jesuitarena (1735); Ernialde'n erretore izan zan Juan Irazusta'rena (1742); Xabier Lariz'ena (1757); Bartolome Olaetxea, Laukariz'ko parroku izan zanarena (1775), eta izen barik argitaratutako beste mordoxka bat. Itzulpen auek etzaizkion atsegin Aita Kardaberaz'i, naiz ta bera ere orretan aria izan.

Bestalde, Aita Larramendi'k egiñiko lana eder zaio guztiz. «Kristau Dotrinaren erretorika» deritzan atzalburuan goi-goi jarzen du, aren iztegia ta gramatika gogora ekarriaz. «Gaberdi illun batean —dio— ta arantzaz alde guztietatik beterikako bide batean bezala, euskara edo euskaldunak zebiltzan: ta A. Larramendi, berari bakarrik zegokion ausardi justuaz, beargai edo irteziñ onetan sartu zan. Gizon baten ezeze, askoren diña zan egitekorik gaitzen onetan, berariazko ta berezkirozko Jaungoikoaren argi ta doai gabe, Aita Manuel! berari esan diodan bezala, ez berak ta ez bestek ezin gauz onik egingo zuen. Alere, bere edadearen lotean guzia benzitu ta guzia egin zuen» {*Auspoa*, 37 alea, 111 orrialdean).

Lan ori etzuen burutu, berriz, munduko aintza ta ospe-min *zalako*. Ez orixe! Larramendi'k uste zuen, Kardaberaz'en aburuz, izkera txukun, errez garbia erabillirik, aintza geiago ematen ziola Jaunari, ta arimak ere, bidenabar, mintzo eder, sutsu ta taxiuzkoan izanik, errezago Jainkoaren federa makurtu oi dirala. Ernaitarrak darrai: «Esan nai det, bein ta berriz berak dion bezala, Jaungoikoaren onrari ta animen onari begiratzen ziola, eta ori aren neke guzien asken fin eta koroa izan zala: gure Jainkoaren lengoaje bizi bakar au animen salbaziorako landu ta polikitzea: onetan bere alegiñaz alegindu zan, ta Jaunaren dotriña ta legea bear bezala erakusteko bide zuzen segurua berak agertu ta argitu zuen» {*Ib.*, 112 orrialdean).

Orduko apaizak ba-zuten nun ikasi euskerazko dotriñak eta liburuak egoki, belatz, oparotsu ta atsegingarri idazteko. Itzulpenak egiterakoan, ona zer eskatzen zuen A. Kardaberaz'ek. «Latin edo gaztelaniatik euskerara biurtu nai bada —dio— ori ondo biurtzeko edo traduzio onaren legeak gorde bear dira: eta ez itzak berak, ezpada oriek esan nai dutena, edo orien sentidua ondo pisa tu, ta euskeraz nola ondo esango dan kontuz konsideratu, ta ori eskribitu bear da. Beste izkerak bezala, gureak ere bere itzaldi egoki txit biziak, berezko ta berariazko ederrak ditu. Baña erdarak era batera, ta euskerak bestera» {*Ib.*, 120 orrialdean).

Zer atera emetik? Idazle zar eta bernetan zer aztatu, pisatu bear degun. Maiz esana, ta entzuna: autore zaharrak gauz onik asko dituztela, gramatika ta aditz-joko aldetik batez ere. Auek erritik jaso zuten beren izkera. Baiña emen, ez uste, ezta guztia gari ona: nork eta nola jasotzen duen kontuan euki bear da. Erdel-kutsu ixaukorra ta gramatikaz uts ikaragarriak eukita ere, zarrak diralako, ezta aien guztia argarri. Autore zarrak, danok daki-gunez, puntu ederrak dituzte, baita akats galantak ere. Guk au egin bear degu: akatsak utzi ta edertasunak jaso. Aiek errian ikasi zutela? Gaur ere ba-degu ortarako abagune ta era onik, nai baldin ba'degu ikasi: oraindik ba-dira gure baserri ixilletan euskal joskera ederrez itz egiten dutenak; ba-dira or zear esaldi panpots ta aditz-joku jatorrik jatorrena —naiz itanoz, naiz gizatsuz— darabilenak. Kardaberaz'en arrenkura etzan erdel itzengatik; garai artako modaren mendeko, bera ere etzan makala ortan.

#### Aita Manuel Larramendi (1690-1766)

Andoaindar argi onek lan asko osatu zituen. Baiña iru auek beiñenak: 1) *El Imposible Vencido* (1729); 2) *Diccionario trilingüe* (1745), ta 3) *Corografía de Guipúzcoa* (1882). Erderaz dagoz iru liburuok. Lenengoa euskal gramatika degu, ta irugarrena, Gipuzkoa'ko oitura ta gauzak dirdirazteko egin zuen saio bat. Iztegia da ederrena, makiña bat istillu ta eztabaida sortu zituna. Euskeraz etzuen zer aundirik idatzi, baiña idatzi zuena taiuz ta errikoi. Iztegia, etsai muturrean emateko edo egiña, itz errikoiz barik, beraz asmaturikoz bete, zigun. Orrek, jakiña, indarra kenezazten dio.

Alarik ere, naiz-ta gramatika ez, bere iztegia izan zan arlo ortan lenengoz lurra aitzurtu zuena; Larramendi'ren aurretik etzuen iñork olako lanik burutu, lan txikiren batzuk, Landuchio'-rena ta esaera zarren batzuk izan ezik. Gerozkoan biribildu diran iztegi guztiak ura izan dute oiñarri; Pedro Novia Salcedo'k, Aizkibel'ek, Azkue'k, Hiribarren'ek, Harriet'ek, Bera ta Lopez-Mendizabal'ek, Arbelaitz'ek, Lhande'k, Lafitte'k, Muxika'k, Aúfia-

mendi'k, Araneder'ek, Tournier'ek, Ekin'ek, eginñiko lanak, Larramendi'ri begira egiñak dira. Ortan ere, ba, iñork izatekotan, badu ark gandortu zioa.

#### Aita Agustin Kardaberaz (1703-1770)

Aipatua degu A. Kardaberaz, baiña esan dezagun zerbait geiago oraindik. Egia esan, merezi du, kaizu bikaiñeko gizona degu-ta, Orrengain esku artean degun liburu au berari eskeiña degu, ernanitar mixiolari santua goretsi ta dagokion aintza-esertokian jartzeko egiña.

XVIII'garren mende barruko euskal literatura lau aita jesulagunek betetzen dute osoro: Kristo'ren fedea aldarrikatzen erriz erri, iñoiz aspertu gabe, ibilli zan Aita Agustin Basterretxea (1700-1761) lekeitiarrak, Larramendi'k, Kardaberaz'ek eta Mendiburu'k. Ezagunak ziran laurok, eta alkar maite. Larramendi zuten maixu, Kardaberaz'ek maiz dioskunez. Aoz ta lumaz, nekatu gabeko arazoari loturik bizi izan ziran, mende erdiz beintzat; Beste asko ere aien oin-errestuen jarrai joango ziran noski baiño noskiago, Espaiña'ko errege zan Karlos III'garrenak, beren etxe ta lurraldeetatik aterazi ezpalitu.

Adi oni ere. Geure iritzi ta burutapenak —auek giarrak diranean, besteak beste— lagun urkoak ere oien berri izan eta aintzat artu ditzatela nai izaten degu. Kardaberaz'ek, urte betez beintzat, Teología irakatsi zuen Oñati'ko Ikastetxe nagusian; irakasle lagun zuen orduan Aita Bernardo Recio ere, jaiotzez Aleajos (Valladolid) erritxokoa: onek ere euskeraz ikasi zuen ernanitarrek lagunduta. Larramendi'ren gramatika goratuaz, A. Kardaberaz'ek onela: «Orregatik ain laster ta ain erraz euskera A. B. Recio batek ikasi zuen» {*Auspoa*, 37 alea, 110 orrialdean).

Baita adi oni ere, ta berau genduan Kardaberaz'en kezka larrinetakoa. Garai artan eliz-gizonak ziran geien ikasten zutenak; beren eskola ta ikastetxeak zituzten, eta erri xeak baiño goragoko ikasketak osotzen. Baiña ikasketa oiek osorik erderaz —latiñez, prantsesez eta espaiñeraz— egiten zituzten. Gaztetatik, beraz, eus-

kal-izaerari agur egiñik, erdel gogoa artzen zuten. Gaur ere, naiz-ta zerbait gutxiago dala, berdin gertatzen da. Kalte ikaragarri, egitan, gu guztiontzat. Indarrez bezela erdel-kulturaz jabetzen gera, berezkoa genduana maiz osorik galduaz. Ta gero, idaztean, ez degu euskeraz pentsatzen, ez gera euskeraz mintzatzen, erdel-itx, esaera ta joskeraz baizik. Euskal-idazleak, ortik, jator ta euskal-gogoz idatzi nai ba'du, bere gogapen eta esan-nai guztiak nola euskal-izaera barruan adierazi jakin bear du; ta, idaztean, agiazko kemenez ortan saiatu. Ezinbesteko bidea degu au ziñez euskal idazle izateko.

#### **Aita Sebastian Mendiburu (1708-1782)**

Euskalerri osoan makiña bat itzaldi egiña da A. Mendiburu. Oitzun'go semea. Lenengo gramatika ta gero Filosofia ta Teología erakutsi zitun Iruña'n, ogeitamar bat urtez. Azkenez, aberritik egotzia, Bolonia'n il zan.

Liburu auek idatzi zitun: 1) *Jesusen Bihotzaren Debozioa* (1747); 2) *Jesusen Amore-nekeei dagozten zenbait otoitz-gai* (1759-1760), ta 3) *Euskaldun onaren biziera* (1762). Ba-zeuzkan oraindik beste lan batzuk ere, baiña etzitun argitara eman al izan: orduan ere, ba, beaztoporik naiko izaten zan euskal liburuak azaltzeko. Pixkat astun iruditzen zaigula ere, oiartzuar auxa degu, askoren iritzitan, Axular'en ostean, euskal idazlaririk jatorrenetarikoa. *Orix*e zanak onela: «Axular'en ondo-ondoan beintzat tokia merezi du.» Urdazubi'koak euskera ugaria du; oiartzuarrak, ordea, garbi, errez ta beteagoa. Naparroa garaikoa darabil geienez; ba-daki zer-esana biribiltzeko itzak aukeratzen, baita gure mintzairak eskatzen duen joskera bizi, jori ta ixurkorra erabilten ere.

#### **Aita Juan Antonio Ubillos (1707-1789)**

Amasa'n jaio ta Arantzazu'n il zan prantziskotar au. Scoto'-ren filosofi pentsakerari buruz iru ale idatzi zitun latíñez. Eta euskeraz: *Kristau doktriñ berri-ekarlea* (1785).

Ez Mendiburu'k eta Axular'ek bezin garaitik, baiña bere erara, erri-izkeran, ulerkor, garbi ta aberats idazten saiatu zitzaigun. Izkelgi bati lotu egi ere etzan ibilli: aditza, bere jokaldi guztietan, trebeki darabil, ta or-emen esaera txukunak ereiten ditu. Ainitz irakurria zan nunbait, bizkaierazko, naparrerazko ta lapurdierazko itzak sarri nasteen baititu sartzen. Euskera ona du; ta iru bider argia ikusi du bere *Kristau Dotriñak*, Tolosa'n (1785), Bilbao'n (1897) eta berriz Tolosa'n (1909).

## XIX'GARREN MENDEA

Bizi jaiki oi da ekaitz ondorengo eguzkia. Orrelaxe giza-izpiritua ere: azpiratua baldin ba'dago, etzaio eder iñoren mende egoterik. Aurreko gizaldian, gerra ta nasteak zirala-ta, euskai elertia, Gipuzkoa'n ezik, eroria ta ixillik zegoen. Baiña eragipen baikor bat sortua zan; ujol antzera bultzatuko du onek, eta ainbat zergati bide dirala, emeretzigarren mendea, bene-benetan, guztiz mesedegarri izango da euskal literaturarentzat. Orduantxe jaio ziran liburu ta aldizkari ederrak: Bidasoa'z andik eta emendik idazle sail gotorra agertu zan. Baiona'n *Eskualduna* asterokoa sortu zun Hiriart-Urruty'k, Alberbide, Adema, Joanntegi, Barbier eta beste batzuk lagun zitula; Bilbao'n Azkue'k *Euskaltzale* amabosterokoa, Txomin Agirre, Kirikiño, Arrese, Iñarra, Kanpion, Iriondo, Unamunzaga, Madinabeitia ta gaiñerakoen arnasaz; eta Donostia'n *Euskalerrria* argitara eman zuen Jose Manterola'k, ainbat euskaltzale Donostiar —Soroa, Bilintx, Artolatarrak, Baroja, Altzaga, Lopez Alen, Arzak, eta abar— eusgarri zitularik.

Orrez gain, lenengoetan ezin ditzakegu ixillik utzi: Martin Duhalde'ren *Meditazioneak* (1809); Hasparne'n mixiolari ta Baiona'n bikario izan zan Haranburu'ren *Egun ona* (1829); Azkaine'ko seme Martin Hiribarren'en *Eskaldunak* (1853); Haltsu'ko seme Maurizio Harriet'en *Testament Berria* (1855); Frantzisko Lapitz'en *Bi saindu heskualden bizia* (1867); Manuel Intxauspe zuberotarraren *Jínkouak gizonareki egin patoak* (1851), *Egiatzko*

*erreligionea* (1883), *Maria Birjiñaren hilabetia* (1896), ta *Kantika saintiak* (1897); Mikel Elizanburu *sallestarraren Zer izan diren eta zer diren oraino Framazonak* (1890); Esteban Lapeixe'n *Kredo edo Sinhesten dut Esplikatua* (1891); J. P. A. Arbelbide'ren *Bokazionea edo Jainkoaren Deia* (1887), *Heren Ordrea* (1890), *Er-lisionea* (1890) ta *Igandea Jaunaren eguna* (1895); B. Joannategi beneditarraren *Ehun bat Sainduen bizitzea* (1879, *Zerurako biderik errexena* (1888), *San Benoaten bizitzea* (1887), *Sainduen bizitzea* 1890), *Bihotz sakratuaren hilabeteko esku-liburua* (1891), ta *Sainduen bizitzea* (2'garren zati, 1900); Grazian Adema'ren olerki sorta... Hiriart-Urruty'k suztatzen zitun guzti auek, bere aldizkariaren ingurumari.

Egoalderuntz, berriz, idazle mordoa daukagu aipaturiko bi gizaldi auen bizkarrean arrelepo. Mogel, Astarloa, Añibbarri, Prai Bartolome, Zabala, Uriarte, Lardizabal ta enparauen garaia degu. Lar ez luzatzeko, beren liburu batzuk, naiz-ta banaka, aipatu besterik ez degu emen egingo. Bijoaz aldikoak aldian.

### **José Inazio Gerriko (1740-1824)**

Apaiza. Segura'n jaio ta Mutiloa'n illa. Buru argiko gizona; euskaltzale sutsu ta izlari erne. Bere liburu aundi sakona: *Kristau Doktriña guztiaren esplikazioaren Saiakera*; 1805'garreneruntz idatziz zuen, baiña etzan argitara atera 1858'rarte. Zer zala-ta? Orduko agintedunen baimenik ezagatik, ezpaitzioten eman nai lan guztia erderara itzultzen ezpa-zuen.

Goierriko euskeraz dago. Aditzean trebetasuna du; itz jatorrak eta esakun biziak ere tarteka ereiten ba-daki, egoki asko.

### **Juan Bautista Agirre (1742-1823)**

Asteasu'koa. Bertako erretore zala il zan. Bere lanak: 1) *Konfesioko eta Komunioko Sákramentuen gañean Erakusaldiak* (1803), 2) *...Erakusaldiak* (iru ale, 1850), bera ilda gero argitaratuak.

Lenengo batez ere, Gipuzkoa'n oso irakurria, ta irutan beintzat argitara emana.

Emeretzigarren mendeko gipuztar idazleetan oberena dala diote. Ona «Orixe»-k: «Agirre'k anima gauzetan ederki ari izan zuen euskera. Moral-gaietan ere euskeraren landa zabaldu zigun. Idaz-tankera argia, izkera erreza, garbia, irakurgarriagoa ta maitagarriago dena. Euskeraz ere ikasia zen eta laphurtarren jario apurra duela emaiten du: argitasunean beintzat bai».

#### **Juan Antonio Mogel Urkiza (1745-1804)**

Urteetan Markiña'n, Xemein'go erretore, bizi izan arren, eibartarra genduan. Orduko euskaltzaleakin ar-eman beroa euki zuen, Humboldt doixtarrarekin baitik bat. Euskeraz ta erderaz ari izan zan. Ona euskerazko batzuen izenak: 1) *Konfesio ta Komunioko SAkramentuen gañean Erakasteak* (1800), *Konfesino ona* (1803), *Kristinauaren jakinide*, (edo Astete euskeraz, sarritan argitaldua), *Peru Abarka* (1881), *Vaskal'en Gogamenak* (1899). Orixe'k dio: «Bizkaia'n ez ezik Euskalerrian argitara dan libururik ederrena da *Peru Abarka*».

#### **Joakin Lizarraga (1745-1835]**

Lenengo jesuita. Ta gero, Jesus'en Lagundia egotzia izan zane-tik, Elkano, Iruña'tik urbil dagoen erritxoko apez aita, irurogei urtetan. Liburuok idatzi zizkigun: 1) *Urteko igande guzietarako Platikak edo Itzaldiak* (1846), 2) Bonaparte'k argitara zitun *Koplak* (1868), eta 3) *Jesus-Kristoren Ebangelio sandua Juan'ek dakarren gisara* (1868),

Naparroa'n, luze ta zabal, sail aundian len erabilli ta gaur illik daukagun napar-garai aldeko euskeran idazten du: beti ugari ta zoztor gabe. A. Irigarai'k onela: «Bere joskerak erderatiko kutsu bat badu, bainan oso aberatsa du bestalde berboaren itzuli-tan, itzetan eta esakeretan ere». Napar idazleen artean, beste guztiak baiño geiago idatzu zuen. Gaur egunean, oraindik, jakin-garri da aren izkera, izkuntzalarientzat batez ere.

### **Pedro Antonio Añibarro (1748-1830)**

Arratia'ko ibarrean, Billaro'n jaio zan prantziskotar jakintsu au. Gerra ta liskar ba-zan egun aietan zalapartarik. Aita jainko-zale onek, ala ere, Zarautz'eko komentua guda-oin lez zuela, onik naikoa ekarri zion euskal erriari, bere itzaldi sutsu ta gogo-jardun aspergabeakin.

Euskal idazle genduan gero. Ona idatzi zitun lan batzuk: 1) *Esku liburua* (1802); 2) *Lora-Sorta Espirituala* (1803); 3) *Kurutze Santearen, Aita Gure ta Ave Marien ganeko Erakusaldiak* (1879); 4) *Geroko Gero* (bizkaieraz, RIEV, 1923); eta argitaldu gabe: 1) *Misionari Euskalduna*; 2) *Nekea arindurik*; 3) *Lau Ebangelioak* eta 4) *Artzai-adibideak*. Eratsu, garbi ta errikoia da darabilen euskera.

### **Aita Pedro Astarloa (1751-1821)**

Ama markina'ra zuen arren, Durango'n jaio zan Pedro Astarloa; baita beronen anai Paulo Pedro (1752-1806) ere, Tabira'ko kapellau ta euskaltzale porrokatua, *Apología de la Lengua Bascongada* (1803) ta *Gramática y análisis razonada de la Euskara* (1883) idatzi zituna.

Frantziskotarra. Kantauri'ko probintziako Aita nagusiaren aolkulari izan zan; baita gero, bertoko Aita nagusi ere. Agintaritzak etzion, dirudienez, euskeraz idaztea debekatzen. Orrela utzi zizkigun ale bitan: *Urteko Domeka gustijetarako berbaldi ikasbidekuak* (1816 ta 1818).

Etorri ugariko euskera darabil, beti ain garbi ta jatorra ez pada ere. Erderakada batzuk gorabera etzion axolik. Mogel eta Prai Bartolome'k bezela, Markina aldeko izkeran dagizki bere jardunak.

### **Prai Bartolome Madariaga (1768-1835)**

Markina-Etxebarria'ko seme. Karmeldar. Izlari ospetsu. Markina'n karmeldar jantzia artu, Lazkau'n latina ta abar ikasi ta, azkenik, Iruña'n eta Tudela'n amaitu zitun bera ikasketa nagusiak.

Karmeldar Ordenan, lenango, orretarako aukeratzen zituzten batzuk ziran bakar-bakarrik izlari, predikadore. Oietakoa zan Prai Bartolo. Ta amaika itzaldi eder egiña genduan, erririk erri, Bizkaia'n, Gipuzkoa'n eta Nabarra'n. 1809'tik, gorriak ere ikusi bear izan zitun, prantses gerratea zala-ta.

Bere oar-ikasiak liburu auetan batez ere ixuri zizkigun: 1) *Euskal errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba* (1816); 2) *Ikasikizunak* (iru aletan, 1816, 1817 ta 1819), eta 3) sermoe pillo aundia argitaratu gabe. Etzitun erdel itzak arbuizatzen; esaera berezko, argi aberatsa dauko; lits eta nabardura askokua: esan nai duena euskal jasez esaten ba-daki, alajaiña! «Orix»-k, «nire idazle zar kutun» deitzen dio.

Ba-zuen ark euskera garbitu, txukundu ta dotoretu naia. Larramendi'ren girokoa noski. Prai Bartolo'k, naiz-ta oso-osoan ezin, erdel kutsua astindu gura zuen beregandik, itzk eta esaerak eta joskerak euskal arnasaz bizkorturik. Ar bere iritzia, Ikasikizunen itzaurrean aragitu ziguna: «Berbería imiñi dot —dio— neure errikua... Esan batzuk imiñi ditut gogo bagarik, geure euskerazko berbeeta nausi, maite, zaar, gaztetu, gozo, prestu, ugarira geure erruz erbesteti etorrijak. Euskera berez aberatsa da, bagenki ondo. Geuk eleiza-gizonok berba askotan naastu ta ezaindu dogu euskeria... Geuri entzunda dakiez baserritarrak «Jaungoiko Omnipotentia... Poderosua... Birgina Klementísima... Mandamentubak... Absolutinoia... Doloria... Errestituzinoa...» Ta beste onako berba euskal gaiztoko asko. Erdera ez dakien euskaldunak, euren etxeetan ta artu emonetan biar daben guztia esaten dabe euskera garbian. Kristiñautzako ikasian dira euskaldun gaiztuak. Ez da au euskeriaren errua, ezbada geuria.»

Itz garratzak! Salatariak! Eliz-gizonok —ez ukatu— ba-degu emen «damu det» esan bearra. Alegin pixkat ez egitearren, zenbat erderakada funtsik gabeko geron liburu ta itzaldietan! Prai Bartolo'k aipatzen ditun itzok erre-erre esan litezkenak dira euskera garbian, eta erriak obeto ulertzen ditunak. Erdel itz andana ederra, eunetik larogeti ba'liteke, eliz gizonok sartuak. Noiz jokatuko degu bestera?

Jose Krutz Etxeberria (1773-1853)

Oiartzuarra. Eliz-izlari Zarautz'eko komentuan. Gipuzkoa'n eta Naparroa'n nekatu gabe ibillia. Napoleón Bonaparte'ren garaian bereak ikusi ta jasan bear izan zituan, ara ta ona bai zuten erabili.

Ona bere, euskal liburu batzuk: 1) *Deboziosko bizitzerako sarrera* (1821); 2) *Kristau Doktriña euskeraz* (1822); 3) *Ongi bizitzeko ta ongi iltzeko laguntza* (1824), eta 4) *Jesusen Imitazio-ko... liburuba* (1829). Idazkera zabar xamarra darabil.

Mateo Zabala (1777-1840)

Bilbao'ko semea. Frantziskotarra, ta izlari eragiña. Euskera ondo ikasiz mintzatzen zan geien bat.

Ainbat alegi ta ipui utzi zizkigun, bertsoz, orduko aldizkarietan argitaratuta edo argitara gabe. Ia mende bat geroago, Aitzol'ek liburu bat osotu zuen aiekin. «Eusko Alegiak» (1934) deitu zion. Eta bilbotarraren goratarrez au dio itzaurrean: «Etzaigu alegi gaietan Zabala baño olerkari yaigorik jaio».

Naiz-ta bere bizitzan ezer argitartu ez, A. Zabala'k asko idatzi zuen, bai euskeraz bai erderaz. Bere aita Bakio'koa ta bere ama Billaro'koa ziran arren, laster aztu zitzaion umetan ikasiriko euskera. Ta gero, berriz ikasi bear izan zuen, eta sustraitik ikasi ere egin zuen. Ortik, ez degu nolanaikoa Zarautz'en bizi zala osotu zuen euskal gramatika: *Bl Verbo regular vascongado dei dialecto vizcaíno* (1848), Gipuzkoa'ko probintziak berak argitara emana. Garbi-zale zan. Eta orduko euskeralari guztiakin euki zun artu-eman.

Juan Jose Mogel (1781-1849)

Deba'n jaio zan itxura danez, ta J. A. Mogel'en illoba genduan. Baita Xemein-Markiña'ko arimazai ere 1811'garrenetik il zan arte guztikoan. Oso aberats jakituriz, baiña diruz txiroa omen zan.

Liburu auen egille degu: 1) *Baserritar nekezaleentzako eskolia* (1816); 2) *Eguneroko lan on ta erregubak* (1820), eta 3) *Maitz-illerako Berba-aldiak* (1885). Bizkaeraz daude ta Markiña inguruko izkeldian geienez. Idazkera garbi, goxo ta bizia darabil; joskera ere ona, erderakada batzuk gorabera. Ba-zekizkin gure baserritarren oitura ta maltzurkeriak, eta «...Eskolia» liburuan ederki berotzen die jipoia.

\* # #

Mogeltarren artean, ezinbestean lez aipamena egin bear, Bizenta'rena (1782-1854) ere. Juan Jose'ren arreba zan, dakigunez. Azkoiti'n izan arren, bere aita an mediku zegolako, au il zanean, bi anai-airrebak Markiña'ra aldatu ziran, beren osabaren ondora. Geroago Bizenta, Eleuterio Basozabal'ekin ezkondata zegola, alargundu ta Abando'n il zan.

Ogetabi urteko zala, 1804'an, *Ipui Onak* deritzan liburua argitaldu zuen. Osabari zor dio noski, edo anaiari, bere euskal arloko jakitea. Suak albokoa berotzen.

Beste zeaztasun bat, gogoangaria: Bizenta Mogel degu guk emakumeetan lendabiziko euskal idazle.

Akatsik? Txomin Agirre'k au dio: «Ezagun zaio egilJeari, mingaña edo lumea euskeraz zerabillen bitartean, burua erderazko gogamenetan zebilkiola». Ipui liburu ori, bertsoz ere ornitua, iru bider beintzat argitaratua izan da.

#### **Frantzisko I. Lardizabal (1806-1855)**

Leinuz zaldibiarra. Lazkau'ko karmeldarren komentuan—gaur beneditarren— osotu zitun eleiz —ikasketak, eta, alkarren idazkeratik zerbait atera dezakegunez, an ezagutu zuen Prai Bartolome ere. Bere errian egon zan arimazai, ta gazterik il zitzaigun, 1855'an, Gipuzkoa murriztu zuen izurriren artan.

Bi liburu bederen utzi zizkigun: 1) *Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira* (1855), ta 2) *Gramática vascongada* (1856).

Lenengoan, lendik ere Larregi lapurtarrak eta Ubillos gipuztarrak egin zutenez, munduaren asieratik Kristo zerura igo arteraiñoko berriak dakazki. Bigarrenean gipuzkeraz ari da geienien, iñoizka Bizkai'ko Naparroa'ko adizkerak barnean ematen ba'ditu ere. Ondo idazteko gramatika jakin bear da naitaez, eta Lardizabal'el ba-zekizkin euskal eliztiaren ezkutuak; beraz, bere lanak txit errez, garbi ta garbi burutu zitun. Etofi aundiko, baiña ez subera. Joskera apaiña. Erriak atsegintsu irakurri izan du beti.

**Jose Antonio Uriarte (1812-1869)**

Arrigorriaga'n (Bizkaia) jaio zan. Aita San Frantziskoren semea. Labastida'n eta Bilbao'n ikusi zuen eliz-karrera, 1836'an Azpeiti'n lenengo meza emanik. Juan A. Mendizabal, Madrid'eko kortietako ministruaren pitz-erazte legez Euskalerriko prailleak ere komentuak utsitu bear izan zituztenean, Aita Uriarte Markiña'ra aldatu ta bertan bizitu zan, albo-errietan konta ezin ala itzaldi eder egiñik. L. Bonaparte'k berau autu zuen, Lapurdi'n Duvoisin bezela, Biblia osoa euskerara itzuli zezan. Orrela egin zuen A. Uriarte'k, baiña tamalez lenengo iru liburuak baiño ez dute oraindik argia ikusi,

Orrez gaiñera, auek ere idatzi zitun: 1) *Marijaren illa* (1850); 2) *Jesus Sakramentaduari... Bisitak* (1856); 3) *Kristau doktrina* (1862); 4) *Marija Jangoikuaren Amak...*, eta 5) *Alegiak* eta abar. Akats eta guzti ere —nork ez ditu?— eder-ederra degu Uriarte'k egiñiko lana. Gipuzkeraz ipiñi zuen *Idazteunak* irakurle askorik euki ez arren, bere *Maijatzeko illa* guztiz erabillia ta irakurria izan da, Bizkai'ko erritxoetan batez ere, azken urteotararte. Errez ta errikoi ta mamintsu darabil luma.

**Jose Iñazio Arana, jesulana (1838-1896)**

Azkoitiarra. Azkoiti'n, Albistur'en, Arantzazu'n eta Iruña'n bete zitun ikastaroak. Loiola'n artu zuen Jesuita-jantzia, 1854'an;

geroztik Frantzia'n eta Espaiña'n, ango ta emengo komentuetan bizi izanik, Oña'n (Burgos) il zan. Jakituna *guztiz*.

Euskeraz ta erderaz, aspertu barik erabili zizkigun idazkortza. Ona emen bere liburu batzuen tituluak: 1) *Vidas de algunos claros varones guipuzcoanos de la Compañía de Jesús* (1870); 2) *San Ignazio Loyolakoaren bizitza* (1872); 3) *Bai, pekatu da liberal-keria* (1888); 4) *Disertación sobre la Ortografía Euskara* (1890). Itz neurtuak ere ainbat ondu zitun, or-emengo aldizkarietan argi-tara emanez. Euskal kezkaz samindua bizi ta il zan azkoitiar zintzo au.

Pedio Migel Urruzuno (1844-1923)

Elgoibar'en jaio ta Mendaro'n il. Bi erri oietan luzaroan arima-zai jarduna. Ipui zalea genun, euskal umore onez gaiñezka beti. Garai artako argitalpen guztietan agertzen dira Urruzuno'ren irri-lanak. Gogoko zaio íjitoak darda puntan erabíltzea.

Bi liburu argitaratu dira, aren ipui gatz-ozpinduezez osatuta: 1) Urruzuno'tar P. M.'ren *Ipuiak* (1930), eta 2) *Iru ziri* (Auspoa, 1965). Joskera legezko ta joria du.

Alfonso Maria Zabala (1847-1919)

Ezkioga'koa. Apaiztu ondoren, Ondarrabi'n, Zegama'n, Donostia'n eta Ernani'n egon zitzaigun arimazai. Aita Zabala'k argi-taldu ditu oraindik orain aren ipui ta antzerkiak. Goxo ta erri-koia da.

Agustin Paskual Iturriaga (1778-1851)

Apaiz azkar ra jakintsu au ernaniarra zan, bere sorterrian ainbat urtez gazteen maixu izana. Ikasteko ta erakusteko jaioa omen zan.

Ona bere bi euskal lan: 1) *Ipuiak* (1842), bertsoetan; eta 2) *Jolasak* (1842), euskeraz eta gazteleraz, lurrak, abereak eta lan-

darak, zelakoak diran eta zelan landu bear diran azalduaz. Biak liburu ederrak.

Baita atsegiñak ere, euskera oso ta bizian. *Orixe'k* au: «Nere ustez, Adema-Zaldubi'rekin ez da naski euskera bertsoetan ainbeste landu duenik.»

#### **Aita Krispin Beobide (1848-1891)**

Azpeiti'n jaio zan, Tolosa'n illik. Donapaleu'n osotu zitun eliz-estudioak. Gero Euskalerrian ibilli zitzaigun izlari, buruaren neurriko txapela zuela noski. Euskeraz ta prantses ondo zekizkila-ko, bietan zan erasle kementsu.

Tolosa'n bizi zalarik argitaldu zuen *Asis'ko Loria* (1885); orduko «erri euskeraren ispillu jatorra» dala diosku A. Villasan-te'k. San Frantziskoren bizitza au, berriz ere, oraintsu atera du *Auspoa* liburutegian 414 orrialdeko ale mardulean. Beste au ere utzi zigun: *Jesus Aurraren Bederatziurrena* (1887).

#### **José Bentura Landa (1871-19551)**

Itziartarra semez. Aretxabaleta'n, Murelaga'n eta Deba'n ari-mazai egona, ta Berga'n artzipreste edo apaiz-nausi. Buru-langille trebea, gogapenai tiuz gorputza ematen zikina.

Deba'n zegola idatzi zuen *Euskerazko Itzaldiak* (30 guztiz, 1907). Urte aietan Gazteiz'ko kanonigu zan Mateo Muxika jaunak erantsi zion itzaurrea. Idazkera argi ta neurtuan biribilduak dira itzaldiok.

#### **Txomin Agirre (1864-1920)**

Ona ta zintzoa genduan ondarrutar au. Ta bera izan ez ba-karrik, beste asko ere bide ortatik eramaten saiatu zan. Nola ote? Liburuen bitartez, era askotara ona egin dezakegu-ta. Izlari, idazle ta olerkari genduan burutik burura; bere bizitzan etzan, ez, aizea-rekin burukan ibilli.

Iru idazti ondu zitun: 1) *Auñemendiko Lorea* (1898); 2) *Kresala* (1906), eta 3) *Garoa* (1912). Irurak izan dira ber-argitaratuak, *Garoa* batez ere, ta merezi dute. Sotil, argi ta amas aundiko idatzi zuen.

1964'an, bere jaiotzatiko eungarren urtea zala-ta, Ondarrua'k egin zion omenaldirako *Ondarrak* (1964) argitara eman nuen; 264 orrialdeko liburu lodia. Bertan dauzkazu Agirre'k or-emen argitalduta utzi zizkigun lan banakarik ederrenak.

#### **R. Maria Azkue (1864-1951)**

Erraldoi bat degu euskal literaturan lekeitiar argi au. Beronen lana, iñoiz be, ez degu bear bezela txalotuko euskaldunok, arrigarria bai zan, edo bait degu. Aren bizi-berriak emateak ere zati zabala eramango lizkiguke. Bere bizi guztian Euskaltzaindia'ren buru izan zitzaigun. Eta zenbat lan egin! Eta zenbati lan eragin!

Iru aldizkari aukerak berak zuzendu zitun: «Euskalzale», «Ibaitzabal» eta «Euskera». Lanik beiñenak: 1) *Euskal Izkindea* (1891); 2) *Iztegia* (1906-7), ale bitan; 3) *Morfología Vasca* (1923); 4) *Cancionero popular vasco* (1922); 5) Euskalerriaren Yakintza (1935, 1942, 1945, 1947), Iau ale. Eta txikiago aukerak: *Txirristadak*; *Bein da betiko*; *Vizcaytik Bizkaira*; *Eguzkia nora*; *Jesusen Biotzaren illa*; *Ortzuri*; *Urlo Ardi galdua*; *Gipuzkera osotua*, ta abar.

Gaztetan ele-eder zale idazle txukuna zala ere adierazi zizkigun. Irakur ezazu *Ipuiñak* (Bilbao, 1968), or-emen kimatutako aren lenengo ipuiñez osotu nuen liburua, ta baietz esango didazu, Errez ta ugaria ta bizia da geienetan.

#### **Alta «andido Basabe (1867-1928)**

Lekeitiarra. Berbaz ta idatziz mesede aundia egiña da jesuíta au, batez ere, Bizkaia'n. Bizi ta goxo idazten du, eta onek —nork duda lezake?— jarraitzaille mordoa irabazi dizkio; atsegingarri egiten zaigu bere liburuak irakurtea.

Iru liburu beintzat ba-ditugu berak: 1) *San Iñazoren Ejer-tziuak* (1910); 2) *Eliz-liburutxua* (1912); ta 3) *Gogarteak* (1926), sarri argitara emanak.

### **Alta Erraimun Olabide (1869-1942)**

Gazteiz'en jaio ta Toulouse'n il zan. Gaztetan ez ekin euskerarik; baiña Salamanka'n ikasle zala A. Kanpion'en itz batzuk eraginda, osoro euskaltzaletu zitzaigun, eta ainbat lan egin zuen euskal arloan.

Ona idazti batzuk: 1) *Loiola'tar Eneko Deunaren Gogo-Iñarkunak* (1914); 2) *Giza-sona* (1917); 3) *Josu-Kristo 'ren Antz-bidea* (1920); 4) *Itun berria* (1931); 5) *Itun zar eta berriz* (1958), A. P. Etxeberria'k egiñiko argitalpena,

Euskaltzale aundi onen lana, batzuentzat nardagarri da, ta beste batzuentzat, oso txalogarri. Ta bere nai bizia, izan ere, txalogarri degu. Akatsak ditula? Euskeldun berri zan, eta arri egitekoa ote? Iñoren aoz ta iritziz itz-egin oi degu sarri askotan. Emen ere bai, nik uste. Euskal literaturan jakintsuen diranak, edo izan diranak, goretsi dute aren *Itun zar eta berria*; beste inguruko batzuk, lurpera botatzen alegindu dira. Nik au eskatzen diot edozeiñi, iritzia azaldu aurretik: irakur dezala liburu ori, ots, *Idazteuna*, astiro ta gibel-asmu gabe, ta esan dezala gero zer derizkion. Nere gardiz, erri xearentzat ainbeste ezpada ere, zerbait jakitun diranentzat oso maixuki egiña da Olabide'ren itzulpena.

### **Jon B. Eguzkitza (1875-1939)**

Luzaro Lekeitio'n irakasle egona izan arren, Lemona'n jaio ta il zan. Euskeraz lan asko egiña. Berak- sortu zuen, beste batzuen artean, «Jaungoiko-Zale» apaiz-bazkuna. Berak bizkaieraz jarri zitun «Kristiñau Ikasbidea» ta «Argi Donea», ta abar. «Jaungoiko-Zale»-n eta «Ekin»-en lan asko ditu bereak.

Euskal liburu auek argitara zitun: 1) *Garbitokiko Arimaen Illa* (1915); 2) *Andra Maria'ren Lor et ako Illa* (1919); 3) *Gizarte*

-Auzia (1935), eta gai askori buruz itzaldi-mordo galanta. Ba-ditu bere akatsak, baiña atsegiñez irakurten dana degu. «Maixu batek lez idazten dau beti Eguzkitzak: argi, otz, zuzen, kontuz...» diño K. Etxenagusia'k. Eta Orixe'k: «...nire ustez, oraiñarte izan dogun euskel idazlerik bikaiñena.»

**Jean Barbier (1875-1931)**

Donibane-Garazitarra. Larresoro'n irakasle ta gero Baiona'ko katedralean bikario. Ta azkenik, Senpere'ko arimazai. Bera degu *Gure Herria'ten* sortzaille ere. Idazle, olerkari, musikolari ta antzerki-egille degu. Ta izlari trebe. Euskera goxo ta zorrotza darabil.

Bere lanak: 1) *Supazter xokoan* (1924); 2) *Nere Kantuak* (1910), eta *Ama Birjina Lurden* (1920). Ba-ditu prantsesez ere: *Légendes du Pays Basque* ta *Piarres*, adibidez.

**Arriandiaga'tar Imanol, C. M. F. (1876-1947)**

Elantxobe'n jaio ta Beire'n il. Gizon oso jakintsua. Eskubide ta moral irakasle. Bere Ordena barruan kargu aundiak euki zitun. Umetan zekien euskera azturik, —askori bezela, zoritxarrez—, berriz ikasi zuen, eta sakonki ikasi ere. Aranatar mugagabekoa zan.

Itzulpen auek burutu zitun: 1) *Lekobide* opera txikia (1913), ta 2) *Goizparraik eta Bledubaik egiña* (1959). Esanak esan, garbizale baiño euskera erreformatzaille geiago degu A. Arriandiaga. Ala ere, gaurko *Batasunaren Kutxa* antolatzaillak aurrea artu diote.

**Paulo Zamarripa (1877-1950)**

Sondika'n apaiz bizi zalarik, zirt eta zart egin zuen lan euskeraren alde. Bere liburuak, bizi ta jori idatziak, bizkaierazko esakui zar, era egiki ta erri-pitxiz asetuta dagoz. Euskaltzaindikoa.

Bere liburuak: 1) *Zaparradak eta* (1926); 2) *Gora begira* (1927); 3) *Anayak gara* (1929); 4) *Kili-kili* (1930); 5) *Firi-firi* (1935); eta erderaz: 1) *Gramática vasca* (1928); 2) *Manual del*

*Vascófilo* (1918), eta 3) *Vocabulario Vasco-castellano ta Castellano-vasco*, sarri argitaratuak.

**Pierre Lhancfe, S.J. (1877-1957)**

Baiona'n jaio zan, naiz umetatik Zibero'n egotaldi aundiak egin. Aita langillea, euskal barrutian ere. Euskaltzaiña ta bertako zadorlari. Idazle ugaria degu, euskeraz ta prantzeraz.

Bere lan batzuk: 1) *Autour d'un foyer basque* (1908); *L'émigration basque* (1910); 3) *Mirentchu* (1914); 4) *Yolanda* (1921); 5) *Dictionnaire Basque-frangais* (1926); 6) *Le poete Pierre Topet dit Etchahun* (1946), eta abar.

Onekin batera merezi du gure aipamena Martin Landerretxe'k (1842-1930) ere. Burunaritze'n sortua. *Eskualzaleen Biltzarrako* idazlari, ta euskaltzain. Asko idatzi zuen or-emengo aldizkarietan.

Baita Aiherre'ko seme Julien Héguy (1860-1930) ere. Pierre Laffite'k argitaldu zuen, ura ilda gero, aren *Mariaren Hila*.

**Jean Elizalde, «Zerbitzari» (1883-1961)**

Azkaine'n jaio ta Gerezieta'n illa. Larresoro'n eta Baiona'n osotu zitun bere eliz-ikasketak. Euskaltzaindikoa.

Ipui, erri-olerki ta antzez-lan asko idatzi zitun. Euskallurreko landare ta egartziz ere ari izan zan,

1936'an, *Atsotitz, Zuhur-hitz eta Erran-zahar* zeritzan liburua argitara zuen, 1.025 esakunezko bilduma,

**Jules Moulier «Oxobi» (1888-1958)**

Bidarrai'koa sortzez. Hiriburu'n il zan. Euskal alegiaririk onenetarikoa.

Bere euskal lanak: 1) *Bihotz oihu* (1926); 2) *Alegiak* (1926); 3) *Heietatik zerura* (1937); 4) *Haur-elhe haurrentzat* (1944); 5) *Oxalde* (1953); 6) *Oxobi'ren lan orhoitgarri zonbait* (1966).

**Jon Andoni Irazusta (1884-1952)**

Tolosa'n jaio: Lima-Peru'n il. Lege-gizona. España Kortietan abertzde-diputaua. Gerra ostean Ameriketan arat-onat ibilli ondo-ren, azkenez apaiz egin eta meza berria esanaz laster il zan.

Bere nobela biak: *Joanixio* (1946) ta *Bizia garratza da* (1950). Martínez Sierra'ren *Loxintxa* itzulpena ere berea du. Donostia'ko «El Día»-n ainbat artikulu idatzi zitun. Izkera errez berezkoa darabil.

**Juan Cruz Ibargutxi (1883-1969)**

Ubidea'n jaio ta Basauri'n il. «Gurutz» eta «Iturrondo» izen-ordeak erabilli ditu. Euskaltzaindoa 1919'tik. Euskera arloan aspergaitza: asko idatzi zuen, eta beti gizonki, euskera ederrean.

Bere lanak: 1) *Aginduak* (1923); 2) *Sakramentuak* (1932); 3) *Edesti Deuna* (1936); 4) *Geroko bizitza* (1954); 5) *Otoia* (1955), eta 6) *Siniskaiak* (1957).

**Martín Oiarzabal (1892-1966)**

Azpeitiarra. Orduña'n eta Comillas'en egin zitun bere eliz-ikasketak. Euskaltzaindikoa.

Bere idazkariak: 1) *Zerurako bidea* (1922); 2) *Jesu Kristo gure Jaun eta Jainkoaren Bizitza ta Berri Ona* (1936), eta 3), Orixe'kin batera, *El lenguaje vasco* (1963). Begoña-Bilbao'n il zan, eta an utzi zuen alegi-sorta bat ere argitaratu gabe.

**Gabriel Manterola (1890- )**

Zeanuri'koa. Igaz, gabonillaren 8'an, aundikiro ospatu eban bere larogeigarren urtea. Euskaltzale jatorra; ainbat izkuntza dakizkina. Euskaltzaindikoa. Bere gaztaroan batez ere, asko idatzia degu berak eta sortutako «Jaungoiko-Zale»-n eta «Ekin»-en, «Garn», «Mitirga», «Urigoiti» izen-ordeak erabillirik.

Bere lan batzuk: 1) *Goi-izpiak* (1921); 2) *Itzaldiak* (1922); 3) *Santuen bizitza laburra* (1922); 4) *Ipuintxoak* (1929), eta 5) ainbat itzulpe prantzeratik gaztelerara.

Argitaltzeko berriz idatzi mordoak dauzka.

#### **Bitor Garitaonandia (1876-1929)**

Zaldibar'ek, bere sorterrikoak, maite dute gaur ere On Bitor, burutik bururako euskal idazle jatorra. Zugatz igaliz betea zan. Aoz ta lumaz, atertu gabe lanari lotua bizi izan zan. Donostia'ko «Argia» zuzendu zuen luzaro.

Bere euskal idazti batzuk: 1) *Usandizaga, bere bizitza ta Eres-egikuntza* (1920); 2) *Euskal liburu sorta* (1922); 3) *Iziartxo, Ongillearen saria ta Aitona ta biloba*, antzerkiak (1921); 4) *Ipuin laburrak umetxoentzat* (1922).

#### **Aita Jose Zabala-Arana (1894-1936)**

Nabarniz'ko semea. Gipuzkeraz ta bizkaieraz makiña bat lan-txo ta liburuxka moldatua. Maite zitun euskera ta Euskalerrria, ta maitasun onek eraginda ondu zitun utzi zizkigun lanak.

Ona batzuk: 1) *Edesti Deuna* (1921); 2) *Euzko Luteleski txikia* (1922); 3) *Aste Gurena* (1924); 4) *Josutxu* (1931); 5) *Donokirako bide zuzena* (1935); 6) *Daneurtiztia ta Zenbakiztiya*; 7) *Aldezketa-Gayak*, «Rkin»-en; 8) *Amaika gabetako ipuñak*, «Euzkerea»-n. Erderaz: *Gramática vasca*, gipuzkoera.

Ipuñetan eta, «Nabarniztarra» izen-ordea erabilli oi zuen. Eta, beronen kontra batzuk naikoa gaizto azaldu diran arren, itz bakan batzuk atera ezkerro, euskera errikoia ta ariña darabil. «Amaika gabetako ipuiñak» atsegiñez irakurten dira.

#### **Aita Gabriel Jauregi (1895-1945)**

Aramaio'n jaioa. Larrea-Zornotza'n il zan, gazterik. Karmel-dar jakituna, fisika ta kimika arazoan batez ere. Gazteiz'en zeu-

kan bere saiotegia, ta an Filofia ta inguruko ikas-gaiak ikasi genitun guztioi, berak erakutsi zizkigun izadiak barnean ditun ezkutu-en berriak.

Bere lanak: *Pisia* (1935), ta *Kimia* (1936). «Karmen'go Ar-gia-n ere naikoa idatzi zigun gai oietzaz. Euskera ederra du: ira-kurri ta esango didazu. Erderazko jakintza-itzen orde euskeraz-koak darabiltzatela? Ezta osorik egia. Liburu oiek eratzera-koan, euskera aldetik beintzat, etzan bakarrik ibilli: Aita «Legoaldi.» izan zun laguntzaille ta ba-zekizten auek nundik zebiltzan. Onela jokatu zuten: gaur esan oi degunez, jakintza-gaietan euskerak ba-du bear deguna esateko itza, uraxe lennengo; ta ez baldin badu, orduan erderara jo ta uraxe erabilli,

## BESTE IDAZLE BATZUK

### XIX'GARREN MENDE BARRUAN JAIOAK

Juan Jose Salazar, prantziskotarra (1807-1887), Zollo'n (Biz-kaia) jaio zan, eta Arantzazu'n il. *Ama Birjiñaren Kongregazioko esku-liburua* (1865) osotu zuen. Baita berea du, Euskal-erri osoan kantatzen dan «Atoz, pekataria»-ren letra ere.

Pruden-zio Hualde (1823-1879) Bidankoze'ko seme zan. Eta bertako arimazai luzaroan. Bonaparte'rentzat *San Mateo'ren Berri Ona* euskeraz jarri zuen. Astete'ren Dotriña ere Erronkari'ko eus-kalgira itzuli zun.

Balentin Berrio-Otxoa zoriondunak (1827-1861), Logroño'ko ikastetxera 18 urte zitula sartu zanetik, bere amari beintzat beti euskeraz idazten zion, eta sarri bertsotan. Amasei karta ditu eus-kerazkoak.

Manuel A. Antía'k (1830-1894), Urretxu'ko seme ta Urnie-ta'ko arimazai izan zanak, aoz ta idatziz, lanik asko egin zizkigun euskal alorrean. Orduko aldizkarietan —*Euskalzale* ta *Euskal-erria* baitik bat—, maiz agertzen dira apaiz langille aren lanak. Oler-kari ere ba-genun.

Patrizio A. Orkaiztegi (1840-1924). Andoaindarra. Sorabi-lla'n, Altzo'n, Elgoibar'n eta Arrasate'n arimazai, ta 1800'tik

aurrera Tolosa'ko apaiz-buru. Bertsoz ta itz lauz asko aditzia. *Oiparena* ez-izenez izenpetzen zitun lanik asko. Tolosa'ko Udalak, ua il ondoren, Orkaiztegi saria sortu zuen.

Aita Juan Bizente Zengotita (1862-1943), karmeldarrak, gaztetxo zala, ta Valencia'n bizi, antxe argitaratu zuen *Carmengo Anaije edo cofradi-entzsko* Esku-liburua (1888). Ba-ditu orrez gaiñera ogei bat euskeraz itzaldi ere.

Blas Pradere Arruti (1851-1923) apaiz oñatiarrak, sarri irabazi izan zitun Gipuzkoa'ko Aldunak eratu oi zitun euskal jaietako sariak.

Balbino Garitaonendia (1857-1916), Durango'n, Santa Ana elizako txauunburu izan zan. Bere euskal liburuak: *Erregezko Apostoladutzia* (1889) ta *Vademécum Erdu neugaz* (1908). Olerki politak ere iñoizka asmatu zitun.

Inozenzio Munita (1873-1958), Arama'ko arimazaia. Leaburutar agurgarri, onek liburu gogoz irakurtzen dana utzi zigun: *Gure Mendi ta Oianak* (1952). Euskal mendietako zugutzen berri damakigu, euskera apaiñean.

Zirilo Arzubiaga (1874-1966), otxandioarra, Euskaltzaindikoa zan. Azkue jaunari asko lagundu zion. «Jaungoiko-Zale» aldizkariaren zuzendari, ta gero «Ekin»-nena. Ibargutxi'ren lanak, berak argitaratu zitun, baita Bizkai'ko dotriñak ere.

Aita Errenderi (1881-1916) kaputxiñoak, jatorki lan egin zигun euskeraren onerako. Bere idaztietatik bat: *Olerkiak* (1935).

Aita R. Galdos (1885-1953), jesulagun kaintsua. Idazle azkarra euskeraz ta erderaz. Bere euskerazko lan batzuk: *Dabid'en Abestiak Mikel Garikots, Ezkontza, Jesus Aurraren lenengo itzaldia*, ta abar.

Aita Martin Uriarte (1879-1960), karmeldarra, izlari ta idazle porrokatua. Zeanuri'ko seme. «Karmen'go Argia» illerokoa, berak zuzenduta irten zuen lenengo urteetan. Mamintsuak, noski, bertan agertu zizkigun egi biribillak. «Martiatu» izenordez izenpetzea ere gogoko zitzaion. Bere lanak: *Bederatzurrrena Ume Jesus'en Teresatxu Zorundunari* (1923), *Karmen'go Andra Mari-*

•*jari Bederatziurrena eta Asteroko ikustaldia* (1924), fa sermoe txorta aundia argitaratu gabe.

Juan Izurategi (1863-1938), bilbotarrak, Elorrio'ko txaunburu izanak, liburuok beintzat atondu zitun: 1) *Jerusalen oste-rean semeak amari* (1923) eta *arteko Igande guztietarako Goiztar eo Ebangelioak* (1934).

Juan Iruretagoienak (1888), *Iganderoko Berriona* (1936) utzi zigun zati bitan.

Leonardo Goiti (1880-1966), Mañari'ko arimazaiak *Zeruko Izarra ten egille* da. Durango'n argitara eman zuen, 1922'an.

Aita Zelestino Gorrotxategi (1886-1970), karmeldarra, Berriz'ko semea gendun. Liburu au du berea: *Karmen'go Amaren Lorategia* (1918).

Ramon Intzagarai (1878-1947), donostiarra. «Elurmeni» goi-izenez idatzi zuen, euskeraz ta erderaz. Euskeraz: 1) *Ipuiak* (1922), eta 2) *Kontxesi ta Petratxo* (1918). Idaztankera gozokoa degu.

Joseba Markiégi (1895-1936), debatarra, Arrasate'n arimazai San Luis'en Bizitza (1932), *Txerrenzubi'ko gertaria* (1935) ta *Eriotz-bide* bereak dira. Felix (1906-1946), onen anaiak «Argia-n, «Yakintza»-n eta Buenos Aires'ko «Euzko Deya»-n idatzi zuen. Berea du antzerki au ere: *Seme ondatzaillea* (1936).

Aita Doroteo (1897-1958), karmeldarrak, *Aurtxo Jesus Pragakoaren jaiera Liburua* (1915) ta *Karmen'go Amaren Eskuliburua* (1931) ondu zizkigun.

Aita Ipolito Larrakoetxea (Zeanuri, 1892) ta onen anai Bedita ere idazle erneak ditugu, Arrati bailerako euskeraz artan ere. Ipolito'k *Grimm Anayen Ipuñak* (1930?) argitara zitun bizkaiera aberats, jori ta errezean. Bedita'k, berriz, beste gauza askoren artean Shakespeare'n lanak dauzka euskeralduta. Biok gaiñera aldizkari askotako lankide izan dira.

Manuel Lekuona (Oiarzun, 1894) euskal langille porrakatua degu, bai euskeraz bai erderaz. 1967'tik 1970'rarte Euskaltzaindiko buru izan da. Bere lanak. Euskeraz: 1) *Gazteiz'ko Eliz-barru-*

tiko Kristau-Ikasbidea (1918); 2) *Gabon kantanak* (1933); 3) *Jesu Aurraren bizitza* (1948); 4) *Gorozikatik Gurutzia* (1952); 5) *Zigor* (1963); 6) *Bi antzerki ta bi itzaldi* (1965). Erderaz: 1) *Métrica Vasca* (1918); 2) *La Poesía Popular Vasca* (1930); 3) *Literatura oral euskérica* (1935); 4) *Del Oyarzun antiguo* (1959); 5) *Literatura oral vasca* (1964). Euskal liturji Batzordeko buru da.

Leon Leon (1896-1962), azparnetarra, Ustaritze'ko apezburu. Euskal idazle ona. Bere liburuak: *Jesu Kristo gure Jaunaren Ebanjelio Saindua* (1946); *Jesu Kristoren Imitazionea* (1927); *Haurren Meza* ta alegi mordoa, *La Fontaine'tik euskeraz ipiñita* batez ere.

Jorge Agirre (1885-1947), jesulagunak, «*Jesu'en Biotzaren Deya*»-n idatzi zuen naikoa sarri. Bereak ditu liburuxka auk: *Luistarren Esku-liburua* (1934); *Kristau esku-üburua* (1934); *Maria'ren alaben Elizliburua* (1934); *Jesu'en Biotza etxean eta Elizan* (1927); *Loyola'ko argi izpiak* eta abar.

Jose Migel Barandiaran (Ataun, 1889) aitor-seme degu euskal arloan. Euskeraz ta erderaz, dakigunez, makiña bat egiña da. Ona euskerazko batzuk\*. 1) *Euskalerriko Leen-gizona* (1934); 2) *Euskal Mitologiaren ikaspiderako* (1954), ta *Axular'en itzala* (1957).

Aita Julen Yurre —Nikolas Barrenetxea— (Yurre, 1898). Aldizkari askotan lankide izanaz gaiñera, liburuok argitara ditu: 1) *23-garren Yon Aita Santua ta Il-garren Batikano Batzarra* (1965), ta 2) *6-garren Paul Aita Santua ta Il-garren Batikano Batzarra* (1967).

Nemesio Etxaniz'ek (Azkoitia, 1899), or-emen kontak ezin ala lan idatzi du. Baita liburuok argitaldu ere: 1) *Arralde* (1923); 2) *Nola idatzi euskeraz?* (1950); 3) *Kristau Ikasbidea bertsoetan* (1950); 4) *Kanta-kantari* (1951); 5) *Izeko aberatsa ta irulearen negarra* (1952); 6) *Antzerkiak Konta-kantari* (1958); *Lur berri* (1967). Idazle ugari, goxo ta ariña.

Jose Luis Jauregi, «*Jautarkol*» (Errenderi, 1896), olerkari jatorra ere, aztu eziña degu. Euskaltzaindikoa. Bere lanak: *Bioz-*

*kadak* (1929); *Ipuiak* (1953); *Xenpelar bertsolaria* (1958); *Pasqual Duarte*, itzulpena (1967). Goxo ta zentzunez idazten daki.

Polikarpo Larrañaga (1883-1956), Soraluze'n jaio ta Baiona'n illa, gizarteko gauzetan guztiz jakituna zan. Ba-ditu liburuxka batzuk euskeraz ere: 1) *Amets larria* (1923); 2) *Mendiko eguna* (1921); 3) *Arraie* (1926).

Aita Dámaso Intza —Migel Olasagarre— (1886), denok degu ezagun Euskaltzaiña, 1920'tik. «Zeruko Argia»-n baitik bat, anitz lan egiña. Bere bi liburu: 1) *Kristau Ikasbide ar en Azalpena* (1924), ta 2) *Naparroa'ko Kristau Ikasbidea*. Ta or-emen argitaratuta, atsoitiz eta esaera zar asko ere bai.

Aita Buenabentura Oieregi (1886-1956), kaputxinoa, «Arbelaitz». Euskaltzaindikoa. Idazle bizkorra; «Zeruko Argia»-n agertzen dira batez ere bere euskal-knak. Berea du: «*Diccionario castellano-vasco y vasco-castellano*», birritan argitaratua.

Aita Lontzi —Kepa Ormaetxea Aldana— (1891-1949), karmeldarra, idazle ta izlari urduria. Bereak ditu Txile'n argitara emaniko bi liburuok: *Ipuintxuak* (1947), ta *Bigarren Ipuintxuak* (1948).

Jose Antonio Oar-Arteta (Ajangiz, 1895), gaur Lemoniz'en daukagu arimazai. Bere liburuak: *Jesusen Biotza*, *Miren'en senargeya* ta *Begoña'ko Amari Bederatziurrena*.

Andres Iturzaeta, Otxandio'ko abadeak, *Urtearen domeka guztietarako Berbaldiak* (1884), zati bitan, argitaratu zitun; bertan datoz Abadiño'ko seme Juan Antonio Unzueta (1794-1861), prantziskotarraren *Santuen Itzaldiak* ere. Iturzaeta'ren beste bi liburu: *Aita Gaspar Astete'ren Ikasbide Kristinaukorraren Azaldura laburrak* (1899), ta *Esaldiak* (1900).

Jose Juan Kortazar, Angiozar'ko arimazaiak *Urteko igande ta jai guztietako Itzaldiak* (Bergara, 1903) atera zuen. Zati bitan, bakoitzak 340 bat orrialde ditula.

Dámaso M. Bernaola apaizak, Aita Luis de la Palma'ren *Pasiño Santuaren Kontaera* (Durango, 1905) azaldu zuen, bizkaieraz.

Aranaz'tar (Lezo'ko) Jose, Aita kaputxinoak, *Nere Laguna* (Zornotza, 1922) argitara eman zuen. Urte guztiko eliz-itzaldiak.

Aita Kelmen, pasiotar izlariak, *Kisíarra edo Kistar onaren iraztija* (Bilbao, 1905) eman zigun.

# # #

Emen bukatzen degu izen-zerrenda luze au, aspergarria ere bai onezkero. Agindua beteaz, igaro gizaldikoak bakarrik aipatu ditugu, au da, XIX garren mendean jaiotakoak soilki. Ta luzeegi ez egitearren ez ditugu oraingoak aipatzen. Bestela pozik egingo genuke. Gaiñera naikoa ezaguna da gaur euskal barrutian lan dagian eliz-gizon taldea.

*Aita Onaindia*



## EGO AMERIKETAKO MIXIOAK ETA EUSKALERRIA

1956'ko urtea. Amalau urte egin-egiñak. Aita Lombardi gure artean zegoen, Gazteizko apaizgaitegian, ain zuzen.

Izango duzu, noski, gizon onen berririk. Ara! Jakitun aundi, kolko sakoneko, saindu usaindun, eta gure garaiko gizon pizkorra.

Alakoa zala ta, Pio XII'garren Aita Sainduak beregana deitu zuan.

Premi gorriren bat izan, nunbait, gure Aita Sainduak.

Ona!

Elizaren baratzean, bizi berri bat sortzen ari zala, alegia; lore berriak, lengo baratz zarreko lur zarrean.

Bai! Aro ta giro berri batek eraginda, Udaberri beirexi bat zetorren, ziur aski. Eta urteroko gure udaberriak nefcazariei lanbide ta saio berriak eskatzen dizkie. Olatsu guri, oraingo gure Gizadiko udaberri onek. Naitanaiez ta beingoan, eskatu ere.

# # #

Azaroa daiorreanean, lurra garbitu egiten da. Belar txar eta zabor guztiak kendu.

—Nola?

—Ori, nekazariak jakin.

Ta erein bitartean, landare, lur, ongarri ta uraren ardura ere bear.

—Nola?

—Ori, nekazariak jakin.

Ereinda gero ere, jorratu, bakandu ta kimatu egin bear.

—Nola? Ori, nekazariak jakin.

—Nekazariak... Nekazariak... dakiala! Batzuetan, bai... Oiko gauzetan, bai...

—Landare berriak, baiñan... edo ta lanbide berexi... edo ta langai nabarmenak bear diranean?

—Maisu prestu ta jakitun batengana dijoakizu, orduan, nekazaria.

Orixe bera egin zizun, bada, Aita Sainduak.

Eta gure arteko maisu ori, Aita Lombardi.

Eta or asi zitzaizun gero, Aita Sainduaren aginduz, mundu guzian zear, Eliz-baratzako nekazari diran gotzai ta apaiz guziekin, jardun-da jardun:

...Ea ta zeintzu diran gure eliz-baratzako belar txar oiek?

...Ea ta zeintzu, gure landare jatorrei, zintzilikariz, gerrituko ayen-belar, goroldi ta untz-adar oiek?

...Ea ta zeintzu, igartu ta zar gelditatuko enbor oiek?

...Ea ta nolako landareak eskatzen ditun oraingo aro berri onek...; eta nolako lanbideak...; eta nolako langaiak?

Orra zer diardun gure aita Lombardik, Gazteizko apaizgaitegian. España guziko gótzaiak bildu dira bertan, ortarako.

Baita gu ere. Bai, Donato Arrinda ta ni, mixioterako itz emanak gaudelata, apaiz lagun batzuk ondoratu zaizkigu, azken agurra eman nairik.

Gótzaiak toki batean bildurik zeuden, aita Lombardi buru zutelarik, eta gu beste batean, lagun zarrez inguraturik. Eusko

mixioei buruz, gure artean, ari giñaiarik, norbaiti auxe etorri ziztaion burura:

—I... ta zergatik ez zioagu aita Lombardiri onara deitzen? Esan eta egin. Gure artean genun, arratsaldeko irutan.

Agertu genizkion gure arteko autu-mautu guziak, eta berak guri:

«Bejondeizuela, mutillak! Ba-nuen zuen Mixio orren berri-rik. Eta argitasun geiago eman dizkidazute, orain. Zuen *Los Rios-ko Mixio* ori gure Gizadi berritze lan onen zatirik ederrenetako da,

Aurrera, mutillak! Ori da ziñez, gure Elizaren mixioak aurrera eramateko erarik onena. Geiago oraindik! Zuen eliz-lanbide ori aurrera eraman, eta beste eliz-barruti guziak artan sartzen ez badira, ez du Mixio-arazo onek sekulan amairik izango,

Auxe da, oraingo Gizadi berri onen lanbiderik bearrena.»

## IKUSLARI BAT GUREAN

Ezta mixiolari bat.

Joan dan gerrateko aize-burrunba arek jota, mundu zear, batera ta bestera, orbelaren antzera dantzan dabillen Anton Irala.

Gizaseme prestua, bestalde, jakintsua, asko ikusitakoa, euskaldun zintzoa.

—Orko eskola ori zuek egindakoa al da?

—Bai!

—Eliz ta bere aurreko lore ta zugaitz —baratz ori ere bai?

—Baita!

—Zuek zerate, mutillak, zuek!

—Ta danak saltsarriz egindakoak.

—Bearko! Ez bai zizuten kañaberazko aiek ezer ere irauten. Etzen orí okerrera, baiñan, Kañabera oiek naiko tarte-marte bai, ta sekulako eltxo ta xomorro-mulkoak sartzen zitzaizkigun bertara.

—Gorriak ikusi bear, beraz?

•—Asieran, bai. Guziak gaxotu ziran, bat izan ezik. Eta gero, onek eraman bear bizkarrean Babahoyoko ospitalara,

—Eta ez al zan iñor il?

—Ez, emen daramazkigu ogeitairu urte, eta etzaigu gaitzez iñor il.

—Aundia da ori gero!

—Bai, Basurtoko osagilleak ere esan zien guretako aurrene-koei: emendik lau urtera, giro ustel ortan bizirik irautea, arritze-koa izango litzake.

—Aiek bai jakin!

—Guk eutsi, baiñan!

—Euskaldunak bakarrik legike ori!

—Zergatik?

—Ona... Etzun iñork Argentinako Pampa izugarri ura lan-du al izan, eusko baserritarra an agertu zan aurretio. Ez eta Ida-hoko mendi ikaragarriak ardiz bete ere, eusko artzaia ara sartu zan artio. Ta zuen emengo lanbide orri, zail eta neketsuagoa de-ritzat neri.

—Zer dala ta?

—Ba..., angoetako bakartasun basatiaz gaiñera, giroa ere txarragoa duzutelako emen.

—Egia, bai! Iñoiz ezta beroa ogeitabost gradotik jeixten, eta berrogeiraño ere iriten zaizu.

—Zuek zerate izatekoak, zuek! Lengo udaran, Italia zear nebillela, zuek emen dituzuten añako beroaldiak jo zitun ango lurraldean. Ta bosten bat il ziran, eta beste asko, zoratuta gelditu.

—Zer da, bada, euskaldunok bakarrik dugun zera bere-xi ori?

—Asmatuko al dut, bada? Basoko bakartasun latz ori era-mateko, egonarri, kolko zabal eta zentzun aundiko gizonak bear dirala, naitanaiez.

—Bai, ezta orren errax!

—Gure baserritarrak, bai. Auzoetatik alde, bakarrik bizi da gure gizona bere baserrian. Aurretikoen odoletik datorkion joke-ra du ori. Berezkoa ta bere bizikera berexiaz, sendotu ta errotuaz

dijoana, gainera. Berenez egiten ditu jateko, edateko eta jazteko bear ditunak. Eta bere eskuko bizimodu bakar eta berexi onek betiko markatua utzi du.

—Bai alako zerbait ikusi dugu guk ere. Baserritago ta ego-kiago. Orra, aita Lekuona, Irungo baserritarra. Amalau urte egin ditu berak bakarrik, Tillako mendi tontorrean. Larogei kilometro bidea zenun andik urrengo errira. Igandero mandoa artu, ta amalau orduko bideari lotzen zitzaion, inguruko iru auzoak ikusi ta aietan Meza emateko.

—Ori ezin edozeinek egin?

—Eta etzituan lotan eman, ez, Txillako amalau urte luze aiek! Eun kilometro baiño geiagoko bide zabala ebaki ta egin zizun Andesko mendi erpin aietan. Eta ikustekoa zan, noski, berrogeitamar urteko apaiz trinkoa, ango basatiekin bat, tiki-taka, bere aizkora, aitzurra, endai, peaki ta guzi; tiki-taka goiz eta arratsalde, negu ta uda, urte osoan. Mendian jan, median lo naiz eta sarri, leoi ta katamotzen ormak entzuten ari. Bein batean, arkaitzetatik beera erori, eta saiets-ezur guziak apurtu. Urrengo asierako, baiñan, Lázaro bezela, dana zapitzarrez bildua, an zenun lengo basatien buru, alik eta asitako bide luzea, amaitu artio. Bide orrek alkartzen ditu orain berak egindako eliz, ikastola eta etxerik franko...

—Zuek zerate, mutillak, zuek! Eta apaizak, bakarrik al zaudete emen?

—Ez...! Era guzietako mixiolariak ditugu, ezkonduak eta ezkongaiak.

—Eta zertan ari dira beurek?

—Ba..., senar-emazteak erri aundienetan: gizonak, lantegi-gaien arduradun, eta andreak mixiolarien etxeko-andre. Bai, bear ere, arlote utsak bai gera, gizonezko ok, bakarrik gaudenean!

—Orixe, gauza ederra!

—Ta mutillik geienak, bakarrik dauden apaizen lagun. Ba ditugu maisu, arotz ta errementari.

—Eta ez al diezute bertakoei lan egiten erakusten?

—Bai, noski! Mekanika-ikastola bi eratu ditugu eta geiago ere egiteko asmotan gabiltz. Euskalerrira ere bidali ditugu amarrren bat lantegi-mutil, an ikusi ta obeto ikasi dezaten.

—Eta ez duzute mojatxurik?

—Baita. Gu ainbeste, bai, beintzat! Eta gu gizonezkoak jendatzen ari geran bezela, aiek emakumezkoak: dotriña, eskola, jostuna, sukaldekua, osakintza ta abar...

—Ta noren diruz egin dituzue ainbeste etxe, eliza, eskola ta lantegi?

—Emengo diruaz baliatu izan gera.

—Orren beartsu ta ganoragabekoak izanda?

—Alaixe da, bai. Ba-dakite baiñan, burua jasotzen ere, ortara iñork zirikatu ezkeru. Ta aien poza gero, elizak eta amaituta ikusitakoan: «gure-gurea duk au gero..., amaika larrialdi ta lerrialdi kostata egiñikoa!

—Bejondeizuela, mutillak!

—Eskerrik asko, Anton.

—Zuek zerate, mutillak, zuek.

## JATORRIZ

Goethe jakintsu arek auxe zion bein:

«Mundu onetan zerbait egin nai duenak, Jatorriz eta Aukeraz, loi gauza aundi oien ardura izan bear du.»

Jatorriz gera mixiolari, euskaldunak.

Euskalduna zan, arabarra ain zuzen ere, Chinan zear, aurrenik ausartu zan mixiolaria.

Euskalduna aita Zumarraga, Mexikoko lenengo goigotzaia. Onek eraman zuan Ameriketara lenengo imprenta, eta bertakoen izkuntzaz liburuak argitaratu. Bedorrek iralgi lenengo ikastetxe nagusia, ta jatorriz bertakoak ziranak ikastera eraman.

Euskaldunak izan ziran orobat aita Antxieta ta Ezpeleta, Brasil eta inguruetako lurraldetan sartu ziran lenengo mixiolariak. Oiek jaso zuten, lenengoz, angoen izkuntza, gramatika-legeak idatziz jarririk.

Euskalduna Xabier, Oceaniko ugarteak zear, Japoneraño iri-txi zan mixiolaria.

Mixiolari oiek, ala ere, eztira aipagarri, leku aietara lenengo iritxi ziralako bakarrik, mixioetako lanbide orreri, tankera berexi bat eman ziotelako baizik.

Zer tankera diozu?

Geroko mixiolariei askotan antzi egin zitzaizkien Kristoren burubideak. Alegia: gizaki guziak anai ditugula. Itzal aundi ta biotz onez artu bear ditugula, beraz, besteen izkuntz, giza-lege ta oiturak.

Lege eder au ain ondo bete ziguten lenengo mixiolari gizaundi aien atzetik, asko ta asko etorri zitzaizkigun gero. Eta San Martin ta Berriotxoa, ditugu, ziurki, ospetsuenak. Lenengoak eta azkenengoak alkarrekin lotutzen gaituzten, katemail ederrenak. Eta jatorrizko jokera onen katebegia, Gazteizko apaizgaitegian kokatzera etorri zan.

Joandako gizaldiaren azkenaldean altxatu zan euskaldunen lenengo ikastetxe nagusi au. Eta bertan erne, azi ta indartu zan lenengo amets, gogai ta bulkoa: mixiolaritza,

Gurrutxaga, Ortiz de Urbina ta Sagarminaga jaunak izan ziran aurrelari; eta urren, Pérez Ormazabal, Hueto ta Anitua. Orduan asi ziran, mixio-batzarrak eta akademiak. Ordantxe azaldu «Union misional del Clero» ta «Eco misional»'en bazkunak bere aldizkariekin. Eta gero, bertan sortutato azi ta landare ok, andik España guzian zear, zabaltzera eman, Madriden ardatza jartzen zutelarik.

/

Eta giro eder onek eraginda, berela sortu zan apaiz-auzi au: mixiolarien ainbesteko premia ikusi ta, zergatik ez apaizak ere míxiotara joan? «Zoazte mundu guzian zear, eta erakutsi giza guziei» Itzok bere aurreko entzule guziei, Kristok esan, eta zergatik prailiei bakarrik egotzi Jaunaren agindu zorrotz ori, Aren azken nai ori?

Oiek orrela, Gazteizko apaizgaiak asi ziran, ziriki-miriki or-emen, ziriki-miriki alde guzietan. Chinan dagoan Wuhu'ko Jesu-lagun, eusko mixiolariak, erantzun ziguten leen:

Eta, baietz. Joateko nai genunean.

Eta, ezetz,... Erromatik. Ezin zitezkedea... apaizak... mixio-  
etara... joan,

Zer zala ta?

«Obstat praxis».

Gero, Errepublikako burubidea jabetu zan España guziaz. Eta onek auzi-abar berriak ekarri zitun bazter guzietan, eta gurean ere bai. Etzan ez, lengo mixioeterako su bizi ura orregaitik itzali, ezta gutxitu ere; aren ondoan baiñan, beste asmo berri batzuk sortzen asi ziran. Eta lengo mixioen akademiak gañera, beste batzuk agertu ziran: gizarte edesti, eusko-gaien akademi berriak. Aietan ba genitun maisurik, eta maisu jatorrik; bat edo beste emen aipatuko: Barandiaran, Lekuona ta Ezkartzaga jaun agur-garriak.

Gero, etorri zitzaigun gerrateak, ordea, bazter guziak ondatu zizkigun: gotzaia atzerriratu, ikasleak sakabanatu, maisuak sakaildu. Ez izan baiñan, gure arteko aritz ori nolarebaiteko aritzondoa, fa naiz eta aren adar guziak ken, geldi zitzaion aatik kimurik franko. Eta baita, andik indar arturik, laister tantai berriak, eta tantai ederrak eman ere.

Ta oetako tantairik ederrenak: Aldabalde, Goikoetxaundia ta Zunzunegi jaunak.

Aldabaldek, barneko gidari zanez, gerrateak egindako zauri gaitzak txukatu ta gozotu ondoren, gora begira jarri zizkigun gure biotzak eta Jaunaren asmo aundiz ernari,

Goikoetxaundiak, apaizgoaren guna ta mamia aztertu ta aurkitu ta gero, ura jan eta murtxatu-erazi zigun gozoro. Eta berri tu ziran lengo akademi aiei, beste batzuk erantsiak izan ziran: liturgia, kantua ta gogo-jardunena. Eta langai guzi oien eutsigarri bezela, «Surge» aldizkaria argitaratzen asi zan, len «Gimnasium», «Idearium», «Gure mixiolaria» ta «Kardaberatz» argitaratu ziran antzera.

Zunzunegik, gerrate aurreko maisu aien urratsei jarraituz, edesti-gaiak landu, bertako biblioteca zaindu ta ugaritu, ta aspaldi asitako apaiz-mixiolarien, kate artatik, tira ta tira.

## AUKERA

Gauza bi bear omen ditu gizonak mundu ontan zerbait egiteko: jatorria ta aukera.

Jatorri ederra dugu.

Ta aukera, nun?

1947'ko urtean, artean amaitu berria zan mundu guziko gerrate ura. Ta nun-nai ageri ziran orduan egindako sarraski ta ondamenti aundiak. Apaiz eta mixiolari asko il ziran gerrate artan. Beste asko, berriz kartzeletan atxillo turik gelditu. Eta beste ainbat eta geiago, beren mixioetatik, kanpora jaurtik.

Eta Aita Saindua kezka eta arduraz. Arduraz eta kezka, batez ere, bizirik gelditu ziran aiengatik: zenbat ote ziran, eta nola batu, antolatu, ta, egokiera zetorrenean, leku guzietara zabaldu zitezkean. Nai onek biziro eraginda, Eliza guziko gotzaiak deitu zitun banan-banan.

Ta an agertu zan, besteen artean, Guayakileko gotzaia ere. Ta alkar agurtu ondoren, asi zan gure gotzaia, Heredia'tar Felix, bere berriak ematen:

—Aita Saindu, Guayakileko elizbarrutiak iru probintzi ditu: Guayas, Los Rios eta El Oro.

—Eta zenbat bizilagun?

—Milloi bat, or nunbait.

—Eta apaizak?

—Bi amabiko.

—Gogorra da ori, gero!

—Ori bakarrik balitz!

—Zein da, zure iritxiz, Guayakileko bearrik aundiena?

—Apaizena!

—Ba-dituzu Ekuadore bertan: Quiton, Ibarra, Cuencan...

—Gutxi dira, Aita Saindu, eta aiek ere eztute etorri nai!

—Ta zer egin?

—Mixiolariak bear ditut. Guayakileko elizbarrutia zabalegi danez, zatitu egin liteke. Ta orrela, elizbarruti berri bat egin, Los Riosko probintziakin. Eta oneri eman dakióke Mixio izen ori, mixiolariak ara bialdurik; danetan atzeratuena baita.

—Eta nortzuk bialdu?

—Lanbide gogorra, gixajoentzat; gazte, osasuntsu, kolko aundiko ta lagunarteko diran eliz-gizon jainkotiar eta pizkorrak, bear.

—Biar dator Gazteizko gotzaia, ta areri eskatuko dizkiot.

—Xabier, Zumarraga ta Antxietaren kide diran euskaldunoik etzira gaizki etorriko. Naikoak dira zortzi, asteko.

Urrengo egunean, Gazteizko gotzaiaren txanda. Carmelo Ballester zan bera. Eta aurreko egunaren antzeko, alkar-izketa zan, Aita Saindu ta bion artean:

—Aita Saindu, Gazteizko elizbarrutiak iru probintzi ditu: Araba, Bizkai ta Gipuzkoa.

—Eta zenbat bizilagun?

—Milloi bat inguru,

—Eta zenbat apaiz?

—Bi milla.

—Lur ontako ondasunak, baita zerukoak ere, Jaunaren doaiak dira. Jaunak danentzat bidaltzen dizkigun atsegin-sariak. Eta pekatu beltza da, beltza oso, bakoitzak norberarentzat bakarrik, gorde nai izatea.

—Bai, oneri nagokiola, apaiz euskaldun asko ditut, erritik kanpora, lanean.

—Ezta ori naikoa.

—Egia bai, geiago ere egin liteke.

—Guayakileko gotzaia egon zan atzo nerekin. Euskalerrik aña bizilagun ditu, ta alako lau lurralde; eta ori dana zaintzeko,... zenbat apaiz dituzula, esan duzu?

—Nik?... Bi milla.

—Ba,... arek,... bi amabiko!

—Gogorra da ori!

—Gogorregia! Eta prest al zaude zu, areri lagun etortzeko?

—Bai...! Agindu, agindu.

—Zure agindupeko bi milla apaiz oietakorik, zenbat artu ditzaiket nik mixioterako?

—Nai dituzunak.

—Bai, al duzu ortarako gogoz eta gertu dagonik?

—Bai, noski. Ta ez gutxi! Asmo ontan egon dira aspaldi, ta egokiera onen zai.

—Aski ditut zortzi asteko!

—Orren gutxi?... Eta norako?

—Ekuadoreko, Los Rios'tarako.

## LOS RÍOS

—Los Riosko lurralde ori, gutxi gora bera, gure iru probintziak beste duzu; ta irureun milla bizilagun, or nunbait, izango ditu.

—Ta aren itxura?

—Egazkiñan, aren gañetik patxaran zoazelarik, aza-osto bat dala ematen du. Baso beltzaren itzalak, aza-osto dalako orren muskerra egiten dizu; lurraldean barna dijoazten ibaiak, aren zain-ariak. Ortik datorkio Los Riosko izen ori. Basoa ta ura. Orixe besterik eztuzu.

—Ta erriak eta etxeak?

—Ibaien ertzetan, luzera guztian. Eztaukazu, inguru guzian arkaitz eta arririk. Andesko goimendietan, ur-mingaiñak limika-limika arritu, ta gero andik irristaka ekarritako loi-lurrak.

—Arriz ez, eta zertaz dituzte, ba, etxeak?

—Ango basoak egurrez eta kañaberaz aberats dituzu eta oetaz baliatzen dira etxegintzarako. Sartu lau makil lurrean; Itsasi aiei, gero, banbu-kañabera oien zain zabalak; lastoz estali, azkenez, gain guzia: ta orratx an-aietako, etxe ponpoxa.

—Zenbat gelako etxeak?

—An eztago gelarik. Dana bat. Eta an jan, an lo...

—Eta zenbat bizitzeko etxeak?

—Bikoak. Bizi, goiko bizitzan bakarrik bizi dira. Bean, lau makil tente dituzte bakarrik. Ez baitira atsegin eta gogoko ibai ta basoko urak dakarzkiten suge gorri aiek!

—Piztitzarren lekua, alajañetan!

—Era guzietako piztiak bizi zaizkizu an. Oiek, ordea, eztira bildurgarri enak. Okerragoak dira ango xomorro, eltxo ta txingurri gogaikarriak.

—Eta zertan diardu jendeak?

—Ibai inguruetako zingiretan, arroza ereíntzen dizute. Arroza jaten dute; arroza, arraiz ta basoko igaliak.

—Eta ez al dute beste zenbait jasotzen?

—Bai, asiak dira basoak bota, ta kakao, plátano ta azukrea sartzen; berdín ere larre-beiak azitzen.

—Zerbaiten jabe izango dira, orduan?

—Ez, ez dituzu ezeren jabe. Guayakilen bizi diran nagusien morroiak dira geienak.

—Erri aundietan bizi al dira?

—Erri aundi gutxi dira. Aien inguruetan sakabanaturik, bizi dira geientsuenak.

—Eta nola aietaraño iritxi?

—Onez, bizikletaz, automobillez, ontziz... Bakoitzak al duan olde ta moldez.

—Ta alakoetan, nun egiten duzete lo?

—Elizetako sakristian edo kanpantorrean, edo ta soil utzitako etxe zaarren batean.

—Ba zituzte, orduan, elizak?

—Bai...! Kañaberazkoak etheen antzera, eta auntzak eta inguruko pizti guztiak bertara sartu aal izateko, zulogunez beterikoak. Leandro Zalañari, Cataramako erria egotsi zioten, eta bide danez, bertako eliza ikusi nai zuan, lenengoz. Ate zabalak irikitzearekin egin zun zarataz, zer bait mugitzen asi zala an barruan sumatu zuan gizonak. Altxa gora begiak, eta axeri bat ikusi zuan, aldare-aurreko sakrario orde. Artzen du bertan adaki aundi bat, eta an asten da axariarekin makilka,

—Eta jota garbitu al zuan?

—Ez ura bakarrik. Baita, inguruetan gorderik zeuden beste zortzi ere.

—Kanpoan lo, eta jan ere ala egin bearko zenuten?

—Lo, geienetan etxean egiten gendun; jan beti kanpoan. Ez bait-genun, asieran, etxe-zairik.

—Ta bapo?

—Otorduak beti bat: arroza zuri-platekada bat, txerriki edo eta olloki-zati batekin.

—Ta?

—Txerri-koipez maneatzten dute an dana. Ta gaitz-erdi, bero ekarriko balute; geienetan otz-otz jaten da, eta bola antzeko bat egiten zaigu barruan. Gero, beste erara maneatzten genun guk. Bero ikaragarriak egiten baititu an eta gogo gutxi izaten da jateko. Atera ortik zein diran gure otorduen irritsak. «Abadearen lapikoa txikarra, baiñan, gozoa», diote Arratiako baserritarak. Ez dituzte, andik etorritako gixagaxoak, alako asko ikusi an, beintzat!

## MARKATUAK

Guayakileko «Reeducación de menores», deritzan etxe ortara deitu ninduten bein, bertan gogo-jardunak emateko. Ango neska-galduei entzunda ikasi nun ondo, inguratzen ginduan gizartearen ustela.

Ona, azaldu zidatena:

—Zer dala ta emen?

—Emakume galduen artean arrapatu ninduten.

—Nork eraman zindun, ba, ara?

—Neronez joan nintzan.

—Zergatik?

—Begira! Zazpi nebarrebak gera, ta ni zarrena. Ez gera baiñan, aita batenak, bakoitzak aita bat dugu.

—Eta ez al zan zure ama ezkondu?

—Ez! Gizon bateri lotu zan aurrenik, berakin ezkontzeko asmotan. Arek bañan, amak erditu niñun bezin laster, bertan bera utzi zuan. Beste bateri itsasi zitzaion, orduan, ama, adu obe bearrean. Onek ere, bañan, besteak bezela adarra jo, baita gañerako beste bostak ere. Gizonez aspertu, ta lanean asi zitzaitzun azkenik, gu, txikiok, azitzearren.

—Eta zuk, amataz erruki bearrean, etxetik igesi!

—Nere gain utzi zizkidan danak, eta ni aspertu!

Ta beste batek:

—Zenbat urte daramazkizu, bizi-modu txar orretan?

—Iru urte.

—Ta nola asi ziñan?

—Amabi nebarreba giñan etxean, eta maiz gelditzen giñan, mokaurik gabe. Ala, amairu urte nitularik, apain jantzitako andre batek itsulastu nindun, bere etxean neskametako artu nai nindulata. Nik siñistu, ta arenean sartu. Ema-galduen etxea zan.

—Ta zer egin zendun zuk?

—Igesari eman nion sarritan, bañan, beti atxikitzen ninduten; eta etsi egin nun, azkenez. Ta olakoak izan ziran, gutxi gorabera, egin zizkidaten azalpen guziak.

Gure Guayakileko etxera joaten nintzan gabero, neska-galdu gaixo aiekin eguneko ordu luzeak pasa-ta. Eta bertako alki batean jarriarik, emengo doñu zaarrak diskotan entzuten asten nintzan, ormatik zintzillik ageri ziran gure argazki aien aurrean, gogo ernariz eta urrutimiñaz;

«Etxea,... Gurasoak,... Aiton-amonak,... Arbasoak...»

Aiton-amonatxo oiek elerazi digute, belaunez-belaun, gure arbaso zaarren gogo, zentzuna, zindotasuna, gizabidea ta kristaubidea.

Gure amatxo maiteak sartu, bere altzoan sartu ere, benetako maitasuna, musu ta musu, musu ta musu beti,

Gure aitatzok berriz, eskutik ginderamala, etxeko izkutu-mizkutu guzietan oitu: tramankulu, tresna, knabasetan; izadiko izkutu-mizkutueta: baratza, soro, baso, lore, abere, egaztietan.

Eta zorioneko bizi-modu ortan, betiko markatuak gelditu.

Markatuak, bai!

Markatuak baita orduan, arextiko neska-galdu aiek ere. Alde ederra, orde, aien eta gure arteko marka ortan!

Etzidan, bañan, Jaunak, jaio aurretik, zein erriko-etxean sortu nai nuken galdetu. Ezta aietako neska-galdu gaixo aieri ere.

Ezjakiñean eta ustekabea jaio giñan, aiek an, eta ni emen.

Zer erru dute aiek? Eta zer aipurik nik?

Ezin genezazkike, beraz, aiek, inolaz ere arbuiatu, ezta gaitzetsi ere. Aiek pizkortzen, goratzen eta eratzen saia bear genduke. Orrela bakarrik, ordain aal bait genezaiokie Jaunari, Arek guretzat izan dun esku luze ori.

## ERRE-OPARIA

Sekulako istillu ta auziak izan genitun, asieran batez ere, La «Ocsa» ta Burgos'ko beste mixio-alkargo oiekin. Eta itsasoko olatuak bezela, bata bestearen atzetik gelditu gabe, une oroz gure mixio-ontzi au jotzen zuten, arnas artzeko astirik eman gabe.

Eta, gure buru zan, Gisasola jauna artegatzen ari.

Eta, da, aurreko egun beltz aietan esaten asi zan:

—Ez bildurtu, mutillak, «asia, erdi egiña; egiñe, urre gorria»,

Eta asitako ura ere, gal-zorian zegoala:

—Ez bildurtu, mutillak, eginkizun aundi guziak izan dituzte eragozpen eta oztopoak.

Eta dana ankaz gora joateko arrisku gorrian jarri zanean:

—Ez bildurtu, mutillak, naiz eta galdurik gaudela, iruditzen ba-zaizue ere. Jakin, geiago eskatzen duela Jaunak, olakoetan. Gertu, ba, mutillak, eta eskeñi bakoitzak zuen buruak Jaunari, erre-oparitzat.

Eta Jaunak Gisasolaren bizia aukeratu.

# # #

Gure arteko Gisasola ori nor dan?

Zeanuriko semea. Izan al zera inor Arradan? Ezagun al duzu Zeanuri?

Askotan izan naiz ni, ta zera berexi bat artzen diet nik ango gauzei ta ango jendeei,

Erdiko errege-bideak, bide-txigor asko, bi ertzetan, gora ta bera. Bide-txigorak lore ta txartakaz jantziak, emen; intzaz busti tako garoaz, an; eta arkaitz zuriaz, gorago,

Goietan, Lamindano ta Lekandako mendien egaletan, urak eta goroldioak eta txertakak jazten dizute arkaitzen larrugorri losagarria; ta sekulako izkutu, abaro, aterpe ta sakana zoragarriak egiten. Maitagarriak iñoiz munduan bizi izan badira, uraxe da ziurki aien bizi-tokia!

Andik bera begirata, patxadazko baserriak, zoko guzietan. Eta baserriak baratzez jantziak inguruetan. Eta baratzak, nekazariz beteak.

Eta an, goiko Gorbearen tontorrean, artzaiaren isla beltza, bere makillaren arrimuan, bere artaldeari begira. Gañean, bi egalak tenk eta ertzetako lumak gora, sai nabarrak egalka. Eta oien itzalarekin naasian, an beko larre gozoetan, beor-saillak, eta bei-taldeak eta ardi-saldoak, beren txilin-otsakin, inguru guziak betetzen...

Ipar beltzak jota, beko sakon guzia, laño zuriz jantzi da. Eta Lamindano ta Lekandako tontorrek sakanabatzen uzten ezta, Barazarko gerrian lotu zaizkio multsoka. Eta or dabiltza indarka, gora ta bera, mendi gogorrakin burruka latzean, irtegune baten billa. Amor eman bear, azkenean, eta geldigeldi geratu dira gero, mendí-egaleko aitzarekin txutxu-putxuka.

Zertaz, baiña? Zer ote dio, itsasotik lasterka datorren lañoak, mendi barruan geldirik dagoan zugaitzan?

Uso-aldrak ikusi nitun, beste bein, itsas-lañoen orde, ego-aizeak goitik jota, beko basoetan, mokoka ari zirenak. Mokoka ta elaka.

Luma politezko uso tzuria, zer diozu arkaitz arteko aritz orreri?

Guzti oriek barru-barruan sartu bai, ta gogo-ernari utzi nauteluzaro! Ta,... uso ta lañoaren antzekoak iruditu zaizkit Arratiako jenteak... Baltzola ta Superlegor'ko kobatik irtenda, bisonete, artza ta gañerako basa-piztien atzetik zebiltzan antzíñetan, Bizkaiko lurralde zabaletan. Berdin, gero, etxe-abereen atzetik artzai bezela. Jantzi zizkizuten, azkenenan, ibar guziak baserriz eta olaz.

Aize berriak etorri egun oetan, ordea! Ipar-era ego-aize zi-

talak! Eta itsas-laño eta uso-aldra aien antzera, Barazar'en magal eta altzora bultza dituzte gaixoak.

Eta antxe gelditu dira: estu, bañan, bere buruaren jabe; bere izkera, oitura ta antziñako izkutu-mizkutuen jabe; beren gizabide ta kristaubidearen jabe; eta itsas-laño ta uso-aldrakin, txu-txu-putxu zoragarrietan.

Orrela, amarretik batek, ots, irurogei eliz-gizon eta andrak, laño ta uso antzera, egalak zabal eta ega egin dizute beren txokotik munduan zear. Gizaki prestu ta argiak, neskatil gartsu ta trebeak. Oietakoa duzu Gisasola jauna, Baratzar'en onetan jaio-tako Zeanuritarra.

# # #

«Arratiako txekorra, txikarra, bañan, gogorra» dio esaera zarrak. Gure arteko gizon au ezta, baña, txikarra, gutxiago gogorra. Orren alderantziz, gizaundi zenun, musu gorri, arpegi zabal eta gorputz beteko gizaseme eder.

Erriko sei semek eman zuten batera lenengo Meza. An zegoen nagusi Mateo Mujika, orduko Euskaldunen gotzai, an zan Arratiako erri guzia, an inguru guzietako lagunak. Dana zan ederra, dana ospetsu; danen ederrena bañan, sei Meza-emaille berriak, eta seiretan eder eta jatorrena, D. Máximo. Utsune aundia utzi zuan Euskalerrian, bederatzi urtez, barne-gidari egon zan Gazteizko apaizgaitegian, batez ere; aundiagoa bete, ordea, Ekua-doren.

Danan buru zanez, berenak ez ezik, danen arazo ta arloen ardura izan bear, eta danen errietan barna ibilli. Etzeukan artarako aukera aundirik, gaixoak; bertako bide guziak lurrezkoak bait ziran, orduan, laurden bat autsez beterik udaran, eta beste ainbeste lokatzaz neguan.

«Jeep» dalakoak bakarrik sartu liteke bideotan barna, udaran. Neguan ezin, eta mandoz ibilli bear. Artan oitu gabea, maza-tzen zitzazkion ederki ipur-masallak, trinkili-trankalo, mando gañean, ordu luzeetan.

Ibaiz errexago. Izaten zitun onek ere bere arrixkuak, bai. Aizkoraz ustutako zugaitzak ziran bertako ontziak; estu ta ariñak, beraz edozein zirkin-zarkiñak tira-bira egiñerazi lezaitekenak. Gorpuzkera aundiko gizona, estu ta larri ibiltzen zan, olakoetan. Eta ala bein, zirkintxo bat egin zula edo etzula, ankaz gora joan zan, ibaiaren erdian. Negua zan eta ur aundia zetorren abiadura bizian, Estutu ziran ontzikoak, eta naiko egiñal egin ondoren, atera zizuten gizona. Buruko txapela esku batean eta bere eurita-koa bestean zula, atera ere. Etzituan arratiar onek bere estu ta larritasunok arren, bere aiek eskutik galtzerik nai izan.

Sari egin bear zitun bide luzeagoak, Quito ta Guayakilera, batez ere. Artarako «mixto» izeneko kamioi kankar batzuk artu bear izaten zitun. Atzekoaldea, era guzietako zorroz beterik izaten zituzten kamioi direlako oiek, eta jentearentzako aulkizko bi edo iru mail, aurreko aldean.

Mail estu ta aulki estuago aietan ezin ankak erara euki, batzuetan gora, bestetan ertzetara dantzan erabilli ondoren, naiko xautu ta minberatu irixten zan, amabi orduren buruan. Ibillialdi oiek gora-bera, Vínces'en egiten zitun egonaldi luzeenak. Emen-dik zuzentzen ere mixioko gora-bera larriak.

Egonaldi luzeak egiten zitula Vínces'en, esan dut. Berak ala nai bai; etziran bañan, orrela izaten. Maiz, maizegi ateratzen zizuten bere egonetik, eta erri-agintariak ikusi ta eliz-gizonekin izketatu, eta artu-emanak zuzendu bearak.

Eta zeñen gozo, adikor eta martzal agertu zan eginbear gaitz onetan. Bereala jarri zitun gure alde, asieratik aiko-maiko ziran aien gogo, iritxi ta usteak. Bai ta oietako asko benetako adixkide zintzo biurtu ere.

# # #

Lur xamurrak ditu Arratiak sakonetan, eta arkaitz gorriak ertzetan. Olatsu, erri artako gure gizon onek. Betargi xamurra dager muxuan, ertzetik ganezka darion arrizko aiurria dizu, bañan, barruan.

Eta estu da lagunekin, estu kanpokoekin, eta estu, batez ere, bere buruakin. Zenbat aldiz egunezko lanaz leer eginda egon arren, gau-aldi osoak eman zitun elizan itzarrik. Alako gau-aldi batean, eskeiñi zion Jaunari, bere burua: gure arteko lanbide au aurrera eramateko,... nekeak, miñak, ukaldiak, baita biziaren gal-teza ere... eskatzen ba dizkiguzu,... ona ni emen, Jauna.

Eta Jaunak ontzat artu aren eskaria!

Ba-zijoan, oi zunez, anka kizkur, mixto kankar batean Guayakileko urira, ta petroleoz beteriko beste kamioi bat agertu zitzaien aurrez-aurre. Egin zun eskui-aldera gure mixtoak, bañan, alderoka zetorren aurreko kamioitzarra gañera etorri, ta sekulako kasketekoa eman.

Naasi ziran, talkakoaz, mixtoko gizakiak eta kamioitzarreko petroleoa, ta bertan txinparta sorturik, sugalda aundi batek jantzi zitun danak.

«Erre-opari» esaten da euskeraz, Jaunari eskeñitako bizia; eta alaxe, erre-erre egiña gelditu zan, Jaunari eskeñitako mixiolariaren gorpuz ederra. Vines'en eortzi zizuten aren gorpuzkia, ta ezta sekulan orrelako illetarik bertan ikusi.

Illobi bat dager, arrezkeroz, betiko loretan, kanposantuko baratz artan. Eta lore bakar, eder eta zuri orrek, mundu guzian bakar dan Gorbea'ko «petularia fragantissima» lore berexi ura irudi.

## LOS RIOSKO LENENGO GOTZAIA

Ekuadoreko seme Adolfo Astudillo izan zan Los Riosko lenengo eliz-burua. Eta aren urren, bederatzi urte barruan, gure Bittor Garaigordobil. Aurrekoaren eriotzetik irugarren egunerako egindako autapen au, Ainta Sainduaren berexizko lana izan zan. Alaxe ere egin zizun gure Mixio au eraiki zunean. Maite, ta sasi-igarleen gañetik, maite ere gaitulakoaren zantzu ziurra.

Urkiola'ko Amaitermin baserrian jaioa, ba-dizu gure Bittor onek, bazter aietako taju ta kutsua. Anboto, Mugarra ta Untzillakulluen antzeko gorpuzkera mear, giar eta zaillekua.

Urkiola'ko lepoaren antzeko barrukera gizen, abetats eta loratua.

Urkiola'ko zaindari, Antonio deunaren, joera berekoa, eta jakitez eta itzez eta ibiltzez.

Ekua-dorera abiatu baña len, illabete osoko gogo-jardunak egin zitun Gazteizko apaizgaitegian. Eta begien aurrean daukat oraindik, an bertako ibilgune luze aietan barrena, besoak burua ta sorbaldak makur, batera ta bestera astiro ta uzkur; alan aspertu, ta leioaren arrimura joaten gero, bere burua bi eskuetan estu; eta andik bertako elizatzora, azkenik, bertako alkian, belau-niko, bi eskuak maisailletan sendo, zentzu ta kordegabe.

Zer esan ote zioten Iñazio deunaren egi zorrotz aiek?

Zer zirrara egin aren asmo aundi aiek?

Sekulako aukera ederra topau zizun Los Riosen, bere zernola berexi oiek zabal-zabal, eta iñungo oztopo gaberik, bizi, erabilli ta zabal-erazteko. Iñungo oztopo gaberik esan dut, ezta? Bat topau zun, ala ere. Erri-erriaren gabezi, exkaxi ta jakin-eza. Orrek, ordea, berez extu ta xorrotx zan gizon oni, biotz zabal, nasai ta xamurreko beste doai berri au ere ekarri zion. Eta erri xeakin egin aal ezin zuna, erruz egin zizun gero, ainbeste ta ainbeste eskolatu gizonekin, Ekuadoreko erri nagusietan.

Orrela, moja, praile, apaiz, apaizgai ta kristau prestu gutxi izango dira Ekuadore guzian, onen itzaldi ta oar xamurak eta ziurrak entzun gabe egon danik. Berau duzu bertako gotzaien aberik zindoena, berau Ameriketa guziko gotzaietan argi ta sendoe-netakoa ere.

Los Riosko elizburu zanetik zazpi urtera, 1963'ko urtean, ain zuzen ere, aren doai ta lan aundi oiek zirala ta, oraingo Aita Saindu Paulo VI'garrenak, gotzaiaren goi-mallarra igoerazi zun. Urrengo urtearen asieran egin zan, amaitu berri zan Babahoyoko katedralean, elizkizun berexi ori.

Elizkizun ederra, bai. Aita Sainduaren ordezkari Bruniera jauna beraz egin zizun bertako buru. Berekin ekarri zitun inguruko gotzai geienak. Esan bearrik ere ez, gu ere an giñala, Ekua-doreko mixiolari guziak. Bertan ere, noski, Los Riosko eliztar-

-mulko gaitza, eliza jendiak gañez eginda, kanpoko kaleak bete arteraño.

Ango kantuak, ango txaloak eta an egin ziran itzaldiak, gero!

Etzun berak alakorik asko uste!

Ezta nai ere,

Kosta zitzaigun danoi, bera artara etor-eraztera.

Bere buruaren konturik ez egiteko, esan genion; dedu ori berari ez ezik, gu danoi ta gure mixioen etorkizunari, egoki baño egokiago zetorkigula ta.

Ainbestearekin baitaratu, ta lotsa ez lotsa, jai-buru guziok, gu ta erriaz ingutarik, pozik eta alai eman zitun.

## TXAPELA-DUN BAT ERROMAKO BATZARREAN

Etzan orrekin aren lengo izakera ixil eta apal ura batere aldatu. Etzuan bere joan-etorrietan egazkiñik erabiltzen; naiago ziztuan bertako ur-ontzi ta mixtotzar aiek. «Jeep» bat eman zioten gero, ta arekin dabil orain, bera bakarrik, batera ta bestera.

Eta errietara irixtean, bertako eliztarrak itzaldi bero batez agurtu ondoren, aiek aitortzen jartzen zaizu patxaraz, ta antxe ordu luzeak ematen. Eta zeregin ori noizbait bukatutakoan, gurekin alai jardun, eta muslari bikaña baita, musean ekiten dizu, gero, atsegin aski.

Apaiz eta gotzaiaren jazki eta ezaugarriak, geikeritzat emanda, beste edozein gizon bat bezelaxe dijoakizu kalerik-kale. Ta asieran egin zuten bere jauretxe ura, geiegi irudituta, bera saldu, ta apaizen beste etxe askozaz apalagoan, anaikiro bizi zaizu.

Ez baitu kanpoko itxurak gizona jazten, barneko argi ta suak baiño. Lotsagarri ere litzake gañera, alako erri beartsu artan aundikiro bizitzea, ta aien diru pizarraikin, gure buruak edertzea!

Eta gezurrezko apainkeri orde, argi ta su bizia zerion gure gotzai apalari ta «Vaticano» bigarrenko Batzarrean, ondotxo agertu zitun, agertu ere.

Artarako bear ala gertutzearren, zeatz eta meatz aztertu zitun aurretik eskuratu zitun bertako gai guziak. Eta bi aztergai

aukeratu zitun aien artetik, berak geien bizi ta atsegin zitun biok: apaizgoa ta mixiolarigoa.

Doi-doi Batzar nagusiak asiera eman, eta ona emen zer zioten Erromako izparringiak: Txapela dun bat Batzarrean. Txapela ori gure gizonarena zan. Nundik-nora ikusi zuten, ba, ala?

Don Bittor, patrikak eta burua jantzirik, zebillen beti. Patriketan gerriko gorria, eta buruan betiko txapela. Sarritan, ordea bere elizkizun eta abar, aiek aldatu egin bear, txapela patrikara ta gerriko ta eratzunak kanpora eta aztu egiten zitzaion batzuetan, eta ala bere txapela buruan jarraitzen zuan.

Alako batean, topau-bide zuten ango izparringilleak; eta Urkiolako perretxiku antzeko txapel aundi arek, bere gogotan jo nabarmenki. Aipu aundi eman zion onek gure gotzaiari, Batzar nagusi artan; orrek baño geiago, ordea, bertan egin zitun bi itzaldi eder aiek. Lenengoa «Consejo presbiterial»ari buruz, eta bigarrena, «elizbarruti, mixiolari»,

Danak irriparrez artu zizuten, txapela dun euskaldun ori, an, azkenenko alki aietatik altxa, ta izketan asi zanean. Bañan, aren abots zoli ta aren latinezko parra-parra entzun zutenean, danak ixildu, ta gogo onez eta zintzo jarraitu zioten aren esakera ta egi zorrotzetan.

Ona emen lenengo itzaldiaren guna:

«Gotzaiak naiz eta goi-deduz jantzirik izan, gizonak gera, alazeta guztiz ere. Ta gizon guziak bezela, uts eta okerrera makurtuak. Guk, bestalde, gure manuak artara eramanda, arazo aundi ta gaitzak darabilzkigu maiz, esku artean, beaztopatzeko arrisku gogorrean.

Askoz ere beaztopa gutxiago genituzke gure lanbideetan, baldin eta onulari argi ta zintzoak lagunduko ba liguteke. Nortzuk? Elizbarruü bakoitzako apaiz guzien artean aututakoak. Guk baño obeto ezagutzen dute erria. Guk baño obeto ezagutzen beren lagun apaiza ere. Danetan argi ta egokienik lirake, beraz, beurek aukeratutakoak. Orrela, gañera, apaiz guzien ardurapean lirake, elizbarruti osoko gorabera guziak.»

Gorabera aundi gaberik, on-artua izan zan gure gotzaiaren asmoa, eta eliz-lege biurtua.

Itillu ta gorabera aundiagoak izan zitun, aatik, bere bigarren lege-gai arek!

Ona emen aren mamia:

«Eliza osoa mixiolari bada; aren zatia izanik, mixiolari ere bada elizbarruti bakoitza. Pedro'ri bezela, beste apostoluei ere esana bait-zien Jaunak: zoazte mundu guzian zear... Ta Aita Saindua Pedro'ren ordeakoa bada, berdin munduko gotzai bakoitza, apostoluen. Gotzaiak burutzen dun elizbarruti osoa da, beraz, Jaunaren dei orren arduradun; eta ez praile ta mojatxoak, baka-rrik. Eta, Eliza osoan, aspaldi, lege ta lege larri bear luken au, ezta orain arte aitatua ere izan.

Zergatik?

Bildurrez, nunbait. Etzirala apaizak lan oneri eutsitzeko gauza izango. Ta gutxiago, erri-gizon eta emakumeak. Orain, berriz, guk gerez ikusi ta egindakoekin gatozkizue aurrera:

Len Gazteizko elizbarrutia, ta orain Donosti ta Bilbokoak ere bai, lanbide orreri lotuta gabiltzala, aspaldi. Los Riosko elizbarrutia artu gendun lendabizi, orain amazapi urte, Aita Saindu Pio XII'garrenaren aieruz; ta beste ta besteak gero, bai Ameriketean, baita Aprikan ere. Irureun mixiolari kopuratzen ditu gure taldeak: apaiz, praile, moja, neska-mutil eta senar-emazteen artean; danak Ama beraren seme-alabak bezela, bertakoen eta Erromarren atsegiñetan, lan da lan gabiltzanak.

Eta zergatik, euskaldunok egin dugun au besteak ere egin ez?

Ai,... eta garerdiko elizbarruti guziak joera au artuko ba lukete,... beste itxura bat izango luke munduak,... beste gara bat gure Eliza maiteak...!»

Eztabaida gogorrek sortu zitun, Batzarrean, gure gotzaiaren itzaldi onek. Eta asko luzatu zan orregatik, mixioei buruz, artu bear zan erabakia. Orí ontzat artuta, ankaz-gora bait-zijoazten «La Ocsa» ta Burgosko, ta oien antzeko beste alkargo asko! Praile ta apaizen arteko, bereizkeri orren erreka ganeko, zubi antzeko

izan bait-ziran, orain arte, alkargo oiek. Eta bein, erreka kendu ezkerro, zubi-bearrik ez!

Eztabaida luzea izan zan, bai; azkenean ordean, danak bertara etorri ziran.

Eliz osoaren legea da, ba, arrezkeroz: mixiolari dala elizbarruti bakoitza.

Elizaren lege berri orren arabera, asko asi dira, arrezkero, mundu guziko erresumetan asi, gure urrats oien atzetik. Eta lore berri batek altxatu dizu bere buru usaintsua, Elizaren udaberriko baratz aundi ontan.

Gorbea'ko «petularia fragantissima» orren antzeko lore berria.

Manuel Estomba.

## EUSKERAREN GORA BERAK ARRONA GOIAN

1956go urtean, Mayatzak 6: Ezkil ots tristea Arronako baila-  
da zear... Ill kampaia... D. Antonio Insausti Arronako Erre-  
torearen illetak... Kristau talde aundia eleizkizunean... Erri kos-  
korretan noiz edo noiz iltzen baitira apezak... Egunik ez duan gau  
luzean lo gelditu da D. Antonioren gorputza Arronako kampo san-  
tuan... Piztuerako egun berrira arte, D. Antonio.

Kampo santutik beeruntz goazela, Arronako Eleiza eta bere  
etxeak gure begien aurrean... Irripar gaiztoz, nere alboko lagunei  
diotzet: «BATEKOREN BAT IZANGO DEK BA EMENGO  
ERRETORE... ZEIN GIZAAJO IZANGO OTE DEK...?

-ff W -ji

1956go urtean urrillak 14: Kapai otsa berriro Arronan...  
Dingili dangala daia oraingoa... Jendetza aundia plazaren ingu-  
ruan... Erretor berriak ezpaitira egunero izaten erri koskorretan...  
Ango txaloak, ango ongi etorria... Erri agintariak... Zestuako al-  
katea... Anastasio Gorriti, Arruako aguzilla bere txapel gorri ta  
guzi... Zestuako apaizak... Apez potolo bat guzien tartean Elei-  
zan sartu da... Kapa ta guzi pompoxo dijoa. «BATEKOREN BAT

IZANGO DIAGU BA APAIZ ORI ERE» ZEIN GIZAAJO OTE DIAGU.»?

—Zeñ izango zan... «NERONI, GIZONA, NERONI.»

Agorrillaren erdi aldera zan... Nere motortxoa gasolinez bete naiean, Debako gasolin lekuan nago... Aretxabaletako Erretorea urreratu zait.

—Zorionak, Joakin.

—Zorionak...?

—Ez aute bada Arruako Erretore egin?

—ARRUAKO ERRETORE...?

—Ik ez dakikenean, ez dek egia izango, baña Donostiko Obispaduan jakin diat eta berria edonun zabaldu dek.

Egia zan bai; egia izan ere... Urrengo egunean iritxi zan agiria... Nik alde z aurretik ezertxo jakin gabe, nere nagusiak Arrokako Erretore egin ninduten... Berriaren jabe edonor zan... Ni, gustiz ez jakin.

Lengo garaiak... Gauz guzietan ez ziran onak... Agintaria agintari zan... mendekoa menpe-menpeko... Irudi egillearen eskuetan bustiña bezela, gu mendekuok agintarien atzaparretan... Nortasunak... askatasunak... alkarrekiko begirunea... elkar izketak... Gure garaiko itzak ez ziran... Gerora sortutakoak ziruditen.

ir TT TT

Guzia amaitu zan... Meza bazkaria... itzaldiak... Bakoitza bere lekura joan zan... Illunabarra... Bakardadeko aundiko erria zirudian Arronak... Errian, bertako apaizok eta, ori bai, Anastasio bere txapel gorriarekin... Gabaren luzea bai luze... Lokartu eziñ... Aize zakar beldurgarria lenengo gau tristean... Guzia amets zirudiñ... Goizeko erregetxo zirudiñ apaiz potoloa aizearekin belduz jota... Aizearen dambarrak ípurditik aterako ez ote nere gau etxea?... Baneukan naiko asti pentzamentuetan murgiltzeko... Batera eta bestera darabilkit nere irudimen gaxoa: «Zer erri ote diat? Nolako jendea...? Ongi konponduko ote nere erriarekin...? Geroak zer ekarriko ote...?

Gaur parre dagit egun ura gogoratzean... Parragarri derizkiot egun artako kampai ots, txalo eta kristautaldearen ongi etorria... Erriko erregetxo baten antzera agertu ez nitzan ba Arro-nan...? Erriko serbitzari eta morroi baten itxurarik ez neuken... Apal eta umilki agertu bearrean, Jainko txiki baten antzera alajaña... Lotsgarriagorik...

Beste garaiak ziran aiek ere... Giro artako seme izaki ni ere, eta aundikerizko pekatu zoroan jausi... Jasoa izango al dut egun artako pekatuaren barkazioa...

Astele goiz ura beste egun bat zan... Gau osoan lotaratu gabeko nere begiak gustiz neketsu ditut... Bere tokian tajutua, ez dirudi nere buruak... Beñere baño pisutsuago deritzait... Goizeko zaspirak dira... Katiako etxetik Eleizaraño berreun bat metro... Ipurtargi antzeko argi batzuek bidea argitzeko... Bide tris-teagorik... Goruntz nijoala, langille talde bat beruntz dator... Aien arpegirik eziñ iñolaz ikusi... Benetan agur garratz eta legorra aien espāñetan lertu dana. Ni beziñ umore oneko jaiki dira itxuraz:

—Buenos días, Buenos días.

Auxen dek lana... Euzkaldunik ez ote nere Eleiz inguruan...? Masalleko bat eman bazidaten, min gutxiago sentituko nuen... Nora etorri nauk... ? Gure gerla madarikatuaren ondoren, bost urte egin nituen erdal errian. Berriro Erdal errian ni ote...?

™      W      ™

Badijoaz egunak... Ari naiz erria ongi ezagutzen... Nik uste baño milla bider atsegiñago deritzait... Euzkaldun eta erdaldun ez inguraturik bizi naiz... Badajoztarrak dira Erdal errikoak. Zenbat...? Berreun bat...?

Nola datoz alkarrekin euzkaldun eta Badajoztarrak?

Berrogei urtetik gorakoak ez dira elkarrekin naazten... Adiñ ortatik gorako euzkaldunak alkarrekin dute beren bizitza; Erdaldunak ere bat besteekin alkartzen dira. Talde bakoitza bere bide-

dijoa... Ain dira desberdiñak talde baten eta besteen izaera, izkuntz eta oiturak...

Eta... Euzkaldun eta Badajoztar gazteen artu emanak...? No-lakoak dira? Alkarrekin naasian bizi dira... Badajoztar oetako asko umetan etorriak izanik, euskera darabilkite barra barra... Ez dago etsaikeririk euskerarentzat euren artean... Euskera mintza nai zuten geienak... Lur berrian lurra ongi artutakoak ziruditen Badajoztar gazteak... Beren ernetako bizitz latz eta garratza ezagutzen zuten eta beren errien irrikarik ezin senti Eguneroko ogia ematen zien lurrarekin txertatu ta bizi, naiago zuten.

Egun batez Badajoztar sendi baten batayoa gure Eleizan. Galdetu diot aurraren aitari: —Nungoa zera?

—De Zalamea de la Serena, provincia de Badajoz, para servir a Ud.

Eta euskeraz zekian Zalameako gazte batek dio:

—Bai, au ere txurrianoa da.

—Y tú qué eres? Aitaren erantzuna, No eres de Badajoz?

—Eta euskeraz erantzuten dio: Nik euskeraz bazekit, ike ikasi zak euskera eta ez aiz izango txurrianoa.

Luistar Kongregaziokoak ziran mutill gazte geienak urte aietan. Urte batean Badajozko seme bat izan zan Luistarren Lendakari. Bere deitura Antonio Granados. Euzkeldun gazteek erdaldunak baño geiago ziran. Baña bai euskeldun eta bai erdaldunek, bat egiñik, Badajozko seme, Antonio Granados lendakaritzarako aukera zuten.

Egiazko Arruar balira bezela jokutzen zuten Arruako erdaldunek. Auzo lanean, erriko jaiak eratzen, edozein eginkizunetan alkarrekin ziran beti euskeldun eta erdaldunek.

Prasku Azpeiti, euzkeldun jatorrari esker, aureskua dantzatzeko ikasi zuten emengo gazteek. Bai ongi ikasi ere. Erritik kam-pora ere dantzatu oi zuten. Nor ziran dantzarioek...? Denetik, naasian euskeldun eta erdaldunek.

Urte batean etxez etxe eta baserriz baserri, Jesusen jaiotzarekin ibilli ziran emengo gazteek. Amaika lan egiñ zun gaur Afrikan misiolari den D. Demetriok, euskerazko kantak erakusten; bi eta iru abotzetarakoak ere ba ziran. Gazte talde arretan iñolaz ezin ezagutu nor zen euskeldun eta nor erdaldun.

Ta aurrak...? Zeiñ pozgarri badajoztar umetxoekin euskeraz mintzatzea. Ba ziran tartean euskeraz aitortzen ziranak ere... Aur guziekin, naiz euskeraz jakiñ ez, euskeraz mintzo oi giñan apaizok. Auek aurrak alkarrekin ikasitako ikako euskera erabiltzen zuten.

Egun batez D. Juan San Sebastián, emengo apez batek, Mari Pilar Igual izeneko nezka koskorrari galdetzen dio:

—Mari Pili, ba aldakizu, nun dagon D. Joakiñ?

—Etzekiñat.

D. Juanen algarak urrutitik entzun zeizkean. Aurtxoak biziki eta aserre bizian eraso zion:

—Ez diñat geio euskeraz eingo; ez diñat eingo.

Euskeldun mutill jator batekin ezkondata dago Mari Pili Igual, Villanueva de la Serenako alaba. Ziur nago bere aurrak benetako euskeldun izango dirala,

Arronako euskal giro gozo arretan pozkiro bizi nitzan. Iru illabete baizik ez naramazkiela Euzko Gogoa zeritzaion Errebistan Arronako Euskal giro gozoa agertu nai izan nuan; 1957go Ilbeltza eta Otsailako alean «BADAJOZTARRAK EUSKALDUN» izenarekin argitara eman nuan irakurgai bat. Emen dijoakizu:

## BADAJOZTARRAK EUSKALDUN... ?

Gipuzkoako erri koskor batean gaituzu... Mendi tontorrean jasota Eleiz zar bat... Noizbaiteko etxeak inguratuta erriko plaza, eleiz ataria. Plaza barrenan umetxoak jolasean... Amaika badabiltz... Zenbaterainoko iskanbillak euren artean... Ez dira geldirik egotekoak... Ez orixe... Milla demoniño badituzte gorputz barrenan.

Euskerea parra parra darabilkite. Ez dira gero Euskal Errian jaiotakoak aur oe guziak... «Estremeñoak» dituzu geienak: Ba-

dajozko probintzikoak. Bizi bearrak erakarrita, Badajoztar berrogei sendi arkitzen dira gure artean. Gauzik atzsegiñenetakoa da erdaldunen ume oei galdetzea:

Nungoa zera, mutiko...? —Zalameakoa.

Eta zu neskata...? —Esparragosakoa.

Erdaldunen umetxo oek beti naasian dabiltz euzkaldun aurtxoekin. Egun guziz mezetan dituzu Badajozen jaiotako 30 ume txoak. Meza garaian euskera garbian itz egiten die bertako apaizak. Eguerdian kristau ikasbidea euzkeraz. Noizbeinka bere erakutsiak jaso dituzten ikusteko, galdera erderaz. Gabaz, errosarioa Eleizan eta bai biziki erantzuten dutela: «Santa Maria Jaungoikoaren Ama erregutu ezazu...» Eleizkizuna ondoren listatxo «piper» norbaitek egin duan ikusteko: Julian Igual, Dominga Trenado, Pedro Tamayo, Gregoria Pizarro, Luis Galán; «Emen nago, emen nago, emen nago» oyu egin eta an dijoaz pozkiro berriro jolasera.

Erdaldun umeak euskeldun egitea, bai gauz atsegiña, esaten zidan bertako Erretore Jaunak.

—Bai, baiña, Guraso erdaldunek...? Ez dira aserre euren erdaldun umeek euskaldun biurtuta ikusita? Orrelako aldagetak ez die noski poz aundirik emango, Erretore Jauna.

Aserre...? Bai zera. Gurasoen aurrean ere euskeraz mintzo dira nerekin. Bai baitakite neretzat atsegiñ aundiena Zalameako umetxoaren aotik euskera goxoa entzutea dala. Gurasoi berriz, eurek inñolaz jaso ezin duten euskera, euren aurrai entzuteak poza darie.

Zeño Cura?, esaten zidan oraindala egun batzuek Esparragosako emakume batek, «nuestro chico no quiere ir al catecismo... Como le han puesto con la catellano... El quiere en vaco...»

Pozaren pozez, lerdre jario gelditu nitzan; nere baitan nion: «Bapo zegok, Esparragosako emakumea ni baño euzkaldunago». Ikustekoa da gero Juan Mari Badajozko mutiko euzkalduna Agur Erregiña eta Nere Jesukristo Jauna ikasten. ...Ez da makala, Juan Mari, ez orixe.

Santagedako eskea egiteko «Dotriñako» umetxoak gertu ditugu. Baserirtar jantzita eskea egin bear ordea... Eta bai benetan

alegindu zirala erdaldun emakumeek euren umetxoak baserritar jazten. Nork igerri Zalameako umetxo aiek Aizkorriko baserri batean sortutatko aurrak etziranik... Eta Esparragosakoak...? Zein amona pompoxak... Erdaldun etxe guzietan entzun ziran Badajozko umetxoen euskal abestiak:

Aintzaldun daigun  
Agate Deuna  
Biar daba Deun Agate  
Etxe onetan zorion utsa  
Betiko euko al dute,

Illunabarra... Pozkiro egon zeikean Erretor Jaunarekin. Etziztaizun bereala aspertuko ez, Badajozko umetxoen kontutxoak esaten... Etxera joan bear ordea... Agur egiterakoan, bere biotz barruko kezka dagerkit Erretor jaunak: «Erdaldunek euskaldutzen ez ditugun bitartean, euzkaldunok erdeldun biurtuko gera; eta orduan bai Euskal erriak benetan lurra joko duela.»

# # #

Ez da izan alperrikakoa nere egoera Erretore Jaunarekin. Euskal erriari buruz amaika pentzamentu badatozkit: Nork ote du arrazoi...? Maitasun gozoz Badajozko umetxoak euskalduntzen ari dan Erretoreak edo «Koreanos» deituta, biotz barruko ezin ikusia agertzen dien euskaldunak...?

Erdaldunez betetzen ari zaigu Euskal Erria... Zer egiñ bear zaie...? Al degula sarrera ukatu...? Bein emen, ostikopean artu...? Arazo au ezin baztertu. Galdera oni erantzuna eman egiñ bear: Nola jokatu euskaldunok gure etxera datozen erdaldunekin...

Bizitzeko eskubidea gizon guziena da. Bizi bearrak erakarrita datozen erdaldunei eziñ kristauak geran aldetik sarrerik ukatu. Erriko Agintarien egitekoa da ordea neurriak artzea arrotzak gaezka etorrita, erriko oitura onak galdu ez ditezten... Nork ez du ikusten guziz lotsagarrienetakoa dala etxe bizitz batean iru eta bost sendi sartzea? Naspilla oiek etxe batean bai benetan kalte-

garri... Gure oiturak garbiak nora dijoaz orrelako nazketa beldur-garriekin...? Zoritxarrez gaur erdaldun asko gure artean nola ala bizi dira. Ezpaitira bear gañako neurriak artu gure artera iritxi diranean...

Tajuz, euzkaldunen izaera eta oiturak ontzat artzeko asmoz datozten erdaldunai ordea, ezin guk ateak itxi.

Gañera erdaldunen bearrean ez ote gera arkitzen Euzkal Errian...? Azkenengo urteetan zenbateranoko aurrerapenak egin diran Industri gaietan Euskal Errian. Lantegi berriak nun nai dakuzkigu... Lantegi berriak, etxe berriak, bide zabal eta baso lanak beso langille asko eskatzen dituzte. Nun daude gure artean piontzarako beso langille oiek...? Nai ta naiezkoak izaki ordea lan gogorretarako peoiak... Euskaldunak ordea gero ta geiago uxatzen ari dira euren eskuetatik piotx, pal eta atxurrak... Arrasoia-ekin, errexagoko bizitza aukeratzen ari dira euzkaldunak: Ofizienak, arotz, burdiñ lanak eta abar... Lan gogorretarako ez dago naiko euzkaldun mutilik; eta euren ordeaz erdaldunak darabilzkigu.

Egia auxen da: Alde batetik euzko arrazarentzat kaltekoa da erdaldunen etorrera; bestetik ordea gure industriak aurrera jotzeko, erdaldun besoak bear.

Zer egiñ...? Nolatan korapillo au askatu...? Antziñan enda eta arraza bakoitza nasketarik gabe bizi oi zan... Gizonak ez ziran ibiltari. Ez pai zan nun ibillirik. Euskalduna Euskal Errian bizi zan. Arrotzik etzetorren gurera. Orregatik eziñ izan Euskaldunen artean odol nazketa aundirik. Gaur ordea... Erri txikienetan ere arrotzak sartu dira. Egunetik egunera geiago ari da odola naztutzen gure artean. Galdua dago beaz edo gustiz galtzeko bidean euskaldun arraza...? Ez det uste.

Abere artean nai ta naiezkoa da odola, orrelako arrazakoa edo alakoa izateko. Giza artean prdea... Arraza bat beste batetik berezitzeko odol utsari begiratzea Alemaniko razismoan jaustea litzake. Odolari garrantzi aundiegia ematea, gizonari gorputz dan aldetik begiratzea dala derizkiot. Erri bateri berezitasuna odoletik baño geiago bere «espíritu»tik datorkio. Euzkaldunen endan eta

arrazan naiz eta odol nazketa aundiena sortuko balitzake ere, euskal oiturai, euzko animari, eta batez ere bere izkuntzan eusten zaion bitartean, Euskal Erria beste errietaryik berezitua izango litzake; euzkotarren enda eta arraza ez legoke illa. Ez orixe. Euskerak egiten du Euskal Erria Euskal Erri. Eutsi dezaiogun beaz gure izkuntza maiteari.

Nerekiko euskera ez da iñoiz galduko. Orretarako aski litzake ikastoletan euskera eta erdera umetxoai erakustea. Antziñan nai izan zan bezela, bilinguismoa jarri ikastoletan, aurrak erderaz beziñ ongi euskeraz irakurri eta idazten ikasi, eta euskera galdu...? Ez dago beldurrik.

Urdallari begira arazo guztiak erabakitzen dituzten askotxo dira gure artean. Zertarako balio du euskerak...? Ori esatean, babarruna jateko ez dala euskera bearrezkoa adierazi nai dizute. Orren romantiko agertzen zaizkigun oei, erakutsi bear zaie orratik Euskal Errian ogia jan nai duanak euskera nai ta nai ezean bear duala. Ernetako serbitzari, Dirukutxetako zaindari, geltoki eta toki ofizial guzietako gizonak euskera jakitera beartu eskeroz, laister lirake guztiak euskeraz parra parra.

Ikastoletan euskera...? Toki Ofizialetan euskera...? Ametsetan ari zera...? —Zergatik ametsetan...? Betikoa Jaungoikoa bakarrik; gañóntzeko gauz guztiak aldakorrak dira. Beti orrela izan bear degulakoan ote zaude?

Bitartean ordea, benetan euskaldun gerala usten degunok, eginkizun aundia degu Euskal Erriarekiko. Erretore arren antzera goxoki erdaldunak artu, eta aiek euskaldutzen alegindu. Erdaldunen umeak euskaldun egitea, zen gauza atsegiña... Umetxo oei euskera barne muñetan sartzen dieguk. euskal oitura ederren iabe ere laister lirake... Odolez arrotzak izanta ere, zer ajola lioke biotz eta animak gustiz euskaldun balira...?

Erdaldunak euskalduntzea, gauz zailla deritzaizu...? Bai noski gaur eguneko euskeldunekin. Erdaldunak euskaldun egiñ bearrean, ez gera ba ari geure buruak erdaldutzen...? Izan zan adorea Euskal Errian befén lurraren alde jokatzeko. Euzko mendiak gure gazteen odolaz bustita gelditu ziran... Borrokalari sendoak Euzko

lurrari eusteko eta GERO? Gero txapelak, kaskarrak beren oitura garbi eta izkuntz zoragarriaren alde gogor burrukatzeko. Kristauen artean euren sinismena eta bizitza askotan gustiz aserre daude. Gauz bat siñistu eta bestea egin Euzkalduna naiz ni, ao betean, arro, arro, gure artean diote askotxok eta gero euren bizitzan euskera baztertuaz, erdeldun agertu.

Euskera gabeko Agirrebalzategi eta Arostegi baño naiago ditut euskeraz mintzo diran Granados, Sánchez eta Miranda. Milla bider eusko endari eusteko obeagoak euskeraz dagiten Badajozko umetxoak, erdera utsezko euzko semeak baño. A'tar Jok.»

# # #

Atsegiña zan leen urte aietan Arronan bizitzea. Euskal giro artan, zein errexia euskeraren alde Ian egitea...

1960go Jdrraillearen 19-an lan berri bati ekin genion.

Nork ez du gogoan Arrateko Irrati-emisora...? Amaika lan eta buru-auste erabilli zituan D. Pedro Gorostidik... Bera teknikua... Bera izlari... Bera zan guzia Arrateko Irratian... Eziñean arkitu izan zan bein baño geiagotan: Irakurri bear zun papertxoia iñun ageri ez... Une artan bertan jarri bear zun dizka, paper artean izkutatua... Estuasun guzietan beti zeukan ateraldiren bat; geienetan tximist-indarra zan pekatari: «Ixill-aldi au tximist-indarraren paltaz gertatu da»... Irrati entzuleak zer zekiten Arraten gertatze zanarekin? Egun batez ordea ixill-aldia luzeegia zan eta arrasoi zakonagoa eman bearrean arkitu zan... Bai eman ere, arranopola: «CON TRUENOS Y RELÁMPAGOS AQUÍ VIVIMOS POR CHIRIPA».

Benetan errikoi eta euskal zalea zan Arrateko Irratia. Euskerak asko sor diola deritzait Arrateko Irratian. Erri batzuek, beren errietan, euskera utsean moldatzen zituzten Irrati saioak... Ta guk... Zergatik egin ez...? Besteak dezaketena, Ez ote deza-kegu...? Nere buruan Bada joztar euskaldunak nerabilzkin... Irrati saio batzuetan Badajozko seme batzuei euskeraz eragin astea, Ez ote da izango gauz eder eta ikasbide on bat beste askorentzat?

1960go jorraitharen 19an aziera eman genion. Arratsaldeko ordubietan Euskal Erri zear entzun al izan zan Arronako semeen abotza:

**ZESTUA; ARRUA ETA AIZARNAKOENTZAT IRRATI-SAIOA.**

Gaurko ekiñaldia: Arruako Bikario Jaunaren agurra-Gure ernetako berriak-Badajoztar umetxo batekin euskeraz-Saski-naski.

Oroígarri bezela egun artako nere itzaldiaren satitxo bat di-joakizu:

«Arrateko Irrati emisora gurea ez degunik ez degu uste. Gure gurea degulako eta Zestua, Arrua eta Aizarnako familietan, Arrateko Irratia entzuten ez duanik ez dalako, gure errietako gora-beratxoak emen azaltzea gustiz egoki deritzait. Errikoia izango da gure jardun-aldia. Ez bekigu entzun, aparteko jakindurik gure-gandik jaso nai lukenak. Gure arteko poz eta atsekabeak agertu... Gure arteko senidetasuna indartu... berotasun eta gozotasun piska bat gure sukaldetara eraman... Gure biotzetako maitasuna zuen biotzetara eraman... Orixe izango da gure eginkisuná... Astelenero zuekin izango gera. Agur goxo bat bijoakie Zestua, Aizarna, Arrua eta gure entzule guziei.»

Irrati saio artan Badajozko umetxo batek parte artu zuan, Nere paper zarretatik dijoakizu egun artako gertakisuna:

—**BADAJOZTAR UMETXO BATEKIN EUSKERAZ.**

**D. Joakifik:**

Arrua-Goiko berririk askok ez dute... Gerra eskeroz aldatu da. Ogia irabaztera, Badajoz aldetik gure errira etorrita, irurogei bat famili arkitzen dira. Erdaldun umetxoak euskalduntzea da gure lanik goxoena... Zergatik ez...? Prantzi Amerikaruntz dijoazenak ango izaera eta izkuntza laister beretzen dituzte... Onera datorrenak, Zergatik gure artean beti atzerritar izan bear du? Euzkaldun biurtu bedi erdalduna eta anaitasun gozoagoa izando da gure artean...

Gaur umetxo bat dakartzutet. Badajozkoa. Euskeraz ez du asko itz egiten baña dotriñako galderak ongi kompreni eta eran-

tzuten badaki. Euskerazko otoitzak ere ikasi ditu... Eta euskeraz dotriña ikasi bear duala dio.

—Zer izen dezu...? —Jose Antonio Tena Waliño.

—Nungoa zera?... —Esparragosakua.

—Onera etorri ziñanean, Zenbat urte...? —Sei urte.

—Otoitzak euskeraz badakizkitzu...? —Bai denak.

—Ia esan Jesukristo nere Jaun... (Eta Jose Antoniok, Jesukristo nere Jaun esaten du).

D. Joakiñek: Ederki, Jose Antonio... Jarraitu orrelaxe... Euskeldun gurasoentzat erakutsi ederra. Guraso euskaldunen ume asko euskerarik gabe daude. Badajozko umetxo au berriz euskaraz ikasten. Ta... ez uste au bakarrik danik. Badajoztarrek izanik, beste asko dauzkagu euskaraz ikasitakoak; batzuek gazteak dira, euskeldunekin bizi dira eta euzkeldun bizitza daramate. Nor da zuretzat euskaldunago euskeraz dakien Jose Antonio Tena edo euskerarik gabeko Patxi Altolagirre...?

• • \*

1960go urtean mayatzak 9. Egun onetan Julian Igual, amar urteko mutikoa gendun berriketan Irrat-saioan. Onela diote nere paper zarrak.

D. Joakin: «Ez da giro ume oekin... Jose Antonio Tenak euskaraz egin zuala Arrateko Radiotik eta orain beste Badajoztar aurrak ere euskeraz egin bear dutela... Jose Antoniok baño geiago dakitela... Ua zozo bat zala... Berak obetogo egingo dutela... Nolatan uxatu nere ondotik? Gaurko au, Jose Antonio Tena baño lotsagabeagoa da. Euskeraz geiago daki... Erdera bezin ongi euskeraz... Txikia, matxakan kolorekoa, bizia, baña prestua. Zale-tuta egongo zerate noski berari entzuteko:

D. Joakin: Zure izen-apelliduak...? —Julian Igual Sánchez.

—I, ez aiz Arruakoa noski? —Ez Villanueva de la Verakua.

—Zenbat urtekin onera etorri intzan? —Seiekin.

—Illabete auetan gutxi ikuste aut; Ez eleizan, ez kalean, Nun abill...?

—Eskabetxeian antxuai burua kentzen. Egunero joaten gera Getarira.

—Ez eukan esan bearrik, motell, Antxo ustel usaia darabiltzute... Ori dek pestia ori... Ez dek giro zuen ondoan.

—Zer nai dezu bada eskabetxeitik ekar ezea...? Koloni usaia...? Kolonia ere botatzen det ba buruan. Usai, usai, usai buruan...

—Aldegintzak emendik... Salitria eta kolonia batera nastuta. Konbinazio polita... Antxo garaia pasatzen danean, banan, banan, albergara eraman eta antxen leña eta espartzuarekin garbituko zaituztet.

—Ez dezu lan ederra artu bear. Odola ere salitre biurtuta daukagu ta. Eztaukagu ezertarako denborarik... Goizen, zaspitan tren artuta aurrera. Gero berandu etxera.

•—Eta erreztatu...? Batere erreztatze alde...?

—Erreztatu... Erreztatu...

—Egia esantzak gero e...?

—Ia beñere ez... Ez do demborik eta...

—Bai, seme, bai erreztatzeko beti zegok dembora. Etxetik ateratzerakoan Gurutze Santuaren egin... Estaziora oala otoitz motx bat: Gaurko eguna zuretzat... Lagundu zaidazu ama... Ori esatea ainbeste kostatze alde...?

—Ez, ori ez da gauz izugarria.

—Eta gero antxuai burua mozten diokela, noiz edo noiz otoitz motx bat: Jesus maite zaitut... Eta oiean sartzerakoan: Jesus nekatuta nago... Lo, lo egin bear det... Biar arte.

—Eingo detpa emendik aurrera...

—Orrela dirua bakarrik ez dek irabaziko... Antxuai burua kenduz zerua ere irabaziko dek... Ta... Dirua aitatu deten eskeroz, esan akidak: Asko irabazten al dek...?

—Aitak baño geio; orduko bost pesta,

—Ta... asko gastatze al dek...?

—Bai zera... Arrai ederra gure ama... Zai egoten da nere diru danak arrapatzeko,

—Ondo zegok ori. Aita eta amari lagundu egin bear zaiek, Jakiña, aitag irabazten duana naikoa bear likek zuek danok mantentzeko baña... Ik eskolara joan bear ukek. Olakoxea dek mundu triste au. Naiko izango diagu. Zerbait esan nai dek geiago?

—Agur denai, batez ere nere etxekoai.

—Ta... Akolitoai ez diek ezer esan bear...? I ere Monagillua aiz ta...

—Bai; Axala, Bitorio, Luisito eta beste danai mezako ardorik geiago ez edateko.

# # #

Ez zaitut geiegi aspertu nai, irakurle. Beste Badajoztar asko izan ziran Arrateko Irrat saioan euskeraz jardundakoak. Azkenengo onekin amaitu dezadan. 1960'go urrillan, Rafaela Granado Granado Zalameatarra gendun tarteko.

D. Joakin: «Badajozko andre euskeldun bat datorkit gaur etxera. Badajoztarra eta euskalduna...? Zalamea de la Serena, Badajozko probintzian, jaioa da Rafaela Granado, Granado. Bederatzi urtekin gure artera etorri zan. Rafaela Zalameatarra izanik erdalduna da, baña euskera dakielako, euzkalduna. Eta... zein ongi mintzatzen dan euskeraz gure Rafaela... Euskeldun naizen aldetik, neretzat gauzik atsegiñenetakoa, erbestetik guregana etorri diranekin, euskeraz mintzatzea da.

Ementxen daukat Rafaela Granado gustiz beldurtuta... Gaizki itz egingo duala... Parre egingo diotela... Baña alperrik, zepoan erorita dago eta guretik bere etxera ez da joango gure entzuleentzat euskeraz piskat bada ere mintza gabe.»

—Aspalditik etorri al ziñan Zalameatik Euskal Errira, Rafaela...?

—Bederatzi urtekin. Orain amalau urte,

—Ogei ta iru dituzu beaz...?

—Aste onetan betetzen ditut.

—Zorionak, Rafaela eta urte askoan... Ta euskera nun ikasi zendun?

—Arruan eta Larraskanda azpian.  
 —Larraskanda azpian...? Nun dago Larraskanda?  
 —Askoitiko baserri bat da Larraskanda.  
 —Zertara joan ziñan Larraskandara?  
 —Ango umeai erderaz erakustera.  
 —Ta... Ikasi al zuten?  
 —Gauz aundirik ez. Nik lenago ikasi nuen euskara.  
 —A zer nolako maistra zu... Erdera erakustera joan eta zuk euskera ikasi... Zu baño erakustalle obeak ziran Larraskandako baserritarrak...  
 —Jakiña, beti euskeraz itz egiten zutenta...  
 —Ezkonduta zaude eta neska koskor bat ere badezu. Euskeraz erakutsiko al diozu...?  
 —Bai orixe, nik bezelaxe euskeraz ikasi bearko du,  
 —Zergatik ordea... Zu Badajoztarra izanta...?  
 —Bai bañan Euzkal Errian bizi. naiz. Ta emen bizi geran kempotar guztiok euskeraz itz egin bear genduke, Frantzian guztiak frantzezez egiten duten bezela...  
 —Aspaldi izan al zera Zalamean...?  
 —Bost illabete pasa ditut aurten. Joan zan illean etorri nitzan,  
 —An euskeraz itz egite zendun?  
 —Itz egin? Bai, bai. Itz egin euskeraz esaten zidaten nere familikoak; Nik itz egiten nuan eta parre egiten zuten; Dantzan ere egiten nuan. Emengo dantzak asko gustatzen zaizkie.  
 —Nun naiago bizi nai zenduke? Arruan edo Zalamean?  
 —Emen dudik pe. Gañera nere senarra, guraso ta anaiak emen bizi dirata...  
 —Besterik esan nai diguzu...?  
 —Agur gozo bat euskeldunei y un afectuoso saludo a mis paisanos de Zalamea.

«Arrua eta Inguruetako Irrat-saioak» iru urte iraun zuan. Astelenero, ordu erdi batean entzuten zan gure ekiñaldia. Amaika lan eder egin zan euskeraren alde.

1963go mayatzean mututu zuten Arrateko Irratia. Gu ere ixildu bearrean arkitu giñan. Nunbait Erriak geitxo gozatzen zuan Arrateko euskerazko ekiñaldiakin. Gure erri gaxoa... Beti negarez, beti penetan...

Ta azken urte auetan, Zer gertatu da Arrua-goian euskerekin...?

Negarra datorkit begietara... Naigabez urtzen ari zaigu biotza... Euskera eriotz zorian daukagu... Euskera gaxoaren ondoan bizi gera oraindik; estu eta larri berari... Noiz baño noiz azken amasa emango duan begira...

Arrona goiko euskal soroa erdaldun baratz biurtu zaigu. Ain euskaldun zan Arronako erria gaur ain erdaldun... Zer gertatu daba emen...?

Gaur gure umetxoak ezin dira euskeraz mintza... Erdera utsa darabilte. Gazte egiten diranerako gustiz zokoratua izango dute euskera. Zergatik, ordea, Zergatik...?

«BADAJOZTARRAK EUZKALDUN» izeneko irakurgaian, orain dala amabost urte onela nion: Erdaldunak euskalduntzen ez ditugun bitartean, euskaldunak erdaldun biurtuko gera.

Eziña gertatu zaigu. Ezin guk erdaldunak euskaldundu eta gu erdaldundu gera. Aldi baterako baizik ez datoz Arruara erdaldunek; lantegiak urrun dituzte eta urte batzuek igaro ondoren, erri aundietara dijoaz. Ustutako kaiola betetzera erdaldun berriak datoz... Jende aldaketa... aur berriak... ezin euskera erakutsi... Erderaz egin bear aur berri ai... eta azkenik ito egin digute gure euskera... euskaldun aurra erdaldun egin zaigu.

Norena errua...? Erakundeena, Instituzioarena. Erdaldunen etorrela tajutu eta egokitu bearreko gauza zan... Erri baten izaera itotzeko eran ez zitzaioen sarrerik eman bear... Maitekiro bai, baño piskanaka, buruz artu bearrekoak ziran... Aien gorputz bizitza bezin maitagarria zan gure erriaren bizia... Norena Errua...? Gaur eguneko gure eskoletakoena. Diotenez, euskera ere Espña-rren izkuntz bat da; eskubideak ordea Kastillakoak bakarrik dauka... Kultura bidean gure aurak erdera bidez bakarrik jarri di-

tezke. Erdera utsezko eskoletan itota gelditu bear euskerak... Bilingüismo gabeko eskolak, euskera iltzeko eskolak.

Norena Errua...? EUSKELDUN GURASOENA. —Gure baserrietan, aurrak erdera darabilte... Guraso asko lerre jarioka aien begira... Gure baserrietako guraso askok euskal kontzientzirik ez dute... Beren aurrak euskera galtzeak, ez damaiote ainbesterañoکو naigaberik... Somatu ditut baserriko aur batzuek papi eta mami gurasoai esaten... Ez ditzagun ordea gogorkiro epaitu... Erdera ez jakitearekin ainbesteraño sufri izan dute gizajoak...

Norena Errua...? Gazte euskaldunena...? Erdaldunena...? Arruako gazteak eusten diote oraindik euskerari... Oituraz...? Kontzientziz...? Ba dira bost edo sei Badajoztar euskeraz itz egiten saiatzen diranak. Oraindala bi edo iru urte euskerazko ikasketak ba ziran Arruan. Amabost bat erdaldun joaten ziran. Euskaldunak...? Bakartxu bat ere ez. Aiek ez zuten bearrik euskera piska bat lantzeko.

# # \*

Negar batean ez dut amaitu nai nere irakurgai luze au... Beltz dakust etorkizuna, baña ez dezagun zearo lur jo. Itxaropenaren izarra agertu da Arronako zeru goian... Gure gurasoak esnatzen ari. dira... Euskal kontzientzi apur bat jasotzen ari dira gure baserrietako gurasoak... Erdera bai, baña euskera galdu gabe... Egitazko euskaldun biurtzen ari zaizkigu gure gurasoak... sei urte bitarteko aur geienak Zestuako IKASTOLARA dijoaz gure baserrietatik. Beren aurtxoan aurrerapenakin pozkiro daude Arruako gurasoak... Zergatik datorren urtean eratu ez Ikastola bat Arrua-goian...? Ori da guraso batzuen ametsa... Berpiztu da gurasoen barrua... Gora biotzak... Badagu oraindik itxaropen eta esperantzaz. Arnasa dugun bitartean, esperantza ori ez dugu galduko.

Arostegi'tar Jokin.



## GAUR ARTERAIÑOKO «EUSKERA» BERE «TASU- NAK». ERABERRITU BEARRA. ARRISKUAK

*OAR: Emen daukazun irakurgaia. Donostian, 'mai-inguruko mintzaldi' bai sorlarazteko egin nuan. Orregatik, nere irizpideak eia arrazoibideak laburki dakarzkiz. Askotan ukiiu besterik egiteke. Baiña nere idazlana bere artan uztea obe izango dela pentsatu dut.*

Aspaldi ontan, eta oraiñ-aldi ontan ez gutxiago, kezka-bizi batean gabiltz euskal irakurleak eta euskal-idazleak:

Euskera bizi, xamurra, amaren bularretan edoskia, Urbia gaiñeko billeretan mintzatu oi dena, t. a. edota aurrera-bidetako gai den izkuntza, gaurko bizikera berrian bizi den euskaldunak bear dun izkuntza, ez bakoitzak edo errialde bakoitzak dariona baizik euskaldun guzientzat edo Euskalerra osoan balio lezakena; Ez leengo garo-usandun izkera, baizik oraintsu jaioberri den euskaldun gazteak (gizon berriak) bere bizitzarako ta etorkizunerako... bear dun izkuntza.

Eztabaida luzea da, miña ez ain leuna, elkarren arteko ase-reak (ez dut uste gorrotorik denik) iraungo dula dirudi,

Nik emen itz bitan diodana... or dabill luze ta zabal periodoetan ta liburuetan: adibidez: J. Artetxe, Basarri, G. Ansola, N. Etxaniz, Santi Aizarna... ta beste asko. Liburuak... azkeneko biok aipatuko ditut: Pelay Orozko-ren «La Encrucijada», ta Ibón Sarasola-ren «Euskal Literaturen Historia».

Agí danez, eztabaida bizi-bizia dugu,

Eta onelakoetan, gaur eguneko oikerak au dakarkigu: elkar-izketa, elkarrekin itzegin bearra batabestearen iritziak ikusiaz... onik dakarrena onartzen saiatzeko ta aurrerantz, etorkizunerantz... bide zabal batean elkarrekin joan aal izateko.

Gero izango dugun mai-inguruko mintzaldirako, gai bezela edo, au ekarri nai nuke:

—Gizaldi au arteraiñoko «euskerak» nolako barrena ta nolako gaiña, nolako mamia ta nolako azala... dakazkigun. Galdueziñeko «tasun» batzuk berezi.

—Oraingo (eta gerora geiago noski) «euskeraz itzegin naiak» nolako eziñ-larriak sortzen dizkigun.

—Euskera eraberritzeko egiten ari geran saiaketak.

Jakiña! Izkeraren barrena ta gaiña, mamia ta azala, ezkutua ta ageria diodanean... izpidea garbitzeagatik, gauzak argitzeagatik... diot; gauzak berengan aiñ berezirik ez badaude ere, gure baitan bereizketa egiñaz, gaia argiago erabiltzearren. Izkuntzariak diote (eta edozeiñek dakuske) izketaren barrena ta gaiña, mamia ta azala, labe bat-berean erretako mintzairu bat-bera dira; izkera alegia, bizitzaren agerpena da; onengatik, bizikera aldatzen badugu, izkeraren barrena ere eta barrenakiñ ageria maiz aldatuko dugu; edo ta, izkera aldatzen badugu, iztunaren gogobarrena ere, bizikeraren barrengo iturria ere aldatuko dugu.

Gogaeta onek ontara gakazki:

—Euskeraren, izkeraren... gaiña, axala, ageria... edo mintzaeran edo fonetikan, edo idazkeran... aldatzen dugunean, euskal-iztunaren gogo-barrena, biotzaren muiña ukitzen dugu eta ukitu ori leuna ta ongarria (orregatik itxaxkorra) ez bada, gogo-barrenak muzin ta goraka egingo du. Entzuleak entzungor egingo du edo irakurleak muzin egiñaz utziko du.

—Alaberean, oraingo bizikera berrian sarturik bizi den euskaldunak, bere barrengo barrena gaiñeratzeko, mamia azaltzeko, ezkutua agertzeko, esan-naiak mintzatzeko... euskera, izkera berritu naiko du. Edo ta euskerak, izkerak, ukatzen edo nekez ematen diona... nolabait beste izkuntzan eskatuko dio edo beste izkuntza artuko du.

Emen gutako askoren eztabaidak: batzuak... saiaketa berriei muzin egiñaz, besteak, aserre, nolabait euskeraz itzegin nairik.

Eta goazen... orain arteraiñoko «euskerak» nolako barrena ta gaiña dakazkigun ikustera. Aintziñako izkera dugu gure «euskera». Nork ez ditu nabaritzen... gure aurreko «arri-aro»ko aien oiartzuna ta ondorenak? zenbait itz, esaera, ta ipui-antzeko siniskaiak?

Baiña, urruti aietako ondoren-apurrak, muxu bat emanaz, utzi ditzagun gaurko ontan; eta gatozen onuntzagoko auetara:

Artzaintza-garaia. Oraindik mendi-gain batzutan irauten due-na; eta gizaldi batzuk leenago (orain dela 500 edo 1.000 bat urte), Euskalerra osoan zabaltzen zena. Ortik noski... gure inguruetako toponimia, gure izen-abizen ta esaera asko ta asko; ta ortik noski, gure «euskera»ren «tasun» batzuk.

Ez da arritzekoa. Bizi-aro luzea izan da; gure egunetan ere irauten du oraindik, naiz ta azkeneko ondorenak izan; eta ez dakigu noiz arte iraun lezaken. Dena dela, gure izkera, gure euskera... bizi-aro luze ortan ezurmamitua dugu; gizaldiz-gizaldi, ezarian ezarian... eguneroko bizikera, oikerak, sentikerak, bizi-miñak ta bizi-pozak... mintzaeratu ziran. Eta mintzaera orren ondorena dugu gure izkera, gure euskera.

Eta aintziñako gure gurasoen izkerak... aozko etorria izan du gizaldiz-gizaldi. Eta aozko (idatzi gabeko) izkeraren ekarriak ba ditu bere bizilegeak:

—Itxaxkorra izan bear: aoz eman, entzun ta gogoan artu, gogoan iraun-azi.

—Gogoan artzeko... gogoz entzun (eufonía, musikal-doiñua) gogoan artu (oinkada garbia, oiñ-erorka leuna). (Eufonía, música, ritmo, rima... deritzateke).

Esan ez badut ere garbi ageri da... Don Manuel Lekuona-ri darraikiodaia gai ontan, besteak beste. Eta, garai aietako ondoren batzuk, beren-berean, gure egunetaraiño bizirik etorri zaizkigu:

«Kopla zaarrak». Eta auetan... «tasun» au berezi nai nuke: irudijazkera. Idea-soifía estutu gabe jazten duena; urruti antzetik entzulearen gogoa axkuretzen duena; koplariaren esan-naia polliki apaintzen duena; gaurko abeslari batzuek liotekenez... entzulearen biotza ukituaz... senti-erazten diona «sentikaria».

A. b. Kopla bat edo bi

Au aizearen epela  
Airean dabill orbela  
Etxe ontako jende leialak  
Gabon Jainkoak diela

Itsasoa laiño dago  
Baionako barraraño  
Nik zu zaitut maiteago  
Txoriak bere umeak baiño

Eder zeruan izarra  
errekaldean lizarra  
Etxe ontako nagusi jaunak  
urre gorrizko bizarra

Larrosatxuak bost orri daukaz  
Kkbeliñiak amabi  
Gure aurtxua gura dabenak  
eskatu beio amari

Orain arteraiño euskal-izkeran, bada, «tasun» auek bereiziko nituzke batez ere... artzaintza-garaiko ondorenak... eta garrantzi aundikoak noski... galdu-eziñezkoak, «euskera» mindu gabe:

—Eufonia: goxotasuna, musikal-doiñua, oinkada leuna, oiñ-  
-erorka ezaguna.

—Irudi-jazkera: joskera ere maiz, baiña gutxienez jazkera.

Adibidez... eufonia nola aldaeratu liteken... oinkada aldatu  
utsakiñ:

—Etorriko al da beifiipeiñ... edo: etorriko aal da benhik-  
behin.

—Atoz lenbailen... edo: atoz lehenbaitlehen t. a. t. a.

Zerbaitegatik —irudijazkerari dagokionez— euskal-irakur-  
leen artean... arrerarik onena duten idazleak... edo bertsolari di-  
ranak edo bertsolari-artean dabiltzanak... dira: Basarri, Salabe-  
ria, edo Lekuona, Zabala, Abeletxe; batzuk aipatzeko.

Artzai-bizikerakin... edo ondoren, edo erdixka naastuan edo  
edo osorik batean... nekazari garaia, baserri-aroa datorkigu.

Baserri-bizikera aztertzen saiatu bearrik ez dugu noski; on-  
tantxe jaiokak, aziak, eziak... brit-gera geienak; eta ala ez de-  
nak... esan oi den bezela... naikoa du anka-punttetan jartzea, bere  
gurasoen edo aitonen baserria ikusteko.

Nolabait «tasun» bat edo beste bereizteko, aipa ditzadan:

—Sutondoa: famili-barrengo bizikera, zaarren itzala, gura-  
soen esana, tradizioa... lege zaarraren alde, bizi-oikera berrien-  
tzat fidakaitza, edo, eziñezko aserrean, kontra.

—Bakarti-bizikerak, etxean, baserrian... auzoekiko ar-emanen-  
tan... au ekarri digu noski: eztabaidarako griña, nor-geiagorako  
joko-griña. «Gaitzak gerala umiltzen, eta pakean unitzen.» Bein  
eztabaidan edo jokoan sartu ezkeror... nork amor-eman?

—Eta izkerari dagokionez, barkatu nolabait bereixketa egi-  
tea, nik emen etxe barrengo ta bakardadeko bizikeran, ikusi-  
ko nuke:

—Etxe barrengo ta norbere barrengo mintzagaietarako abe-  
rastasuna: esate baterako, adibidez: guraso, aitona, amona, aita,  
ama, seme, alaba, anai, arreba, aizpa, lengusu, bestengusu, eren-

atsanka, atsartu, atsarte, atsedan, atsegiñ, atsgarri, atsgaizto t. a. *gogo* itzak... *min* itzak... beren goiak edo beeak, saietsak edo egalpeak adierazteko ba dituzte berrogeina itz- ume edo itz-lotu.

Aberastasun au urritzen doakigu; mintzagai auetan, gure aurrekoek utzi diguten ugaritasuna murrizten eta galtzen ari gera... ustegabea noski. Eta nik emen baserriko sutondoa aipaturik... barne-izkeraz diodana, balio lezake, oro-ar, olagizonen eta arraintzaleen izkeraz: Etxe barrengo eta batez-ere norberekiko mintzairua, izkera, euskera, aberatsa dugu. Eta naiz oraingo naiz geroko euskerari begiratuaz... barne-bizikerak darion izkera euskerazkoa bearko luke; ez erderatik artua; gai ontan... zabarkeria litzake eta euskerari dagokionez, eriotza lekarkioke ezarian, ezarian.

Baserri-aroari dagokionez (sutondoko bizikerari begiratuaz batikbat berdintsu olagizonak eta antzeko arraintzaleak) euskeraren «tasun» au nekarke noski: barne-izkera aberatsa naiz etxe-barrengo, naiz norbere barrengo... mintzagaietaz.

Eta «keri» bat: eztabaidarako griña, norgeiagoketan amor-eman eziña. Eta ontan... «entzun dezakenak... bentzu».

Gaur arteraiño euskeraren «tasunak» bereizten ari geran ezkerro (artzaintza-arokoak eta baserri-arokoak aipatu ditugu), beste bat ere ekarri nai nuke: aspalditik... euskera, kristau-izkera da. Esaera-zar edo errefrau bezela etorri zaigu arako ura: Euskaldun fededun.

Onela gaur arteraiño, eta au da dagokidana; baiña barka bezait... nik uste... emendik aurrera ere. Onela izan da bizikera guzian: aozko izketan noski, eta idatzian zer-esanik ez.

Jakiña! «Tasun» batek... bestea kentzen du; bere kontra-koa alegia. Au da: euskera, fede-izkera izanik... fedearen kontra-ko irizpideak, izpideak eta izkerak... moztu, murriztu, ukatu ta zapuztu... egin ditu. Ezin ukatua. Nolanai ere, bizikera ala izanik... bizilegeak dakar: ongarria artu ta kaltegarria baztertu edo uxatu.

tzia... ontara laburtu nai nuke:

—Izkerari, euskerari... kristau-fedetasuna kenduko bagenio... barren-ustutze aundia egingo genioke.

—Kristau-fedearen kontrako ao-ereikteen eta iritziekin... fededunaren biotza ukitzen eta zauritzen dugu; euskaldunarentzat, euskera ez da biotzeko izkera maitea izango, baizik izketarako tresna otz bat.

—Maite ez den tresna, obeagoa eskuratzean... laster utziko da.

—Nere ustetan, eta barkatu... ez nuke iñor mindu nai, fededunaren biotza zauritzen duan euskal-izkera... euskerarentzat kaltegarria da.

Berriz ere esango dut: «tasun» au (fededun izkera) orain arteraiñoko euskerarena da. Gure gizaldiko euskerarena. Oso nekez galdu lezakena, bere bizia arrixkuan jartzeke.

Eta ez dut esan... eta esan bearrik ere ez dut noski... «fedetasun» onek, ainbeste «keri» sortu dituala azpian edo lepoan... saietsean edo gaiñean: beldurkeriak, murrzikeriak, gogorkeriak t. a. landare indartsuan gertatzen zaiona... aldakaitzak noski.

Ikusten ari geranez, euskerak... alako «tasun» batzuk dakazkigu bere barne-muiñean eta bere agerkerako jazkeran.

Eta euskeraren izakera au... zer baitetan edo nor baitengan ikusi nai ezkeron... dudarik gabe bertsolaritza eta bertsolaria artu bearko genituzke. Eta, au ere dudarik gabe, bertsolaritza eta bertsolarien berri jakiteko... Lekuona Jaunaren erakutsiak artuko genituzke. Saill ontan sartu ta saiatu diranak, elkarrekin bat baitatatz beren billaketak agertzerakoan.

Onela:

—*Bertsolari-izkera*... —Itxaxkorra da: musika-doiñuan, oin-kadan, oiñ-erorkan.

—Irudi-jazkera... esan-naia bizitzen eta jazten duana.

—Eztabaida maite du.

—Kristau-fededuna: siniskaietan eta bizilegean. Maiz aski, barrengo «galtxagorriaren» biurrikeriak agertu ta plazan eskeiñiko ditu; baiña... kristau-fededunen begi-belarriak neurriaz-gaiñ mintzeke.

Eta bertsolari-izkerak au guzia dakarrela esan ondoren, beste au adierazi nai nuke. Bertsolari-izkera, izkera onen tankera, tankera ontako euskera, euskera onen «tasunak»... oietxek dirala euskaldun jendeak, euskeraz itzegiten duan erriak edo jendeak... bere baitan, bere barrenean... dituanak.

Ara bertsolaritzaz mintzatzen zaigularik... Lekuona Jaunak desaigna:

«Bertsolaritza ez du bertsolariak berak bakarrik osatzen, baidzik bertsoak entzuten dagon jendeak, erriak... elkarturik osatzen duten «zerbait» da,

Bertsolaria ta entzuten dagon jendea... gogo-labe bat berean bezela sartzan dira... ta antxe danak batera su-artzen dute... ta danak batera bertsuaren azkeneko puntua txinpartatzen dute; maiz ikusten dena eta elkarrekiko poz-atsegiña dariona.»

«Bertsolaria ta jendea, erria... bat egiñikako gogo-labe ortan nolako suak eta garrak piztu ta indartu litezken! Gogora... arako Iparragirre-ren Tolosa-ko giltzapeak eta Santander aldera joanbearrak.»

Ontara nator:

Gaur arteraiñoko euskerak ba ditu alako «tasun» batzuk... euskal-iztunaren biotz-biotzean sarturik dirautenak: artzaintza-aroak eman dizkionak, etxeko sutondoak berotu dizkionak, bertsolari tzak agertzen dizkigunak:

Euskera itxaxkorra, musikaduna, oinkada leunekoa, belarri-barnean goxo sartzan dena.

—Irudi-jazkeraz jantzia.

—Gogo-barrenak, etxe-barrena... agertzeko aberatsa.

—Kristau-fedearen pontean bataiatua.

Auxe da noski... euskera erraxa, errikoia, diogunean, esan nai izaten duguna.

Gaur arteraiñokoa. Eta gaur? eta gero? Gaur-gero?

Eta aurrera pasa baiño leen, gogoratu dezagun onako au: Gaur arteraiñoko «euskera» diodanean, gure izkera... bere etorri osoan, oro-ar aipatzen dut. Geienbat aoz-ao etorri zaiguna; baiña etorri ortan datorkigu ere idatzizko izkera, euskal-literatura.

Berezi ditudan «tasunak», argi ta garbi POESIA deritzan líetraturan: musikaduna, oinkada leunekoa, irudiz jantzia, barne-mintzoduna, fededuna.

Askoz nekezago PROSA deritzan itz-lauzko idatzietan, baiña nolana ere: aroia ortan, tankera-bide ortan.

Izan ere, bizikera bat-beraren agerpenak izaki.

Ara zer desaigun Ibón Sarasola jaunak («Euskal Literaturaren Historia» 135 orr.): «1954-an hasi eta finkatzen den euskal literaturaren berriztapena, orain arteko haundiena dateke. Molde berriak, euskaldungoa hezurmamitzen zuten pentsaera erlijios eta nekazaritatik libratzen duelarik eta pentsamolde arras desberdinen espresabide bilakatzen delarik, euskal literaturaren marjinalismoaren bukaera ekartzen du. Aurreiritzi linguistikoak bazterturik euskera kultura hizkuntza bihurtuz joan dadin posible egiten du. Eraberritzea gauzatzen duen idazle taldea, sortuz doazen idazle berriez eta ikusmolde zaharretik berrira pasatzen direnez osatzen da. Publiko irakurle sortu berriak sendotuz doan oiñarri bat ematen dio literatura gazteari.»

Nik, egia esan, ez dakit noraiñoko egia izango den au guzia; baiña, nolana ere, batera gentozke ontan: Euskaldungo gazteak, berriak, oraingoak... bizikera berri bat artu duk edo arizan doala... oraingo kultura-bide zabal eta orokorretan.

Euskerari dagokionez, geienak? gazterik geienak? Nork daki? Pentsamolde arras desberdinen espresabide? Iñork aal daki?

Nora eta nola-miñ auetan dabillega gaurko gatzedia, BAI.

—Artzai-aroko ta baserriko bizikerari, industriar teknika-bizikera datorkio ondoren.

—Sutondoko bizikerari, kultura-bide zabal ta orokorrak.

—Fedezko pentsakera batuari, irizpide ezberdiñ eta naasiak.

Bizikera berri onek, izkera ere eraberritu naiko du: alegia, Izkuntza-gaietan eskolatuak (eta gaur gazterik geienak... izkuntza legezkoa ez-ezik... frantsesa eta inglesa ere ikasten du) ezin onartu dezake izkuntza-legerik gabeko izkera. Gauza bat-bera... dek itza, dela aditza, dela itz-joskera, dela idazkera... emen modu batera, an bestera, urrengoan alderantziz... edo beintzat ezin onartuko du orrela idaztea. Parregarri derizkioke Izkuntza-legetan ikasitako begiekin ikusten bait-du.

Orregatik euskerari dagokionez, bere elburua au izango da:

—Izkera izkuntzatu... Euskalerri osorako izkuntzan.

—Eta bizikera berrirako izkuntzan... alegia: industriar bizi-kerako, kultura-bide zabaletako, irizpide ezberdiñetako.

Au elburua. Eta elpideak? Emen lan zaillaren zailla, zaillaren zioa.

Izketako oikerek, oiturek, ezurmamitu dituzten lege-antzeko ala-moduak... egiaz LEGEt, egiazko legetzat onartu ta onar-erazi.

Bonaparte izkuntzalariak, orain dela eun urte, euskeraren (garai artako) barrengo euskalkiak aztertu ta berezi zituanean, one-lako ondorio au agertu zigan:

—Sei euskalki.

—24 euskalkipeko izkera berezi,

—Eta bereizki ainbat eta ainbat ugariago.

Denok dakigu... euskaldunak, idazten asi zen ezkeroztik... nolako kezka-miña izan duan... euskaldun irakurle guzientzat idatzi nairik eta eziñean. Kezka-mifi au gero eta larriago sentitu du bere biotzean. Azken-aldi ontan eta garra tzago. Denok dakigu. Eta gizaldi ontan, gure egunetan, samiñago eta garraxika ere.

Baiña, nola izkuntza-lege oiek berezi eta garbitu eta erabili... euskera biziari dagozkion «tasunak»: eufonía, oinkada, berezko ditun ugaritasunak... autsi ta galerazi gabe? Ara emen izkeraren izkuntzatzeak lekarkiguken eginkizuna:

—Aotskun bakoitza nola idatzi, ze letrak: a. b.: Yainkoa, Jainkoa, Xainkoa.

—Itz bakoitza bere osotasunean onartu: a. b.: Donosti, Donostia; lenbailen, leenbailleen.

enara, iñera, enara (17 edo) = enara. Ots! gure iztegiko itzik geien-geienekiñ... eginbearreko lana, itz gutti batzuk ez beste.

—Aditzaren ugaria... forma erabaki batzutara ekarri: a. b.: dut, det, dot = dut?

Eginkizunaren zailla, ageri-agerian ikusten dugu.

Itzak, beren osoan artzekoan, bokal bakarrak bikoiztu... edo biñakakoak (diptongoak) austen badiugu... belarri-barrenak min artuko du; areago... *H* bat bien bitartean sartzen badugu; areago noski... onelakorik egitekoan... euskaldungoaren seitatik batek dakarrena beste bostei ar-erazi nai badiegu. Bekrri-barrena ez-ezik begi-barrenak ere minduko zaizkigu. Eta au diodanean, izkeraren izkuntzatzeak nolako zioak sortu lezazken esan nai, dut.

Eta lege-eratze ontan... zenbat euskaldun erabat zapuzturik gelditu liteken.

Onengatik, naiz legeak ongi jarriak izan, idazleak edo izlariak... kontu izan bearko du legeak erabiltzekoan... euskerari dagokion musikal-doiñua autsi ta ondatu gabe; eta irakurleak edo entzuleak... bere eraman-aalak lasaitu ta zabaldu bearko ditu.

Eta zaillaren zaillagoa oraindik.

Emen ari geranez eta dakusgunez... euskal-izkuntzak... bizikera berrirako, izan bear du: au da: bizikera zabal-orokorra, industriar-teknika-bidekoa, irizpide ezberdiñetan naasia.

Konturatu gaitezen orain... zer-nola datorkigun bizikera berri au: batik-bat gauza-iturria ugaritu da... gero eta gauza geiago sortzen... maiz-indar azkarragoan... eta sortu ez ezik... eman ta artu... artu ta eman.

Eta gauzarik geienak edo asko beintzat... erdal-jatorrizkoak ditugu... erdal-izkuntzetan bataiatuak beren izen, abizen ta guzti. Dudarik gabe... izen auek... euskeran artzen ditugunean, datozkigun bezelatsu... beren jatorrizko izen arrotzean artu bearko ditugu.

Baiña, au onela izanik... beste zera bat ere gertatzen ari zai-gu. Ara.

Aipatu dugu leenago gure euskeraren ugaria, barne-gaietan... naiz etxekoetan naiz norberekikoetan. Nik uste dudanez... aberas-tasun ugari au galtzen ari gera eta asko gaiñera.

Nola ez bada? Pentsagai asko ta irizpide geienak... erdal-  
•kulturan edaten ditugu, erdal izkuntzetan. Eta jakiña! Gero eus-keraz ari geranean... edo euskeraz ari geralakoan... erdera eus-keratzen besterik ez gera aritzen. A. B. Ikus... emen Donostian, apaiz artean... KristaubideBerritze-Eskolak agerturiko «ikasketa» batean:

«Jainkoa eta gizonaren arteko pertsonal komunioaren espe-rientzia erreaŰzatzea da Hitza entzutea». Eta ez da, billatzen ibilli ondoren, arkiturikoa; naikoa duzu... edonora begiratzea idazkian barrena... onelako edo gordiñagoko zerbait ikusteko. Eta ni apaiza naizenik... apaiz-artekoa bereiztea nerizkion egokiena; eta ez noa geiago esatera, iñor mindu ez dedin... baiña ba legoke non bil-durik, asko nekatzeke,

Bide ontatik jarraituaz... laster izan genezake izkuntza, legez ongi ornitua (eta au ere?) baiña euskal-mamirik gabea, barren-ustela, iilo tza, bizirik gabea.

Eginkizunaren zailla, agerian dago,

Euskerak, bere «tasunak» galdu lezazke (eufonía, oinkada, barne-izkeraren abersatasuna, kristau-fedetasuna); «oraiñ-arteko» euskaldun jendea zapuzturik geldituko da... eta onela... euskera-ren azala gordeko genduke... izkuntza-legetan ongi eratua... baiña izkuntzaren barrenak bear duen bizitasuna galduko genduke; tres-na motela, erdi-illa edo illotza... geldituko litzaiguke.

Onengatik noski, barka ene ausardia, aiñ maite izango du idazle gazteak... aintziñako idazlea; alegia... aintziñako idazleak, euskera biziaren «tasunak» ez izanagatik (eufonía, oinkada batik-bat) bere euskalduntasuna ezin ukatua bait-du. Eta ara nola batera datozen aintziñako idazlea ta oraingo berria: euskera biziari da-gokionez, aintziñakoa il zen, eta oraingoa ez da oraindik jaio, aien eta auen euskera ez da izkera bizia, aiena illa eta auena jaio gabea

litzake. Eta idazle berriak zaarrari, besteak beste (zenbait idaz-lege, esakera t. a.) auxe eskatuko dio: euskal-agiria, euskal-izena... izan ere... aien euskalduntasuna ezin ukatua bait-da, naiz aien izkera... gaur bizi ez.

Eginkizunaren zailla, ain zailla izanik... egiñ-aal onik egiten ari da idazle-jende berria. Amaika ezbearretan erori ere bai noski... izkera izkuntzatzeko legeak ezarri naiean edo... kulturagai berriak erabilli naiean... edo fede-esanak eraberritu (ukatu ez noski) naiean.

Ala ta guztiz:

Lanerako gogoia ta gogozko egiñ-aalak onestekoak dira; naiz ta guk, leengo gizaldikoak, gauza askotan miñ-artu.

Eta, bukatu aurretik, galdera batzuk:

—Zergatik ez... GUK, leengoak... euskeraren izkuntzatze ontan... idazlegeak onartzen ez gera geiago saiatzen?

—Zergatik ez... oraingoak... oraiñ-arteko euskeraren «ta-sunak» ez geiago onartu, onetsi, ta gorde? batez ere... barne-izkerari dagokion aberastasuna, oinkada bizi-leuna? zergatik kristau-fedea zauritu... ta areago... fede-biotzaren kuttunak lokatzetan zikindu?

Euskeraren osasunak ala eskatzen digu; eta euskeraren osasuna... Euskalerriko ONA da. Eta onelakoetan esan oi dugun bezela: Gaizki esanak barkatu!

Nik ekarri dut mai-gaiñera mintzagaia; nere iritziak agertu ere bai; orain mintza bitez mai-inguruko lagunak.

*Pedro Berrondo*



## ZUMARRAGA'KO PARROKI ZAARRA

Laister dira 400 urte Zumarraga'ko parroki zaarra itxi zala. Parroki zaneko liburuetan «Santa Maria de Zumarraga» esaten zaio, Zumarraga'ko Andra Mari'ren eliza, alegia.

Parroki-izatea utzi-aurretik, auzitan gogor ibilli ziran zumarragatarrak: eliza toki erosoan, ordekan, bear zutela, ez mendi-aldera. Ori zuten arrazoipide agirikoa, indar aundikoa, ta orreri eltzen zioten alegin guztiz. Ba-zuten, orde, ixilkako beste zer bat ere, ta asko eragiten ziena gaiñera: Lazkau'ko jauntxoaren menpetik alde-egin-nak. Lazkau-ko jaunaren eskubidekoa bait-zan Zumarraga'ko Andra Mari'ren eliz-goraberak erabakitzea: apaizak izendatzea, aukeratzea, ta elizako urteroko diruetan zer-ikusia izatea.

Orregatik, zumarragatarrak auzia irabazi zutenetik bertatik, goiko eliza erabat itxi egin zuten. Beren gogoko toki erosoan etxe pare bat erosi ta antxe asi ziran elizkizunak egiten. 1575-gn urtea zan. Laixter lareun urte.

•JC W •JH

Ez noa orain parroki zaar ori Zumarraga'n nun dagon eta angokuspegi bikaiña noiakoa dan esatera. Gizon ikasiak diotenez, eliz ontako zur-lanak, arotz-lanak, ez omen dute Europa guztian berdiñik. Ez da, noski, alako gutxi-gutxi ere. Ta gaiñera Euskal-

erriko elizetan euskal-kutsurik, euskal-usairik, geiena duana omen da. Ori ere ba-da zerbait. Zaituko ta edertuko ote degu bear bezela?

Ez, ordea, uste akatsik gabea danik, bere ortan ondo dagonik, obetu ezin daitekenik. Lareun-bosteun urte ez dira alperrik igaro, ango abe ta gaiñerako zurajeentzat, batez ere. Orregatik, eliz zaar onek bear ditunak bi sailletan banatuko ditut: *kendu bear zaiz-htonak* eta *ezarri bear zaizkionak*.

#### I — *Kentzekoak*:

1 — Barrutik, suaren arriskua; kanpotik, tximistarena. Ba-dira gaur ortarako aurrerapen egokiak. Pentsatutakoak ez dira nolanaikoak: zuraje guztia, barne ta kanpo, errekaiztu (— ignifugar), etabar.

2 — Pipia galdu-eragin. Ez da asko, izan, baiño dagontxoia galdu bearrekoa da.

3 — Eliz onek mendi-aldetik, ipar-aldetik erantsirik daukan *seroretxia* kendu. Bear-bearrekoa ori ere elizak duan jatortasuna bere egiñean ager dedin,

#### II — *Ezartzekoak*:

1 — Itxita dauzkan zazpi-zortzi leio zabaldu, argitarako ta ederrera.

2 — Argi-indar berria sartu, elizari dagokion aiñakoa ta eliza argitu.

3 — Oltzaroa. Azkenerako utzi det eliz zaar onek bear duan edergarrikerik bereziena. Ez da, noski, zailena izango, baiño bear-bada, bai garestiena.

Zumarraga'ko eliz onek, gure baserri zaar askok mandio-aldea bezela, oltzarozkoa zuan arri-landuz gorako guztia, bai egu-tera-aldekoa, ta bai sortaldekoa ere. Teillapeko kapirioetan antxe ikusten dira oraintxe ere teillatuaren eta oltzaroaren eusgarri ziran besangaen zuloak. Eliz barruan ere ba-dira izandako oltzaroaren beste zeinbat aztarna.

Gaur oltzaroa ezartzeko, arri-landuz gorako orma kendu bearrik ez litzake. Ormari gaiñetik oltzaro berria ezarri, leen izan zuanaren antzekoa, kanpo ta barne. Ta zura nagusi dan eliz ontan, leen izan zuan bezelatsuko oltzaro berri batek, kendutako zaar-usaia berritu egingo lioke ta leengo ederra biurtu. Nere iritziz, Gipuzkoa ta Bizkaia'n «ormaetxea» baiño leenagokoa zan «ola-etxea», ta elizetan ere orobat: «ola-eliza» zaarrago «orma-eliza» baiño. Ta orren lekukorik, testigurik egokiena Zumarraga'ko parroki zaarra degu. Ikus noiakoa litzaken oltzaro berri batekin eliz orren irudia.

Oltzaro zaarra kendu ta orma egitea noizko langintza danik gauza garbirik ez dakigu, jakin. 1521-garren urtetik asten dira Zumarraga'ko eliz-liburuak, bai bataio-ezkontzetakoak, bai urteko kontu-emateenak ere. Baiño lantegi aren berririk ez dute ematen. Ordurako egiña bide zan. Alere, ba-du eliz onek arrizko irakurgai bat: en año de mccccclxxx. Aldare-nagusi-aldeko orman, kanpotik, antxe dago edozeiñek irakurtzeko eran.

Nere aburuz, urte orixe litzake Zumarraga'ko eliz orretan egin izan ziran aldaketa aundi guztien muga ta seiñale, 1480-go urtea, alegia; adibidez, Andra Mari'ren irudi zaarra, «romanikoa», baztertu ta berria-gaur dakusguna —ipintzea; apaiz-tokia-(presbiterio dalakoa)-erantsitzea—; ainbeste aldiz aipatutako oltzaroa kendu ta orma jasotzea; oraindik orain kendu zitzaion eliz-sapaia (bóveda) egitea ta koruko solairua txikiagotzea ta, agian, seroretxea erantsitzea ere bai.

Zumarraga'ko paper zaarretan ez da, ordea, orrelako ezeren aztarnarik, ezta Iruña'ko Gotzaigo'koetan ere. Iñun ezer agertzekotan, Lazkau'ko Jaunaren garai artako paperetan arki diteke zerbait-zerbaiten argibidea, iñun arkitzekotan. Edozeintara ere, bosteun urte-inguruko kontuak dira ta nai diran guztiak argitzea ez da erraza izango,

\*X\*    \*K\*    \*H?

Emendik urte gutxi barru, 400 urte Zumarraga'ko parroki zaarra itxi zala. Gaur ez dago elizkizunetarako itxirik, gutxiago-

korik ere ez. Ba-du Zumarraga-ko erriak arako joerarik, ba-du antxe arnaspiderik.

Zerbait egin naiean gaude; zerbait baiño geixeago nai genduke. Ate-joka astekotan gera, esandaduok nolarebait egi biurtzeko.

Gipuzkoa'k asko dezake, artara-ezkero, baiño onelako ederlanetarako gutxitxo egiten duala entzuten da bazterretan. Ederretik etekin exkaxa izaten dalakoan ote gaude, ba, gipuzkoarrok? Nik, ezetz uste. Joko ditugu ateak, ezker-eskubi, goi ta bee. Ikusiko degu. Ikusteko gaitezela guztiok.

*Irigoi'en'dar Txomin'ek*

## FONDO «P. AGUSTIN DE CARDAVERAZ, S. J.» DEL ARCHIVO DE LOYOLA

- 1.— CARTAS. Es el material más abundante: unas, más frecuentes, del tiempo de su formación (1723-1731), y otras del tiempo de sus ministerios apostólicos. Sus corresponsales son los PP. Juan de Loyola, Pedro de Cdatayud y Bernardo de Hoyos.
- 2.— CUENTAS DE CONCIENCIA. Unas van mezcladas con las cartas anteriores, y otras, más amplias, aparte. Son los documentos más interesantes para conocer su espiritualidad y sus experiencias místicas.  
  
N. B. Hay tres libros mecanografiados con copias: dos de cartas, y uno de una extensa cuenta de conciencia.
- 3.— «DÍAS MEMORABLES...» Es un papel interesantísimo que escribió el año 1736 en que fue destinado a Loyola. En él consigna con todo detalle los días más importante de su vida desde su nacimiento hasta la fecha, y termina con unos ardientes afectos sobre Dios-Eternidad.
- 4.— Fórmula de su PROFESIÓN SOLEMNE EN LA COMPAÑÍA DE JESUS, que hizo en 1739 en la Capilla de la Conversión de la Santa Casa de Loyola.

sofía en Palencia bajo el profesorado del P. Posada. Son como todos sus escritos— de una caligrafía finísima, y además están adornados con algunos dibujos artísticos.

Un libro en latín de -apuntes para sermones en forma de «silva». Con un índice alfabético. Es un trabajo a medio hacer. Por la letra parece del P. Cardaveraz.

Un libro de sermones y otros escritos para la predicación, del P. Jerónimo López. Entre ks diferentes letras, se halla lo escrito o copiado por el P. Cardaveraz desde la pág. 81 hasta la pág. 126.

— **TRES PEQUEÑOS LEGAJOS DE DIVERSOS MANUSCRITOS:**

Uno *en latín* (Apuntes de Literatura, Filosofía, Teología, Espiritualidad, Moral y Casos).

Otro *en castellano* (Predicación, Instrucciones espirituales, Casos de conciencia, Persecuciones de la Compañía). Unos de letra original, otros en copia.

N. B. Sobre algunos de estos manuscritos en latín y en castellano se puede dudar sin son del P. Cardaveraz o del P. Croze.

Otro *en euskera*. Es el más nutrido, y parece el más acabado. La mayor parte deben de ser algunos originales de, los libritos espirituales que imprimió. ¿Algunos serán inéditos?

— **CARTAS AL P. CARDAVERAZ.**

— **CARTAS ANTIGUAS EN QUE SE HABLA DEL P. CARDAVERAZ.** Principalmente del H.<sup>o</sup> Gámiz, procurador del colegio de Pamplona, sobre los libros que imprimía o pedía el P. Cardaveraz.

— **UNA CARPETA DE ESCRITOS SOBRE COSAS DEL P. CARDAVERAZ:**

Varios escritos del P. Cortázar (1749-1826):

Datos, virtudes del P. Cardaveraz.

Cuentas de conciencia (Copias).

Notas bibliográficas.

Misiones y Congregaciones del Sdo. Corazón de Jesús.

Versos en euskera.

«Eusqueraren Berri Onac». Traducción de algunos trozos y estudio por el P. Félix Areitio, S. J. (Se encontró entre sus papeles al morir el P. Areitio).

Papeles varios.

- 10.— OTRA CARPETA GRANDE CON DOCUMENTOS Y PAPELES SOBRE LA FAMILIA Y SOBRE LA PERSONA Y RESTOS DEL P. CARDAVERAZ . Entre ellos dos cuadernos de folios grandes mecanografiados, escritos por D. Mariano Maiza, capellán que fue de las Agustinas de Hernani: «Monografía de la familia del P. Agustín de Cardaveraz». «El P. Cardaveraz en Hernani».

- 11.— Entre el Archivo y la Biblioteca Vasca de Loyola hay una colección —que debe de estar bastante completa— de los libritos que publicó en euskera el P. Cardaveraz (Varias ediciones).

- 12.— Entre el Archivo y la Biblioteca General de Loyola hay las siguientes *biografías del P. Cardaveraz*:

De viris illustribus in Castella Veteri Soc. Iesu ingressis et in Italia extinctis Libri II. Auctore Joanne Andrea Navarrete. Bononiae. MDCCXCIII. AUGUSTINUS CARDAVERAZIUS. En el tomo 1.º, p. 166-218. Lo principal es una traducción en latín del manuscrito entonces todavía inédito del P. Fonseca, que viene a continuación.

Compendio de la Vida del Padre Agustín Cardaveraz... Por el P. Julián Fonseca... Lo escribió en el destierro por encargo del P. Francisco Javier de Idiáquez. Madrid. 1862.

Hay en este Archivo varias copias manuscritas de este Com-

pendió. Hay también una copia del original completo de Astigarraga. El compendio se hizo sencillamente suprimiendo los capítulos que trataban en particular de cada una de las virtudes.

Folleto-compendio de la Vida anterior, en euskera:

Aita Agustin Cardaberaz  
Jaincoaren serbitzari andiaren  
**BERRI LABURRAC**  
Apaiz Batee  
eusqueraz jarriac  
Durango. 1908.

Vidas de algunos claros varones guipuzcoanos de la Compañía de Jesús. Tolosa. 1870.

P. AGUSTIN CARDABERAZ. 1770. En las págs. 303-342. Al fin trae una bibliografía de Impresos y Manuscritos inéditos.

Mujika'ko Gregorio  
Ernani'ar Ospetsuak  
ITURRIAGA - KARDABERAZ - URBIETA  
**Donostia.** 1910.  
Lo del P. Cardaveraz está en las págs. 45-53.

Ardores de un Serafín  
El P. AGUSTIN **DE** CARDAVERAZ.  
Por el P. Gaspar González Pintado, S. J.  
2 volúmenes. Madrid. 1924.

Vida del P. A. de CARDAVERAZ, Apóstol del Corazón de Jesús.

Por el P. Gaspar González Pintado, S. J.  
San Sebastián. 1947.

